



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko azaroaren 19an

88 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua (2. or.).
- Foru Lege proiektua, tributu arloko aldaketei buruzkoa (49. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko azaroaren 6an hartutako Erabakiaren bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Gaur hasiko den epe bat irekiko da, **1998ko azaroren 23ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariet osoko emendakinak aurkeztu ahalko dituzte. Eta beste epe bat irekiko da, **1998ko azaroren 27ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakorekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariet aurtikuluei emendakinak aurkeztu ahalko dituzte.”

Iruñean, 1998ko azaroaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua

Espainiako Konstituzioak bere 31. artikuluan ezartzen du gastu publikoak ordaindu ahal izateko behar-beharrezkoa dela hiritar guztien ekarpena, bakoitzaren ekonomi ahalmenaren arabera,

berdintasunean eta progresibitatean oinarritutako tributu sistema zuzenaren bidez.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) funtsezko tributua da Konstituzioaren agindua eraginkorra izan dadin, errentaren gainean ezartzen baita. Errenta, karga progresiboa duen zergadunen ekonomi ahalmenaren adierazpen zehatzena da.

Tributua dirubilketarako baliabide bikaina da. Aurtengo Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurreikusi da Zerga honen bidez Zuzeneko zergen % 70,33 bilduko dela eta zerga guztien % 30,78.

Aipatu ezaugarriek Errentaren gaineko Zergari politika fiskaleko hainbat helburu egotzi dizkiote, hala nola, aberastasunaren birbanaketa, kontuan izanik progresiboa dela, eta ekonomi egonkortasuna, ziklo ekonomikoei egokitzeko gaitasun handia baitu.

Zerga orokor, pertsonal eta progresiboaren eredu hau 1978an ezarri zen gure tributu sisteman eta 1992tik aurrera arautu da berriz ere. Data horretatik iragandako denboran beharrezkotzat jo da zerga eguneratzea, egoera ekonomiko, finantzario eta sozialari eta gure inguruko tributu sistemei egokitzeko.

Foru Legeak egitura hau du: 10 titulu, 100 artikulua, zenbait xedapen gehigarri eta iragankor, xedapen indargabetzailea eta azken xedapena.

I. tituluak ezartzen du Zerga ordaindu beharreko oinarri orokorra, LORAFNaren 45. artikuluan aipatzen den Hitzarmen Ekonomikoaren arauak jarraituz. Ondoren tributuaren izaera zehaztu eta dio zuzeneko dela, hots, ezin dena trasladatu eta errenta, eskuratzen denean kargatzen duena; izaera pertsonalekoa, hau da, nahitaez subjektu pasiboa eta horren subjektibitatea jaso behar duena, zeren tributu kuota zehazteko zergadunak biltzen dituen hainbat berriarazko inguruabar hartzen baititu kontuan. Inguruabar horiek eragina dute subjektu pasiboaren ekonomi ahalmenean

eta, beraz, haren karga ezartzerakoan ezin dira saihestu.

Tributuaren xedea pertsona fisikoak eskuratzeko duen errenta orokorra edo osoa da, karga sortzen baita edozein dela aipatu errentaren sorlekua edo ordaintzailearen egoitza.

Azkenik, I. tituluak Zergaren aplikazio eremua jorrazten du eta dio Nafarroan egoitza duten subjektu pasiboak aplikatuko zaiela, Hitzarmen Ekonomikoaren 7. eta 8. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

II. tituluak tributuaren zergagaiari ekiten dio. Zergagaia, oro har eta zabal harturik, subjektu pasiboak lortutako errenta gisa definitu da.

PFEZak eta Oinordetza eta Dohaintzen Zergak errenta bera kargaturik ezarpen bikoitza gerta ez dadin, aipatu lehen tributuari ez lotzeko suposamendua ezarri da baldin delako errenta bigarrenari lotzen bazaio.

Salbuespenei dagokionez orain arte indarra izan duten ia guztiak biltzen ditu Foru Legeak eta edukia beste hauetara zabaltzen du: goi-mailako kirolariei ematen zaizkien zenbait dirulaguntza, nazioarteko bake eginkizunetan edo laguntza humanitariokoetan parte hartzeagatik eskuratutako haborokinak, atzerrian egindako lanengatik jasotako lanaren etekinak, 1936-1939 Gerraren ondorioz diren pentsioak edo elbarriak eta giza immunoeskasiaren birusa dutenei ematen zaizkien dirulaguntzak.

Zergagaiaren elementu materiala arauturik, Zergaren elementu pertsonalari ekiten zaio, subjektu pasiboari, alegia.

Subjektu pasiboa pertsona fisikoa da, bakarka harturik, ezin baitzen bestela izan Auzitegi Konstituzionalak otsailaren 20an emandako 45/1989 Epaia ondoren.

Foru Legearen III. tituluak, hasteko, Zergaren Zerga-oinarria arautzen du, hau da, karga daitekeen kontribuzio ahalmena zehazteko parametro koantitatiboa.

Zerga-oinarria bitan banatzen ahal da, bata orokorra, berezia bestea, karga ezberdina izan dadin batean zein bestean.

Foru Legeak, hurrena, errentaren zenbait osagai jorrazten ditu. Lehenik, lanaren etekinak, oso-osoa hartuta, hots, zuzenean lanetik eskuratutakoak eta zeharkako bideetatik jasotakoak, nahiz dirutan, nahiz gauzatan.

Kontzeptu horretan horiek guztiak bildurik, bertan sartutako kontraprestazioak eta onurak aipa-

tzen dira ondoren. Arreta berezia jarri da beti lanaren etekin hartuko direnetan, zenbait hartukizunen kalifikazioari eta tratamendu fiskalari buruz doktrina zein jurisprudenzia alorretan izan diren eztabaidek sortutako ziurtasun-gabezia juridikoa bukatzeko.

Etekin irregularrak eskuratzeagatik errenta metaketan Zergaren ondorioak saihesteko, zergadunak aise erabiltzeko moduko prozedura prestatu da etekin irregularrak urteka sailkatzeko mekanismoaren orde. Prozedura hori, funtsean, etekin osoa portzentaia batean murriztean datza, % 30 eta %50 arteko portzentaia aldakorrean.

Kapitalaren etekinei dagokionez, Legeak ondasun higikorren eta higiezinaren arteko bereizketa ezaguna egiten du, ondareko zein elementutan duten jatorria, haren izaera juridikoaren arabera.

Gauzatan egindako ordainketen balorazioa egiterakoan, jasotako ondasun edo zerbitzuek merkatuan duten balioari erreparatzen zaio, eta bidea irekitzen da aipatu prezioa zehazteko irizpideak araz ezarri ahal daitezen.

Berrikuntza bat sartu da higiezinaren kapitalen etekin arautzean: ondasun higiezinetatik ondorioztatzen diren errenta errealak soilik kargatzen dira, ustezko errenta desagertzean, horren koantifikazioa, higiezinaren katastro balioari portzentaia bat aplikatuz egiten baitzen.

Aurreko guztiaren ondorioz, etekin garbia zehazterakoan, ondasun higieziari dagozkien gastu kengarrien aipamenik ez da agertzen. Hemendik aurrera, jakina, errentan emandako edo utzitako ondasunen, edo usaera eta gozamen eskubide edo ahalmenaren menean diren ondasunen sailean sartuko dira.

Denboran zehar erregulartasunik gabe eskuratutako lanaren etekinekin edo bi urtetako epea baino luzeagoan jasotakoekin gertatzen denaren antzera, lortutako zenbatekoaren murriztapen bat ezarri da, kasu honetan, etekin garbi positiboaren % 30.

Jatorriaren arabera, hiru sailetan banatu dira, ohi denez, higikoren kapitalaren etekinak: entitateen fondo propioetan izandako partaidetza, kapital propioak besteri utziaz lortutako etekinak eta gainerako ondasun higikor edo eskubideetatik heldu direnak.

Lehenbizi aipatutako etekinen zerrendatzea kontinuista da eta aurreko arautegiari jarraitzen dio. Ondoko hauek biltzen ditu: dibidenduak, batzarretara joateagatik primak eta bazkide,

akziodun edo partaide izatetik ondorioztatzen den beste edozein onura.

Etekinak gaur egun bezela sartzen dira Zergaren oinarrian: lortutako zenbatekoa eta koefiziente bat biderkatzen dira eta koefizientea aldatuko da dibidendua nondik heldu den, entitate horri Sozietateen gaineko Zergak aplikatzen dion karga tasaren arabera.

Horretan berrikuntzarik handiena da "dibidenduaren garbiketa" izenekoari mekanismo zuzentzailea ezarri zaiola. Aipatu garbiketa baloreen eskuratzean datza dibidenduaren banaketa baino lehenxeago eta ondoren, besterentzean. Foru Legeari jarraituz, dibidendua ordaindu aurreko bi hilabeteetan lortutako baloreei 1 koefizientea aplikatuko zaie, ondoko bi hilabeteetan balore homogeneoen besterentzea gertatuz gero. Epe horiek urte batera luza daitezke tartean araututako merkatuetan negoziatu gabeko baloreak direnean.

Kapital propioak besteri uztetik heldu diren higigagarrien kapitalaren etekinei dagokienez, berria da kontzeptu horretan sartzeari eskualdaketak, itzulketa, amortizazio, truke edo bihurtetatik ondorioztatutako etekinak. Orain arte, oro har, ondare gehikuntza edo murrizketatzat hartzen ziren.

Aipatu "dibidenduaren garbiketa" kendu nahi duenaren antzeko mekanismo bat gaineratzen du Foru Legeak, direlako aktiboak eskualdatzetik etekin negatiboak lortzen direnean.

Gisa horretako gainerako etekinen alorrean, azpimarratu behar da, lehenik, kapitalizazio eta aseguru eragiketei tratamendu bateratua ematen zaiela. Horiek, aurreko arautegian, ondare gehikuntza edo murrizketak zekartzaten.

Aldaketa honen arrazoia da merkatuan den aseguruaren eskaintza askotarikoak sortutako errenta motak bereiztea ia ezinezko bihurtzen duela "finantza ingeniariak" delakoak, horrek dakarren nahasmenduarekin tributu alorrean, itzurpen fiskalerako nahasbideak finkatzen baititu.

Bigarrenik, Foru Legeak nabarmentzen du lerroalde honetan sartzen dela ondasun higikoren edo eskubideen usaera eta gozamen ahalmena edo eskubidea eratzeko edo uzteko suposamendua eta horiek baloratzeko merkatura jo beharko dela du azpimarratzen, aipatu eragiketarik ezkontidearen edo hirugarren mailarainoko ahaideen alde egiten direnean.

Lanaren eta higikoren kapitalaz adierazi den legeaz, denboran zehar erregulartasunik gabe eskuratutako etekinak edo bi urtetako epea baino luzeagoan jasotakoak metatzetik etor daitezkeen

progresibitatearen ondorioak saihesteko, etekin garbiak murrizteko sistema ezarri da, % 30 eta % 70 artekoa.

Enpresa- eta lanbide-jardueren etekinen arautegia lehen zegoenaren antzekoa da, berrikuntza azpimarragarriak erantsi badira ere.

Foru Legeak, hasteko, enpresa- eta lanbide-jardueren etekinak definitzen ditu, PFEZean egin ohi den moduan eta ondoren, jarduera horien etekin garbia zehazteko araubideak jorratzen ditu. Berrikuntzarik handiena da zuzeneko zenbatespen araubidean bi mota bereizi direla, arrunta eta erraztua.

Bi-bietan etekin garbia, orokorrean, Sozietateen gaineko Zerga aplikatuz zehazten da, garrantzi gabeko espezialitatearen batean izan ezik.

Lan zerbitzuak emateagatik nahiz ondasunak zein horien gaineko titularitate eskubideak uzteagatik ezkontideari edo adin txikiko seme-alabei ordaindutako zenbatekoak gastu kenkaritzat hartzeko alorrean zenbait neurri eta mugapen ezarri dira, itzurketa saihesteko.

Zuzeneko zenbatespen arrunteko modalitatea arauz ezarriko den eragiketa bolumena gainditzen ez duten jarduerari aplikatuko zaie. Borondatezkoa izanen da eta subjektu pasiboak uko egin diezaioke hura aplikatzeari.

Zenbatespen objetiboa aplikatzeko oinarri orokorrak aipatzean, Foru Legeak egungo arautegian edukia errepikatu baino ez du egiten.

Enpresa- eta lanbide- jardueren etekin garbiari buruz, bi alderdi nabarmendu behar dira.

Lehenik, jarduerari atxikitako elementuetatik ondorioztatutako ondare gehikuntza zein urripenak ez dira zenbatuko aipatu etekinen barrenean, orain egiten den moduan; aitzitik, errenta osagai horri aplikatu ahal zaizkion berariazko arauen arabera gauzatuko da zerga-ordainketa. Beraz, ondare gehikuntzen eta urripenen tratamendua batu egin da, jatorria atxikitako ondasunetan zein ez-atxikitakoetan izan.

Bi urtetako epea baino luzeagoan zein erregulartasunik gabe jasotako etekin garbien % 30eko murriztapena ezarri da, lanaren eta kapitalaren etekinetan bezalaxe.

Ondare gehikuntza eta urripenei dagokienean, araututa zegoenarekin alderatuta, ez dakar berrikuntza azpimarragarririk ez kontzeptuan ez kalkuluan, kasu oso berariazkotean izan ezik.

Ondare gehikuntzen eta urripenen kontzeptua definiturik, ondare aldaketako kasuak aipatzen

dira, bai eta aldaketa suertatzen ez den beste batzuk, egungo arauetan egiten den antzera.

Salbuespenen gaitan, aurreko suposamenduak mantendu dira. Aipagarria da ondarearen gehikuntzari dagokiona, urtean 500.000 pezeta baino gehiagoko eskualdaketak ez direnean.

Esan behar da, zenbait ondare urripen zenbaitzen ez diren kasuak jorrazterakoan, ezagunak direnen ondoan, Foru Legeak iruzurraren aurkako arau bat eransten duela itxurako galerak oztopatzeko: ez da onartuko ondasun eskualdaketa adierazten den minusbaliotasunik, subjektu pasibo berak delako ondasuna berealaxe erosten badu.

Ondare gehikuntzen eta urripenen diru-kopurua zenbatzeari, eskuraketa baloreak zehazteari eta irabazasmoko eragitei dagokienean ez da berrikuntzarik sartu, egun dagoenarekin alderatuta. Dena dela, adierazi behar da Foru Legeak ez dituela eskuraketa baloreak gaurkotzen dagozkien koefizienteak aplikatuz, eta hori bi arrazoiengatik: azken urteetako inflazio murrizta eta ondare gehikuntzen eta urripenen kargari ematen zaion aldeko tratamendua.

Justifikatu gabeko ondare gehikuntzei gagozkiola, horrelakotzat hartutakoak bildu dira eta, berrikuntza gisa, baita PFEZaren edo Ondarearen gaineko Zergaren edozein aitortpenetan ez diren zorrak sartzea, edo horiek liburu zein erregistro ofizialetan jartzea ere.

Azkenik, esan behar da ohiko etxebizitzari eta enpresa- edo lanbide-jarduerei atxikitako ibilgetu material edo inmaterialari dagozkien berrinbertsio-agatik salbuespenak, orain arte bezala, jaso egin direla oraingoan ere.

III. tituluak, zerga-oinarria bi zatitan banatzen du: orokorra bata, berezia bestea.

Subjektu pasiboaren errenta guztiek osatzen dute zati orokorra, urte bat baino epe luzeagoan eskuratutako ondare gehikuntza eta urripenak izan ezik. Ondoko hauek eratuko dute:

a) Etekin eta errenta egozketak, beraien artean eta inolako mugarik gabe elkarrekin integratu eta konpentsatuko direnak.

b) Urte bat baino epe luzeagoan eskuratutako ondare gehikuntza eta urripenak, beraien artean baino integratu eta konpentsatuko ez direnak. Eragiketa horren emaitza negatiboa bada, zenbatekoa hurrengo lau urteetan izaera bereko ondare gehikuntzekin konpentsatuko da.

Alde berezia urte bat baino epe luzeagoan eskuratutako ondare gehikuntza eta urripenak

integratu eta konpentsatetik sortzen den saldo positiboaz osatua dago. Eragiketa horren emaitza negatiboa bada, zenbatekoa hurrengo lau urteetan izaera bereko ondare gehikuntzekin soilik konpentsatuko da.

Zerga gaiaren zati orokorra definiturik, ezarritako murrizpenak aplikatu ondoren ateratzen dena da oinarri likidagarri orokorra.

Murrizpen horiek arrazoi batzuk dituzte:

a) Epe luzeko aurrezkiaren sustapena. Mutua-litateei, pentsio planei eta sistema alternatiboei egindako ekarpenengatik murrizpenak izanen dira, baldintza eta betekizun batzuei jarraituz gero.

b) Famili egoera berezietan sortzen diren zenbait gastu onartuko dira. Horietan sar daitezke ezkontidearen aldeko pentsio konpentsagarriak eta epailearen aginduz urteko mantenuagatik ordaindutakoak.

c) Gastu zenbateko bat edo gutxieneko diru-kopuru bat jarri da pertsonako. Horretarako Foru Legeak eskumeneko errenta edo errenta eskuragarriaren kontzeptua biltzen du, ohiko bizimoduko premiak betetzeko gastua egin eta pertsonari gelditzen zaion errenta kargatzeko.

IV. tituluak Zergaren kuota osoaz dihardu. Oinarri likidagarri orokorrari aplika dakioken tarifa % 15eko gutxieneko tasan hasi eta % 47ko gehiengo tasaraino heltzen da. Beraz, orain indarrean dagoenaren aldean, bost puntu jaitsi da gutxiengo tasan eta sei puntu gehiengokoa.

Berrikuntzen artean bereziki aipatu behar da beren seme-alabei urteko mantenua ordaintzera beharturik daudenen errentaren karga, horrelakotetan, urteko mantenuen zenbatekotik eta oinarri likidagarri orokorraren gainerakotik bereizirik aplikatuko baita tarifa. Ondorioz, delako egoeran dauden subjektu pasiboaren zerga-zama arindu egingen da.

Oinarri likidagarri bereziaren kargari buruz ez da berrikuntzarik sartu lehengo arautegian. Ondoko batez besteko karga tasa hauetan handiena bere buruarekin biderkatu, zati 25 egin eta horren emaitzaren arabera ordaintzen da:

a) Oinarri likidagarri bereziaren % 50ari tarifa aplikatuta ateratzen den emaitza.

b) Oinarri likidagarri orokorrari dagokion kuota osoa zerga-oinarriaz zatitzetik ateratzen den emaitza bider 100 egin.

Kenkarien alorrean Foru Legeak indarrean dagoen eskemari eutsi dio. Bada berririk, hala ere:

a) Kenkariak ondorengo ahaideengatik. Zenbatekoei 7.000 pezeta gehitu zaizkie eta kopuru hauen artean gelditu dira: 37.000 pezeta lehenbizikoari eta 77.000 pezeta bosgarrenari eta ondorengo bakoitzari.

b) Kenkaria ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik. Eremu ekonomiko eta sozialean ohiko etxebizitzaren jabe izateak garrantzi handia du eta, hori dela eta, 1978tik, ondasun iraunkor hori erosteko hobari fiskalak bildu dira Zergari buruzko arautan.

Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kuotako % 15eko kenkaria mantentzen du Foru Legeak. Alabaina, sartu dira zenbait berrikuntza.

Lehenik, ohiko etxebizitzatik ondorioztatuko itxurazko errenta desagertzean, logikoa dirudi, etxebizitza erosteko maileguengatik sortutako finantza gastuak, kontusail kengarri gisa, kentzea, orain arte ez bezala. Halere, direlako gastuak kenkariaren oinarri moduan kontuan hartu behar direla pentsatu da eta horregatik hobari fiskala berdina izanen da zergadun guztientzat. Egun arte ez zen hala gertatzen, aurrezpen fiskala zergadunaren tasa marginalaren arabera baitzen eta horrek errenta altuagoak zituzten erosleen alde jokatzeko baitzuen.

Bigarrenik, kenkariaren erabilerari muga bikoitza ezarri zaio. Oinarriaren zenbatekoa, finantza gastuak barne, ez da izanen 15.000.000 pezeta baino altuagoa subjektu pasibo bakoitzeko. Urteko kenkariaren oinarria, balizko finantza gastuak barne, ez da izanen 15.000.000 pezeta baino altuagoa subjektu pasibo bakoitzeko.

Muga horiek bikoiztu egin dira famili unitateen kasuetan eta 30.000.000 eta 3.000.000 pezetakoak izanen dira.

c) Kenkaria lanagatik. Lanaren etekinen aldeko ohiko diskriminazio positiboa, kuotaren kenkarian gauzatzen zena, azkozaz ere handiagoa da indarrean dagoena baino. 30.000 pezetako zenbatekoaren ordean, Foru Legean 95.000 pezetakoa ezarri da.

d) Zenbait kenkari kendu dira. Oro har, kenkarien alorrean jarraipena badago ere, Foru Legeak batzuren batzuk kendu ditu: eritasun gastuak, gutxieneko pertsonalean sartu baitira eta aseguru primak, izan ere aldeko tratamendua baitute kapitala jasotzean eta hortaz, alferrikako bihurtzen du hobari fiskala ezartzea aipatu primak ordaintzean.

V. tituluak tributu zorraz dihardu eta ondoko hauek biltzen ditu: kuota, errekarguak, berandutza korrituak eta zehapenak. Irabazpidezko ondasunak ezkontideetako batek egindako zorren erantzule zuzenekoak izanen dira Ogasun Publikoaren aurrean.

VI. tituluak famili kideek aitorpena elkarrekin egitea jorratzen du.

Famili unitatearen definizioak bi mota bereizten ditu: ezkontzazkoa eta ezkontza-loturarik gabea.

Lehenbizikoa ondoko hauek osatzen dute: bereizi gabeko ezkontideak, adin txikiko seme-alabak, eta orain gaineratzen dira judizialki ezgaitatako adin nagusiko seme-alabak, luzatu edo birgaitutako guraso-ahalgopean daudenak.

Bigarrenak biltzen ditu legezko bereizketa edo ezkontza-loturarik ez izatea. Horrelakoetan famili unitatea aitak edo amak eta batarekin nahiz bestearekin bizi diren seme-alabek osatzen dute.

Baterako zerga-ordainketa erabiltzeak kide guztien arteko ahobatekotasuna eskatzen du. Aukera hori ezin izanen da aldatu Zerga aurkezteko epea bukatu baldin bada.

Baterako zerga-ordainketaren elementuei dagokienez, orain arteko araubideak jarraituko du.

Famili unitateko kide bakoitzaren errentak bakarka zenbatzen dira, nahiz eta kideen arteko interkomunikazioa onartzen den ondare urripenak eta oinarri likidagarri negatiboak ateratzen badira. Horiek famili unitateko beste kideek eskuratutako errentekin konpentsatuko dira.

Zergaren karga bakarka harturik eginen da eta Zergaren subjektu pasiboak zenbat diren, hainbat kuota oso partzial lortzen dira. Horrela, haiek batuz, famili unitatearen kuota osoa ateratzen da.

Titulu honetan arautzen den azken xehetasuna baterako zerga-ordainketaren erregela bereziei dagokie. Bertan idatzitakoari jarraituz, lehenik, zenbait kenkari aplikatzeko mugak (ohiko etxebizitzako inbertsioagatik, etxebizitza alokatzeagatik, seme-alabak zaintzeagatik) bikoiztuko dira. Bigarrenik, ezkontzako famili unitateen kasuan, ezkontide batek gutxieneko pertsonalagatik kenkaria aplikatu ez badu, beste ezkontidearen gutxieneko pertsonalari gehitu ahalko zaio.

VII. tituluak zergaldia eta sortzapena arautzen ditu.

Zergaldia, oro har, urte naturala izanen da eta Zerga urteroko abenduaren 31n sortuko. Subjektu pasiboa abenduaren 31 ez den beste edozein

egunetan hiltzen bada, Zerga egun horretan sortuko da aipatu subjektu pasiboarentzat. Famili unitate batekoa bada, baterako zerga-ordainketa egin ahalko da, orain bezalaxe. Kasu horretan, egozteko dauden errentak azken zergaldiaren zerga-oinarrian sartuko dira eta hildakoaren oinordekoek aipatu errentei dagokien zorraren zatia zatitzeko eskatu ahalko dute.

Dirusarreraren eta gastuen egozketaren alorrean Foru Legeak ezartzen du sortzapenaren arabera gauzatu beharko dela, dirusarreraren eta gastuen galdagarritasun irizpide gisa ulerturik.

Irizpide orokor honen ondoan Foru Legeak ezartzen ditu enpresa- eta lanbide jardueren etekinei aplikagarri zaizkien suposamendu partikularrak, Sozietateen gaineko Zergaren irizpideak, hain zuzen; ondare gehikuntza eta urripenei, aldaketa gertatzen den zergaldia; epekako eragiketei, kobrantzen galdagarritasuna; langileari egotzi ezin zaizkion lanaren etekinei, kobrantzaren unea; balioetsitako errentei, sortu direla uste denean; dibisetan egindako eragiketei, kobrantzaren edo ordainketaren unea; subjektu pasiboaren egoitza aldatetari, Zerga aitortu beharreko azken zergaldia.

VIII. tituluak Zergaren kudeaketa jorratzen du eta aurreko legediaren antzera arautzen ondoko hauek: Zerga ordainarazteko eskumena, atxikipe-nak eta konturako beste ordainketak, prozeduraren hasiera, frogantza eta ikerkuntza, Zergaren likidazioa, bilketa eta betebeharrak formalak.

IX. tituluak Zergaren preskripzioari dagokio. Orain arte epea bost urtekoa bazen ere, hemendik aurrera lau urtekoa izanen da, bai epea zenbatzeko, baita etendura kasuetarako ere. Preskripzioa Administrazioaren arioz aplikatuko da, agerian denez.

Errekurtso gaietan Foru Legearen X. tituluak biltzen du errekurtsoei buruz araututakoa 1981eko maiatzaren 19ko Foru Parlamentuaren Erabakian eta hori garatzen duen 1981eko ekainaren 19ko Foru Diputazioaren Erabakian.

I. TITULUA

Zergaren araubide juridiko, izaera, xede eta aplikazio eremua

1. artikulua. Araubide juridikoa.

Foru Komunitateak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga galdatuko du, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikulua aipatu Hitzarmen Ekonomikoaren arauari, Foru Lege honek xedatutakoari, hura garatzeko

luzatuko diren erregelamendu-arauei eta hura aplikatzeko emanen diren gainontzeko xedapenei lotuz.

2. artikulua. Zergaren izaera.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga pertsona fisikoen errenta zergapetzen duen tributu da, zuzenekoa, norberarena eta subjektiboa dena, Foru Lege honetan aurreikusitakoari jarraituz.

3. artikulua. Xedea.

Zerga honen xedea da pertsona fisikoen errenta, Foru Lege honetan ezarritakoari jarraituz zehaztua, edozein dela aipatu errentaren sorlekua edo ordaintzailearen egoitza.

4. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru Lege honetan arautzen den Zerga ohiko egoitza Nafarroan duten subjektu pasiboari aplikatuko zaie, Hitzarmen Ekonomikoaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Famili unitate bateko kide guztiek ohiko egoitza Nafarroan izan gabe baterako zerga-ordainketa aukeratu dutenean, Zerga aplikatuko zaie baldin unitatekoen artean oinarri likidagarri handieneko kideak Foru Komunitatean egoitza badu.

II. TITULUA

Zergagaiaren esparru material eta pertsonala

I. KAPITULUA Esparru materiala

5. artikulua. Zergagaia.

1. Zergagaitzat joko da subjektu pasiboak lortzen duen errenta.

Errenta erdietsizat emanen da haren jatorri edo iturburuaren arabera, kasuan kasu, senar-emazteen araubide ekonomikoa edozein izanik ere.

2. Subjektu pasiboaren errentatzat hartuko dira:

- a) Lanaren etekinak.
- b) Kapitalaren etekinak.
- c) Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.
- d) Ondarearen irabazi eta galerak.
- e) Errenten esleipen eta egozketak.

6. artikulua. Zergari lotu gabeko errentak.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotuta dagoen errenta ez zaio Zerga honi lotuko.

7. artikulua. Errenta salbuetsiak.

Errenta hauek salbuetsirik egonen dira:

a) Erabateko ezintasun iraunkorragatik edo elbarritasun nabarmenagatik Gizarte Segurantzak edo haren ordezeko erakundeek subjektu pasiboari aitorturiko prestazioak.

Gizarte Segurantzako Erakunde kudeatzaile eskudunak onetsitako langabezi prestazioak, ekainaren 19ko 1.044/1985 Errege Dekretuaz ezarritako ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen direnean, baldin eta jasotako zenbatekoak aipatu arauan ezarritako helburuetara bideratzen badira eta bertan aipatzen diren kasuetan emandakoak badira.

Aurreko idazatian aipatu den salbuespena akzioa edo partaidetza, edo, hala dagokionean, langile autonomo gisa duen jarduera bost urteko epean mantentzera baldintzatuko da.

b) Administrazio Publikoek aitortutako ezintasun edo ezgaitasun pentsioak, baldin eta elbarritasun fisiko edo psikikoaren graduak edozein lanpostutan aritzeko erabateko ezintasun iraunkorra edo elbarritasun nabarmena sortu badu.

c) Langilea kaleratu edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatutuan, hori garatzen duten arauetan, nahiz, hala badagokio, epaiak betearazteko arautegi araupetzaileen derrigorrezko izaeraz ezarritako kopuruetan; hitzarmen, itun edo kontratuaren indarrez finkatutakoa ezin izanen da, ordea, derrigorrezko izaeraz ezarritako kalte-ordaintzat hartu.

Aurreko idazatian jasotakoa gorabehera, kaleratzea edo lan uztea enplegua murrizteko espedienteen ondorioz gertatzen denean, eta horiek Langileen Estatutuaren 51. artikulua arabera tramitaturik, agintari eskudunak behin onetsi dituenean, aipatu Estatutuan bidegabeko kaleratzeagatik derrigorrezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia salbuetsiko da Zergatik.

Letra honetan aipatutako kalte-ordain salbuespena 20.000.000 pezetakoa izanen da gehienez.

Salbuespena ez da aplikatuko enpresa berak edo hari loturiko beste batek langilea berriz ere kontratatzen duenean, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

d) Indarkeria ekintzengatik jasotzen diren ez ohiko prestazio publikoak.

e) Pertsonen eginiko kalte fisiko edo psikikoaren ondoriozko erantzun zibilarren kalte-ordainak, legalki edo juridikoki onetsi den zenbatekoan.

f) Estatuko Loteria eta Apustueterako Erakunde Nazionalaren loteria, joku eta apustueta irabazitako sariak, hala nola Foru Komunitateak eta Autonomia Erkidegoek antolatutako, Gurutze Gorriak antolatzen dituenak eta Itsuen Erakundearen zozketetako sariak.

g) Literatura, arte eta zientzietako sari garrantzitsuak, erregelamendu bidez ezarriko baldintzetan.

h) Hezkuntza sistemako maila eta gradu guztietan ikasketak burutzeko jasotako beka publikoak, doktoretza eta ikertzaileak prestatzekoak barne, Entitate Publikoek, onura publikoko deklaratuak Elkarteek eta uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legea aplikagarri duten Fundazioek emanak, baldin eta aurrean aditzera emandako betebeharez gain lehiatasun eta bateratasun beharrezkoak betetzen badituzte eta hezkuntza eta ikerketa jarduera berei badagokizkie.

i) Gurasoengandik jasotako mantenurako urtekoak, epaileen erabakiaren arabera.

j) Erakunde publikoek emandako zenbatekoak, 65 urtetik gorakoak edo ezintasunak dituztenak etxean hartzeagatik.

k) Kargupeko seme-alabarengatik jasotako prestazioak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bateratuko II. tituluko IX. kapituluaren araututakoak (ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako testu bateratu hori).

l) Goi-mailako kirolariei ematen zazkien diru-laguntzak, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak edo Kirolen Kontseilu Nagusiak Espainiako Kirol Federazioekin edo Espainiako Batzorde Olinpikoarekin batera ezarritako prestakuntza programetara egokitutakoak direnean, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

m) Nazioarteko bakearen edo gizakiaren aldeko eginkizunetan parte hartzeagatik Espainiako estatuak emandako aparteko diru-laguntzak, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

n) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lanaren etekinak, erregelamendu bidez ezarritako zenbateko eta baldintzetan, baldin eta Zerga honen antzeko edo berdineko izaera duen zerga bat dela eta, atzerrian ordaindu badu zerga.

ñ) 1936–1939 bitarteko gerra zibilarren ondorioz zauriak edo mutilazioak jasan zituzten pertsonen alde onartutako pentsioak, dela Estatuko Klase Pasiboen araubidearen bitartez, dela horretarako egindako legeria bereziaren babesean.

o) Giza immunoeskasiaren birusak jota egote-agatik jasotzen diren edozein motatako laguntzak, maiatzaren 28ko 9/1993 Legegintzazko Errege Dekretuan araututakoak.

8. artikulua. Errenten zenbatespena.

1. Lan edo kapital etekinak sor ditzaketen ondasun, eskubide edo zerbitzuen prestazioak, merkatuan duten balioarekin ordainduzat hartuko dira, besterik egiaztatzen ez bada.

Merkatuko ohiko balioztat hartuko da prestazio horietarako subjektu independenteez elkarren artean onartuko luketen kontraprestazioa.

2. Hala ere, maileguak direnean eta, orokorki, kapital berekiak hirugarrenei lagatzen zaizkienean, kontraprestazioa zergaldiaren azken egunean indarra duen diruaren legezko korritu-tasa aplikatu ondoren aterako da.

9. artikulua. Eragiketa lotetsiak

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28. artikulua-
ren arabera lotetsizat hartutako eragiketen balo-
razioa, aipatu artikulua horretan aurreikusitakoari
jarraituz eginen da.

II. KAPITULUA **Esparru pertsonala**

10. artikulua. Subjektu pasiboak.

Zergako subjektu pasiboak dira, aurreko 4. artikuluan ezarritakoaren arabera zergak Foru Komunitatean ordaindu behar dituzten pertsona fisikoak.

11. artikulua. Errentak esleitzea.

Nortasun juridikodun edo gabeko sozietate zibilei, jaraunspen banatugabeei, ondasun erkidegoei eta nortasun juridikorik izan gabe, unitate ekonomiko edo ondare bereizi ezargarri bat osatzen duten gainerako erakundeei dagozkien errentak, bazkide, oinordeko, erkide eta partaideei esleituko zaizkie hurrenez hurren.

Esleitze hori, kasu bakoitzean aplikagarri diren arau edo itunen arabera aginen da, eta horiek Zerga Administrazioari sinesgarriro agertuko ez balitzaizkio, zati berdinetan esleituko dira.

Aurreko idazatian xedatutakoa galerazi gabe, aipatu ente horiek enpresa- edo lanbide-jarduerak burutzen badituzte, jarduera horiei atxikitako ekoizpen eta giza baliabideen norberaren konturako antolaketa ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean burutzen dituztenei esleituko zaizkie errenta horiek.

Era berean, aipatu enteei dagozkien kontura egindako atxikipenak eta sarrerak, hala nola kenkariak esleituko zaizkie.

2. Esleitutako errentek, bazkide, oinordeko, erkide eta partaide bakoitzarentzat, sortu diren jarduera edo iturburuak emandako izaera izanen dute.

3. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Zerga horretako subjektu pasiboak izan eta aurreko 1. zenbakian aipatutako entitateei ez zaie errentak esleitzeko araubidea aplikatuko.

4. Errentak esleitzeko araubidea duten entitateek ez dute Sozietateen gaineko Zergarik ordainduko.

III. TITULUA **Errentaren zehaztepena**

I. KAPITULUA **Zerga-oinarria**

12. artikulua. Zerga-oinarria. Arau orokorra.

1. Zergaldiko errentaren zenbatekoak osatuko du zerga-oinarria, Foru Lege honetan xedatutakoari jarraituz.

2. Zerga-oinarria, hala behar baldin bada, bi zatitan bana daiteke, bata orokorra eta bestea berezia, 53 eta 54. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

3. Errentaren osagarri desberdinen zenbatekoa, izaera orokorrean, zuzenean zenbatespeneko araubidearen bidez eginen da.

4. Zeharkako zenbatespeneko araubidea hori erregulatzen duten arauak jarraituz aplikatuko da.

II. KAPITULUA **Errenta zergagarriaren definizioa**

1. sekzioa **Lanaren etekinak**

13. artikulua. Lanaren etekin osoak.

Lan etekintzat joko dira kontraprestazio eta onura guztiak, edozein delarik ere beren izendapena edo izaera eta dirutan zein gauzatan izan, betiere inoren kontura subjektu pasiboak egindako norberaren lanetik edo lan edo estatutu harremanetik zuzenean edo zeharka eratorritakoak badira eta jarduera ekonomikoen etekin izaerarik ez badute.

14. artikulua. Kontraprestazioak edo onurak

1. Bereziki, lan etekin hauek hartuko dira kontuan:

a) Soldatak eta horien osagarriak, jornalak eta lansariak, haborokinak, pizgarriak, plusak eta ohiz kanpoko pagak, mozkin, salmenta edo dirusarretako partaidetzak eta famili laguntza edo sorospenak.

b) Izaera bereziko lan harremanek sortutako ordainketak.

c) Ordezkaritza gastuengatiko ordainketak.

d) Bidaia gastuetarako dieta eta esleipenak, salbu eta lokomozioagatik eta ostalaritza establezimenduetan mantenua hartu eta egoteagatik ohikoak direnak, betiere, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintza eta mugak iragan gabe.

e) Pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzioak, hala nola pentsioak direla-eta, enpresarioak dituzten konpromisoei aurre egiteko ordaindutakoak, maiatzaren 12ko 3/1998 Foru Legearen 77. artikuluan aurreikusitako moduan, zenbateko horiek prestazioak lotesten zaizkien pertsonen ahal zaizkienean. Zerga egozketak horrek betebeharrak izan behar du bizi aseguru-eraketako primei dagokienez, prima horiek, berreskuratzeko eskubidea ematearen bidez edo beste edozein formularen bidez, aukera ematen badute prestaziora lotutako pertsonen alde aurretik eskura izateko. Aldez aurretik eskura izateko bidea ematen duten kasu hauen barrenean ez dira sartuko eritasun larriaren edo iraupen luze-ko langabezi egoeren kasuetarako berreskuratzeko eskubidea barne hartzen duten aseguruak, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

f) Langabezi prestazioak.

2. Betiere, lan etekintzat joko dira:

a) Ondoko prestazioak:

1go. Gizarte Segurantza eta Klase Pasiboetako araubide publikoetatik jasotako pentsio eta hartzeko pasiboak, eta ezgaitasun, jubilazio, istripu, gaixotasun, alarguntsa, umezurztasun edo antzekoengatik erakunde publikoek ematen dituzten gainontzeko prestazioak.

Aurreko idazatian xedatutakoa xedatuta ere, enpresa- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenek jarduera horretan laneko ezintasun iragankorreko kontzeptupean jasotzen dituzten prestazioak, jarduera horien etekintzat joko dira.

2gn. Funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorretatik, umezurztzen ikastetxeetatik eta

antzeko beste erakundeetatik onuradun gisa jasotzen diren prestazioak.

3gn. Pentsio planen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak.

4gn. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzartutako aseguru kontratuen onuradunek jasotako prestazioak, horiek egindako ekarpenak Zerga honen zerga-oinarrian murriztu baldin badira hein baten behintzat. Prestazio horiek zerga-oinarrian sartuko dira, hartutako zenbatekoak gainditzen baldin baditu Zergako zerga-oinarrian murriztu edo minoratu ezin izan diren ekarpenak, Foru Lege honen 55.1 artikuluko 2, 3 eta 4. idaztatian aurreikusitako baldintzak betetzen ez dituztelako.

5gn. Pentsioak direla-eta, enpresek hartutako konpromisoak gauzatzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuen onuradunek hartutako prestazioak, maiatzaren 12ko 3/1998 Foru Legearen 77. artikuluan aurreikusi bezala.

b) Nafarroako Parlamentuko, Europako Parlamentuko, Gorte Nagusietako, Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretako eta Toki Korporazioetako kideei duten karguagatik ordaintzen zaizkien zenbatekoak, aipatu Instituzioek bidai gastuetarako horietatik erabiltzen dituzten zenbatekoak kendurik.

c) Administrazio kontseiluetako eta horren ordezkari batzordeetako administratzaile eta kideen ordainketak, hala nola beste ordezkari organo-eta kideek egiten dituztenak.

d) Ezkontidearen aldeko osabidezko pentsioak eta mantenturako urtekoak.

e) Sozietate bateko fundatzaile edo sustatzaileek berendako gordetzen dituzten eskubide bereziak, dirutan, norberaren zerbitzuak ordaintzeko balio dutenean.

f) Bekak, 13. artikuluan deskribatu diren erlazioetako erabiltzen dituzten datozenean.

g) Irabazi asmorik gabeko erakundeek sustatutako jarduera humanitarioetan edo asistentzia sozialekoetan laguntzeagatik jasotako ordainsariak.

15. artikulua. Ez-diruzko edo ondasunezko ordainsariak.

Ez-diruzko edo ondasunezko ordainsaritzat hartuko dira, norberaren helburuetako, dohain edo merkatuko prezioa baino txikiagoan erdietsi diren ondasun, eskubide edo zerbitzuak erabili, kontsumatu edo lortzea, nahiz eta emaileari zinezko gas-turik sortu ez dion.

Besteren artean, hona hemen ez-diruzkoak edo ondasunezkoak diren ordainsariak:

- a) Etxebizitza erabiltzea.
- b) Ibilgailuak erabili edo beste baten esku uztea.
- c) Diruaren legezko korritu-tasa baino txikiagoarekin egindako maileguak.
- d) Mantenu, ostatze, turismo bidaia edo antze-koengatik izandako prestazioak.
- e) Aseguru-kontratu edo antze-koengatik enpresak ordaindutako prima edo kuotak, lan istripuko aseguru, erantzukizun zibileko edo langilearen eritasune-koengatik ordaindutakoa izan ezik, erregelamendu bidez ezarritako baldintza eta mugekin.
- f) Pentsio Planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak eta, maiatzaren 12ko 3/1998 Foru Legearen 77. artikuluan ezarritakoari jarraituz, pentsioei buruzko konpromisoei aurre egiteko, enpresariak ordaindutakoak, zenbateko horiek prestazioak lotesten zaizkien pertsonen egozten ahal zaizkienean.
- g) Subjektu pasiboaren edo, honi, laugarren gradura arteko, hori barne, ahaidetasunagatik lotutako beste pertsonen ikasketa eta mantenu gastuak ordaintzeko zenbatekoak.

Langilegoaren gaurkotze, gaitze edo birziklatzeari buruzko ikasketak, lanpostuen ezaugarriak edo lanak hala galdatzen dituztenean, ez dira kontuan hartuko.

Ondorengoak ez dira ondasunezko ordainsaritzat hartuko:

1. Enpresako kantina edo jantokietan nahiz izaera sozietate ekonomatoetan prezio behertuan langileei emandako produktuak. Enpresako jantokietan prezio behertuan emandako produktutzat joko dira, zerbitzuaren prestaziorako zeharkako formulak, horien zenbatekoak erregelamendu bidez ezarritako zenbatekorik gainditzen ez badute.

2. Langileen gizarte eta kultura zerbitzuetarako ondasunak erabiltzea.

3. Aktiboan dauden langileei enpresaren beraren edo, Merkataritza Kodearen 42. artikulua ildotik, sozietate taldeko beste enpresa batzuen akzioak edo partaidetzak ematea dohain edo merkaturako prezio normalean baino baxuagoan, langile bakoitzari egindako emakida guztien artean urtean 500.000 pezetako zatiari dagokionez edo 1.000.000 pezetako zatiari dagokionez emakidak

azken bost urteetan egin direnean, betiere ondoko baldintza hauek betetzen badira:

1go. Eskaintza baldintza berdinekin egitea enpresako langile guztiei.

2gn. Langile horiek, haien ezkontide edo bigarren gradura arteko ahaideek enpresan duten baterako partaidetza 100eko 5 baino handiagoa ez izatea. Partaidetza horiek erosteagatik, portzentaia hori gainditzen baldin bada, 100eko 5a osatu arte emandako partaidetzak salbuetsiko dira bakarrik.

3gn. Baloreak gutxienez hiru urtez matentzea.

Aurreko idazatian aipatutako epe hori betetzen ez bada, aitorten-likidazio osagarri bat aurkeztu behar da, dagokien berandutza-korrituekin; hori aurkezteko lehenbiziko eguna epea gainditu den eguna da eta azkena, Zerga horren lehenbiziko aitortena aurkezteko epea bukatzen den eguna.

Akzioak edo partaidetzak transmititzetik heldu diren ondare handitze eta murrizketak zehazteko, kontuan hartuko da, erosketa balioa kalkulatzeko, ez-diruzko ordainsaritzat hartu ez den kopurua.

16. artikulua. Ez-diruzko edo ondasunezkoak diren lan-ordainsarien balorazioa.

1. Aurreko artikulua aipatzen dituen prestazioak honela baloratuko dira:

1go. a) letrakoak:

Subjektu pasiboaren esku jarritako errentapeko etxebizitza bada, ordaindutako alokeraz.

Gainontzekoetan, Hirilur Kontribuzioaren edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eragineta-rako aipatu etxebizitzak duen katastro-balioari ehuneko 2 aplikatu ondoren ateratako zenbatekoaz. Etxebizitzak katastro-baliorik ez badu, aurreko portzentaia erostean ordaindutakoari aplikatuko zaio.

Bietan, balorazioa, gehienez ere, subjektu pasiboak duen kargu edo lanpostuagatik jasotzen dituen gainontzeko lan kontraprestazioen ehuneko 10ekoa izanen da.

2gn. b) letrakoak:

Ibilgailu bat beste baten esku uzten bada, erabiltzaileak erosi duenean ordaindu duena, eragiketa hori zergapetzen duten tributuoak barne.

Ibilgailua erabiltzen bada, aurreko lerroaldeak aipatzen duen kostuaren urteko ehuneko 20, ibilgailu bera izan eta erabiltzailearena bada, gehienez ere bost urteko epean.

Ibilgailua erabiltzailearena ez bada, enpresak erabiltzeko ordaindu duen zenbatekoarena.

Erabili eta ondoren beste baten esku uzten bada, azken hau baloratuko da zenbaki honetako 6. idazatian xedatutakoari jarraituz.

3gn. c) letrakoak, sortutako zenbatekoaren eta zergaldiaren azken egunean indarra izanen duen diruaren legezko korritua aplikatu ondorengo zenbatekoaren arteko aldea.

4gn. d), e) eta g) letretakoak, erabiltzaileak ordaindutakoaz, eragiketa zergapetzen duten tributuak barne.

5gn. f) letrakoak, haren zenbatekoaz.

6gn. Gainontzeko kasuetan, merkatuan duen ohizko balioaz.

2. Ondasunezko ordainsarien gainean ezar daitekeen konturako dirusarrerarik badago, aurreko zenbakiak aipatzen dituen balioen gainean kalkulatu da, Foru Lege honen 81. artikuluan aurrikusitakoari jarraituz.

3. Ondasunezko ordainsariak daudenean lan etenkitzat hartuko dira artikuluko honen 1. zenbakiko arauetatik ateratako balorazioa eta, behar bada, ordainsari mota honi dagokion konturako dirusarrerara, haren kopurua errenta hartzailearengan jasanarazi denean salbu.

17. artikulua. Lanaren etekin garbia.

1. Etekin osoari ondoko artikuluan aipatutako gastu kengarrien zenbatekoak kenduz kalkulatu da lanaren etekin garbia.

2. Etekin osoak osorik konputatuko dira, ondoko murrizketa hauetako bat aplikatzen zaienean salbu:

a) 100eko 30, bi urte baino gehiagotan sortu eta aldiro-aldiro eskuratzen ez diren etekinen kasuan; baita ere, erregelamendu bidez denboran era irregularrez lortutakotzat hartzen direnen kasuan. Etekin horiek zatika kobratzen baldin badira, sortzeko epea kalkulatzeko, kontuan hartuko da zenbat urtetan zatitu diren, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

b) 100eko 40, Foru Lege honen 14.2.a) artikuluan aurrikusitako prestazioak izanik, kapital moduan hartzen badira, baldin eta bi urte iragan baldin badira lehenbiziko ekarpenetik.

c) 100eko 50, ezintasunagatiko prestazioek sorturiko etekinen kasuan, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintza eta graduetan, kapital moduan hartuak, Foru Lege honen 14.2.a) artikuluan aipatutako kasuetan.

Zenbaki honetan aurrikusitako murrizketak ez zaizkie Foru Lege honen 14.2.a) artikuluan aipatutako prestazioei aplikatuko, errenta moduan kobratzen direnean, ezta zerga-oinarria txikiagotzen duten enpresa kontribuzio egotzietan, Foru Lege honen 55.1 artikuluan ezarri bezala.

18. artikulua. Gastu kengarriak.

Gastu kengarritzat ondoko hauek hartuko dira soil-soilik:

a) Gizarte Segurantzari eta funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorreari egindako kotizazioak, eskubide pasiboan murrizketak eta umezurtzen ikastetxe edo antzeko erakundeei egindako kotizazioak.

b) Subjektu pasiboak Lanbide Elkargoei ordaindutakoa, erakunde horien funtsezko xedeei dagokien partean etekinak sortzen diren jardueran aritu ahal izateko horietako kidea izatea nahitaezkoa denean eta erregelamendu bidez ezarriko den mugarekin.

c) Langileen sindikatuei ordaindutako kuotak.

19. artikulua. Lanaren etekinen banan banakotasuna

Lan etekinak horiek jasotzeko eskubidea duenari esleituko zaio soilik. Hala ere, Foru Lege honen 14.2.a) artikuluan aipatutako prestazioak horiek jasotzeko baimena duten pertsona fisikoei esleituko zaizkie.

2. sekzioa Kapitalaren etekinak

1. azpisekzioa Arau orokorrak

20. artikulua. Kapitalaren etekin osoak.

1. Kapitalaren etekin osotzat hartuko dira zuzenean edo zeharka ondare elementu, ondasun edo eskubideetatik datozen onura edo kontraprestazio guztiak, duten izendapena edo izaera dute-larik, eta dirua edo gauzak izan, baldin eta elementu, ondasun edo eskubide horien titularra subjektu pasiboa bada, eta subjektu pasiboak berak buruturiko enpresa- edo lanbide-jarduerari atxikirik ez badaude.

2. Hala eta guztiz ere, ondarezko elementuen titularitatea transmititzetik ondorioztatzen diren errentek, jabariaren erreserbarako ituna egon arren, ondarezko irabazi edo galera balira bezala ordainduko dute Zerga, Foru Lege honek kapitalaren etekintzat kalifikatzen dituztenean izan ezik.

3. Edonola ere, kapitalaren etekinen artean sartuko dira hurrengoak:

a) Ondasun higiezin landatar nahiz hiritarretatik datozenak, subjektu pasiboak burututako enpresa- edo lanbide-jarduerei atxikirik ez badaude.

b) Higikorren kapitaletik eta, oro har, subjektu pasiboaren titularitatekoak diren bestelako ondasun edo eskubideetatik datozenak, subjektu pasiboak berak burututako enpresa- edo lanbide-jarduerei atxikirik ez badaude.

21. artikulua. Ez-diruzkoak edo ondasunezkoak ez diren ordainsarien balorazioa.

1. Zuzenean edo zeharka jasotako ondasun edo zerbitzuek merkatuan duten prezioaren arabera baloratuko dira ez-diruzko edo ondasunezkoak ez diren ordainsariak.

Aipatu merkatu-prezio hori zehazteko aplikagarri diren irizpideak erregelamendu bidez ezar daitezke.

2. Foru Lege honen 81. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ez-diruzkoak edo ondasunezkoak ez diren ordainsarien gainean ezar daitekeen konturako sarrera, aurreko zenbakian aipatu balioaren gainean kalkulatu da.

3. Ondasun bidezko ordainsarrietan, artikuluko honetako 1. zenbakian xedatutakoaren ondorioz ateratako balorazioa eta, kasuan kasu, 2. zenbakiak aipatu konturako sarrera kapital etekintzat hartuko dira, haren kopurua errenta hartzailearengan jasanarazi denean salbu.

22. artikulua. Kapitalaren etekin garbia.

Etekin osoei gastu kengarriak gutxitu ondoren aterako da kapitalaren etekin garbia.

23. artikulua. Kapitalaren etekinen banan banakotasuna.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 13/1992 Foru Legearen 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kapitalaren etekinak subjektu pasiboak esleituko zaizkie, aipatu etekin horiek sortu dituzten ondare elementu, ondasun edo eskubideen titularrak direnean.

2. azpisekzioa Higiezinaren kapitalaren etekinak

24. artikulua. Higiezinaren kapitalaren etekin osoak

Ondasun higiezin hiritar nahiz landatarrak lagatzetik edota berauen eskubide errealetatik datozen etekin osotzat hartuko dira ondasun

horiek errentan ematetik, edota erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak lagatzetik ondorioztatzen diren guztiak, duten izen edo izaera dutelarik ere.

Etekin osotzat zenbatuko da kontzeptu guztietan errentari edo azpierreterentariengandik, edota erabiltzeko edo gozatzeko eskubideen lagapen hartzaile edo onuradunarengandik jasotako kopurua, higiezinarekin batera lagatutako ondasun guztiei dagokiena barne, eta kanpoan utziz Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

25. artikulua. Higiezinaren kapitalaren etekin garbia.

1. Etekin osoei ondoko gastu hauen zenbatekoa gutxitu ondoren aterako da kapitalaren etekin garbia.

a) Horiek erdiesteko egindako gastuak. Aipatu ondasun edo eskubideak erosi edo hobetzen inbertitutako besteren kapitalen korrituen zenbatekoa eta horiek finantzatzeko izandako gastuak ez dira, ondasun edo eskubide bakoitzean, ondasun higiezin edo eskubidea lagatzeagatik lortu etekin osoak baino handiagoak izanen.

b) Etekinak sortu dituzten ondasunak erabiltzeagatik edo denboraren poderioz jasandako galeraren zenbatekoa, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmen baten titulartasunetik heldu diren etekinen kasuan, kengarria izanen da, balio-galeraren kontzeptuarengatik eta etekin osoen mugaren barrenean, ordaindutako balioaren zati proportzionala, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

2. Etekin garbi positiboak, erregelamendu bidez denboran modu erabat irregularrean lortutakotzat jotzen direnean, edo haien sortzapen aldia bi urtekoa baino luzeagoa izan baldin bada, 100eko 30 kenduko zaie. Sortzapen epealdia kalkulatzeko, etekin hauek zatika kobratzen direnean, kontuan izan behar da zatiketaren urte kopurua; hain zuzen ere, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

26. artikulua. Ahaidetasunik dagoenean izandako etekina.

Higiezinak errentan edo azpi-errentan eman edo hauek erabili edo gozatzeko eskubidea ezkontideari edo hirugarren gradura arteko ahaidetari, ezkontza bidezko barne, utzi baldin bazaie, etekin garbia ez da Lur Kontribuzioaren edo Ondasun Higiekoren gaineko Zergaren eraginetarako higiezinak duen balio katastralaren ehuneko biko baino txikiagoa izango; higiezinak balio

katastralik ez badu, etekin osoa ez da erosketa balioa baino txikiagoa izango.

Aurreko idazatian aipatutako pertsonen aldeko gozamen eskubidea eratzen denean, etekin garbia ez da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren eraginetarako higiezinak duen balioa baino txikiagoa izanen eta, hala behar izanez gero, aurreko artikulua 2. zenbakian aurreikusitako murrizketa aplikatuko zaio etekin horri.

3. azpisekzioa Higikoren kapitalaren etekinak

27. artikulua. Higikoren kapitalaren etekin osoak.

Higikoren kapitalaren etekin osotzat ondorengo hauek hartuko dira:

a) Edozein entitatetako fondo berekien partaidetzagatik lortutakoak.

b) Kapital berekiak hirugarrenei lagatzeagatik lortutakoak.

c) Subjektu pasiboarenak diren gainontzeko ondasun higikor edo eskubideetatik ateratakoak.

28. artikulua. Edozein entitatetako fondo berekietan parte hartzeagatik lortutako etekinak.

1. Edozein entitatetako fondo berekietan parte hartzeagatik lortutako etekin osotzat hartuko dira ondoko hauek:

a) Edozein entitatetako dibidendu, batzarreeta-
ra joateagatik primak eta mozkinen partaidetzak.

b) Aktibo mota orotatik ateratako etekinak, akzio liberatuen ematea izan ezik, zeinek, estatutuaren bidez edo organo sozialen erabakiz, entitate bateko mozkin, salmenta, eragiketa, sarrera edo antzeko kontzeptuetan parte hartzeko ahalmena ematen duten, norberaren lanaren soldata ez denean kausa.

c) Bazkide, akziodun edo elkarkide denean, entitate batetik jasotako edozein onura, aurrekoak ez bezalakoa.

2. Zerga-oinarrian sartzeko, aurreko letretan aipatutako etekinak, egoitza Espainian duten entitateetakoak badira, ondoko koefiziente hauekin biderkatuko dira:

a) 1,40, izaera orokorrez.

b) 1,25, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.2 artikuluan aipatutako entitateetatik heldu direnean.

c) 1,20, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50. artikulua 3. zenbakiko a) letran aipatutako Lan Sozietateetatik heldu direnean.

d) 1,00, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.5 eta 50.6 artikuluan aipatutako entitateetatik heldu direnean; ekainaren 21eko 5/1994 Foru Legean araututako Kooperatiba babestuetatik eta bereziki babestuetatik heldu direnean, jaulkipen primaren banaketatik eta Foru Lege honen 30. artikulua 1. zenbakiko c) eta 2. zenbakiko f) letretan azaldutako eragiketetatik heldu direnean.

Halaber, azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legearen 19. artikuluan, edo ekainaren 24ko 5/1993 Bizkaiko Foru Arauetan, ekainaren 26ko 11/1993 Gipuzkoakoetan edo uztailaren 5eko 18/1993 Arabakoetan aurreikusitakoari jarraituz, hobaria emandako edo salbuetsiriko etekinei dagozkien onuren dibidendo edo partaidetzei ere, koefiziente hori aplikatuko zaie; baita lehenbiziko bi ezarpen aldiei dagozkien etekinetatik heldu diren dibidendoei ere, alegia, 3/1996 Bizkaiko Foru Arauetan, 7/1996 Gipuzkoakoetan eta 24/1996 Arabakoetan ezarritako murrizketak aplikagarriak dituzten horiei. Horretarako, erreserba banaketaren kasuan, erreserba horiei ordaindutako lehenbiziko kopuruak aplikatuz hartuko dira.

Etekinak ordaindu aurreko bi hilabeteetan erositako balore edo partaidetzei dagozkien etekinei ere, portzentaia hori aplikatuko zaie, egun horren ondoren eta epe beraren barruan, balore horien edo antzekoen bizien arteko transmisioa egiten denean. Araututako merkaturen batean negoziatziora onartu gabeko balore edo partaidetzak direnean, urte bateko epea egonen da.

Zerga gardentasuneko entitateen kasuan, subjektu pasiboak portzentaia bera aplikatuko du entitate gardenak aurretik azaldutako eragiketak egiten dituztenean.

29. artikulua. Kapital berekiak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako etekinak.

1. Horrelakotzat hartuko dira kapital berekiak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako kontraprestazio oro, edozein izanik ere horien izena edo izaera, hau da, diruzkoak edo ondasunezkoak, hala nola korrituak eta itundutako beste edozein motatako ordainketak; baita inoren kapitalen erakarpena eta erabilpenaren islada diren edozein motatako aktiboen transmisio, errenboltso, amortizazio, truke edo bihurketatik heldu direnak ere.

Zehatzago, ondoko hauek sartzeko horien barruan:

a) Edozein igorpenetatik heldutako etekinak, merkataritzako eragiketetan sortutakoak barne, endosatu edo transmititzen denetik hasita, endosu edo lagapena ez bada hornitzaileen kreditu bat ordaintzeko erabiltzen behinik behin.

b) Mota guztietako finantza entitateetako kontuetatik heldu den kontraprestazioa, edozein delarik ere haren izena edo izaera, finantza aktiboen gaineko eragiketetan oinarrituak direnak barne.

c) Berrerostetarako ituna duten finantza aktiboen aldi baterako lagatze eragiketetatik heldu diren errentak.

d) Bere titulartasuneko mailegu baten erabateko edo partezko transmisio, lagapen edo transferentziaren ondorioz finantza entitate batek ordaindutako errentak.

2. Baloreen transmisio, errenboltso, amortizazio, truke edo bihurtetaren kasuan, etekin gisa konputatuko da haien transmisio, errenboltso, amortizazio, truke edo bihurtetaren balioaren eta haien eroste edo suskripzioaren balioaren arteko aldea.

Truke edo bihurtetaren balioetat hartuko da hartzen diren baloreei dagokiena.

Erosketa eta besterentzearen gastu osagarriak zenbatuko dira etekinak zenbatzeko, egoki justifikatzen badira.

Finantza aktiboen transmisioetatik heldu diren etekin negatiboak, transmisio horien aurreko edo ondoko bi hilabeteetan subjektu pasiboak finantza aktibo homogeneoak erosi dituenean, subjektu pasiboaren ondarean irauten duten finantza aktiboak transmititzen diren neurrian sartuko dira.

30. artikulua. Beste ondasun higiezin edo eskubide batzuetatik heldu diren etekinak.

1. Kapitalizazio eragiketetatik eta bizi edo baliezintasun aseguruaren kontratuetatik datozen etekinek, diruzkoek zein gauzazkoek, Foru Lege honen 14.2.a) artikuluan aurreikusirikoaren arabera ordainduko dute Zerga.

Zehazki, higikorren kapitalaren etekin horiei honako erregelak hauek aplikatuko zaizkio:

a) Kapital geroratu bat jasotzen denean, higikorren kapitalaren etekina zehaztuko digu jasotako kapitalaren eta ordaindutako primen zenbatekoaren arteko aldeak.

b) Berehalako biziarteko errenten kasuan, jaraunspen, legatu, dote edo antzeko baten bidez "mortis causa" eskuratuak ez direnean, ondoko portzentaiak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen dena hartuko da higikorren kapitalaren etekintzat:

– 100eko 45, hartzailea berrogei urtetik behe-
rakoa denean.

– 100eko 40, hartzailea 40 eta 49 urte bitarte-
koa denean.

– 100eko 35, hartzailea 50 eta 59 urte bitarte-
koa denean.

– 100eko 25, hartzailea 60 eta 69 urte bitarte-
koa denean.

– 100eko 20, hartzailea 69 urtetik gorakoa
denean.

Errenta eratzen den unean errentadunak duen
adinari aplikatuko zaizkio portzentaiak hauek.

c) Berehalako denbora-errentak direnean, jaraunspen, legatu, dote edo antzeko baten bidez "mortis causa" eskuratuak ez direnean, ondoko portzentaiak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen dena hartuko da higikorren kapitalaren etekintzat:

– 100eko 15, errentaren iraupena bost urte
edo txikiagoa denean.

– 100eko 25, errentaren iraupena bostetik
gorakoa eta hamar urtekoa edo txikiagoa denean.

– 100eko 35, errentaren iraupena hamarretik
gorakoa eta hamabost urtekoa edo txikiagoa
denean.

– 100eko 45, errentaren iraupena hamabost
urtetik gorakoa denean.

d) Errenta geroratu, biziarteko edo aldi bateko-
ak jasotzen direnean, jaraunspen, legatu, dote
edo antzeko baten bidez "mortis causa" eskura-
tuak ez direnean, aurreko b) eta c) letretan ezarri-
tako portzentaiak urteko bakoitzari aplikatuz ate-
ratzen dena hartuko da higikorren kapitalaren
etekintzat, errenta sortu arte lortutako errentaga-
rritasunaz areagoturik, hau ere erregelamendu
bidez zehazten den moduan kalkulatu.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa horrela izan
arren, Foru Lege honetako 14.2.a) artikuluan bil-
dutakoez bestelako bizi edo baliezintasun asegu-
ruei buruzko kontratuen onuradunek errenta
moduan jasotzen dituzten erretiro eta baliezinta-
sunagatiko prestazioak Zergaren zerga-oinarrian
integratuko dira, higikorren kapitalaren etekin gisa
eta erregelamendu bidez finkatzen den moduan,
kontratuaren indarrez ordaindutako primetatik
gora egiten duen unetik, eta aseguru kontratuaren
horniduretan inolako mobilizaziorik izan ez bada,
eta kasu honetan ezin dira aplikatu aurreko b) eta
c) letretan ezarritako portzentaiak. Erretiroko pre-
stazioen kasuan araubide hau aplikatzeko, behar-
beharrezkoa izanen da aseguru kontratua gutxie-

nez erretiro data baino bi urte lehenago hitzartu izana.

e) Aldi baterako edo biziarteko errentak iraugitzen direnean, iraugipenaren arrazoia erreskate eskubidea erabili izana izan delarik, ordainduta-ko primen eta erreskateaz lortutako kopuruaren arteko aldeak zehaztuko du higikorren kapitalaren etekina. Erreskateaz lortutako kopurua, zenbaki honetako aurreko letretan jasotakoarekin bat higikorren kapitalaren etekintzat hartu ez den errenten zatiez areagotuko da.

Errentadunarentzat ez da etekinik izanen aldi baterako edo biziarteko errentaren iraugipena heriotzagatik gertatu denean.

2. Higikorren kapitalaren beste etekin batzuk.

Zenbaki honen barrenean sartuko dira, besteak beste, ondoko etekin hauek, dirua edo gauzak izan:

a) Jabetza intelektualetik datozenak zergaduna ez denean autore, eta subjektu pasiboak dituen ondare edo lanbide jardueri atxikirik ez dagoen industri jabetzatik datozenak.

b) Laguntza teknikoa ematetik datozenak, laguntza edo prestazioa enpresa- edo lanbide-jarduera baten baitan ematen denean izan ezik.

c) Ondasun higiezin, negozio edo meategiak errentan ematetik datozenak, azpierreantariak azpierreantatik jasotzen dituenak bezalaxe, enpresa- edo lanbide-jarduerarik osatzen ez dutenean.

d) Biziarteko edo aldi baterako errentak, kapital ezarpenak izan dituztenean arrazoi, jaraunspen, legatu, dote edo antzeko baten bidez "mortis causa" eskuratuak direnean izan ezik. Biziarteko edo aldi baterako errentei dagokienez, bizi aseguru-ko kontratuetatik ondorioztatutako berehalakoei alegia, aurreko artikulua 1. idaztik b) eta c) letretan ezarritako portzentaiak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen dena hartuko da higikorren kapitalaren etekintzat.

e) Irudiaren ustiapenerako eskubidea lagatetik edo irudia erabiltzeko onarpen edo baimenetik datozenak, lagatze hori enpresa- edo lanbide-jarduera baten baitan egiten denean izan ezik.

f) Higikorren kapitalaren etekinak sortu ahal dituzten ondasun higikorren edo eskubideen gaineko ondasun eskubideak nahiz erabilpenak edo ahalmenak, haien izena edo izaera edozein delarik, eratzetik edo lagatetik datozenak.

Aurreko idazatian aipatzen diren eragiketaz ezkontidearen edo, hurbileneakoak barne, hiruga-

ren mailara bitarteko ahaideen alde eginez gero, merkatuko balioa hartuko da etekin garbitzat.

31. artikulua.Higikorren kapitalaren etekintzat hartzen ez diren kasuak:

Ez da higikorren kapitalaren etekintzat hartuko subjektuak bere ohiko lanbide edo enpresa-jarduera garatzean burututako eragiketen prezioa geroratzeagatik edo zatikatzeagatik lortutako kontraprestazioa, dagokion kontzeptuarengatik zerga ordaintzea eragotzi gabe.

32. artikulua.Higikorren kapitalaren etekin garbia.

1. Higikorren kapitalaren etekin garbia zehazteko, etekin osoetatik bakar-bakarrik ondoren datozen gastuak kenduko dira:

a) Balio negoziagarrien administrazio eta gordailu gastuak, muga hauetako handienarekin:

a') Horietatik heldu diren dirusarrera osoen 100eko 3.

b') Hamar mila pezeta.

b) Etekinak laguntza teknikoaren prestaziotik, ondasun higikor, negozio edo meategiak errentan ematetik edo azpierreantamentatik datozenak, etekin osoetatik kenduko dira haiek lortzeko beharrezko gastuak, eta, hala egokitzen denean, sarren iturri diren ondasun edo eskubideen hondaketen zenbatekoak ere bai.

2. Etekin garbiak osorik zenbatuko dira, salbu eta positiboak izanik ondoko murrizketa hauetakoren bat aplikatzekoa denean:

a) Sortzeko epea bi urtetik gorakoa denean, edo erregelamendu bidez denboran modu erabat irregularrean lortutakotzat jotzen direnean, 100eko 30eko murrizketa izanen dute.

Sortzealdia kalkulatzeko, etekin hauek zatika kobratzen direnean, kontuan izan beharko da zatiketaren urte kopurua; hain zuzen ere, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

b) Bizi aseguruaren kontratuetatik jasotakoaz ondorioztatutako etekinak, kapital gisa jaso direlarik, honela murriztuko dira:

– Jasotzen diren datatik bi urte baino gehiagoko aurrerapenaz ordaindutako primei dagozkienak, 100eko 30.

– Jasotzen diren datatik bost urte baino gehiagoko aurrerapenaz ordaindutako primei dagozkienak, 100eko 60.

– Jasotzen diren datatik zortzi urte baino gehiagoko aurrerapenez ordaindutako primei dagozkienak, 100eko 70.

Azkeneko murrizketa horixe bera aplikatuko zaio kapital moduan bizi aseguruetatik jasotakoaz ondorioztatutako etekin osoari, lehen prima ordaindu zenez geroztik hamabi urte baino gehiago igaro direlarik, baldin eta kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primek halako aldizkakotasun eta erregulartasun bat izan badute; betiere, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

c) Baliezintasun prestazioetatik ondorioztatutako etekinak, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintza eta mailetan, Foru Lege honetako 14.2.a) artikuluan ezarritako aseguru kontratuez bestelako onuradunek jasotzen dituztenean, 100eko 60 murriztuko dira. Baliezintasun prestazioetatik ondorioztatutako etekinak direnean, aurreko baldintzak betetzen ez badituzte, 100eko 40 murriztuko dira.

Baliezintasun prestazioak hamabi urte baino gehiagoko antzinasunaz hitzarturiko aseguru kontratuen ondoriozkoak direnean aplikatuko den murrizketa 100eko 70ekoa izanen da, baldin eta kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primek halako aldizkakotasun eta erregulartasun bat izan badute; betiere, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

d) Zenbaki honetan aurreikusitako murrizketak ezin zaizkie aplikatu Foru Lege honetako 30. artikuluko 1. zenbakiko b), c) eta d) letretan eta 2. zenbakiko d) letran aipatutako prestazioei, errenta moduan jasotzen direlarik.

e) Artikulu honen 2. zenbakian aipatutako murrizketak aplikatzeko, formula erraztuak finkatu ahal izanen dira erregelamendu bidez.

3. sekzioa.

Enpresa- eta lanbide-jardueren etekinak.

33. artikulua. Enpresa- eta lanbide-jardueren etekin osoak.

1. Enpresa- eta lanbide-jardueren etekin osoztat joko dira, norberaren lanaren eta kapitalaren bidez batera lortutako etekinak edo faktore horietako bakar batez lortutakoak subjektu pasiboari aukera ematen badiote bere kontura produkzio baliabideak edo giza baliabideak antolatzeke edo horietako bakar bat antolatzeke, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan eskuhartzeke asmoz.

Bereziki, halakotzat joko dira fabrikazio jarduerak, merkataritza edo zerbitzu edo prestazioak

edo erauzketa jarduerak, artisautza, nekazaritza, basogintza, abeltzaintza, arrantza, eraikuntza eta meagintza jarduerak, eta baita lanbide liberaletan eta arte edo kirolarekin zerikusia dutenetan aritzea ere.

Enpresario, profesional, artista edo kirolaritzat hartuko dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (Lizentzia Fiskalaren) Tarifetan halakoak direnak.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren eragine-tarako, higiezinak alokatzea edo sal-erostea enpresa-jardueratzat joko da, honako inguruabarrak tartean direnean bakarrik:

a) Jarduera burutzeko, gutxienez lokal bat izatea eta lokal horrek jarduera hori kudeatzeko bakarrik erabiltzea.

b) Jardueran aritzeko, gutxienez lan kontratudun pertsona bat, lanaldi osorako, izatea.

34. artikulua. Etekin garbia

1. Enpresa- eta lanbide-jardueren etekin garbia Sozietateen gaineko Zergaren arauari jarraituz zehaztuko da, sekzio honetan dauden erregela bereziak kendu gabe, eta hnako araubide hauen bitartez eginen da:

a) Zuzeneko zenbatespena, araubide orokor gisa aplikatuko dena, eta bi modalitate izanen ditu:

– Arrunta.

– Erraztua.

b) Zenbatespen objektiboa.

2. Enpresa- eta lanbide-jardueren etekin garbian ez dira sartuko berauei atxikitako ondare elementuetatik ondorioztatutako ondare gehikuntza edo murrizketak, horiek Foru Lege honetan ondare gehikuntza eta galeretarako aurreikusiriko arauen arabera zenbatuko baitira bai eta Zerga ordainduko ere.

3. Zergadunak ondare elementuak atxiki edo aktibo finkoak desatxikiz gero, ez da ondare aldatzarik izango, betiere ondasun edo eskubideek bere ondarearen barrenean jarraitzen badute.

Ondare elementuen aurretiazko atxikipena egon ez dela ulertuko da, ondorengo hiru urteko epean, aipatu elementuen inorenganitze egunetik hasita.

4. Jardueraren xede diren ondasunek edo zerbitzuek, subjektu pasiboak hirugarren batzuei dohainik laga edo maileguz ematen dizkienean, edo norbere kontsumo eta erabilerara ematen

dituenean, merkatuan duten balio arrunta hartuko da aintzat.

Era berean, kontraprestazioa dagoenean eta hori ondasun eta zerbitzuek merkatuan duten balio arrunta baino dextente baxuagoa denean, azken hau hartuko da aintzat.

5. Nolanahi ere, aktibo finkoen balorazioa Foru Lege honen 41 eta 42. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera egingen da.

6. Jardueren etekin garbiek bi urtetik gorako sorrera epea dutenean eta denboran zehar modu irregular nabarmen batez lortu direla erregelamendu bidez jotzen denean, 100eko 30 murriztuko da.

Etekin horien kobrantza zatika egiten denean, sorrera epearen zenbatzeak zatikapen urteen kopurua hartu beharko du kontuan, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

35. artikulua. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren bitartez zehazteko arauak.

Enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztean, Sozietateen gaineko Zergaren arauak aplikatuko dira, horrez gain, honako erregela berezi hauek kontuan hartuz:

1go. Ez dira gastu kengarrizat joko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 24.2 artikuluan aipatutako kontzeptuak, ez eta enpresario edo profesional beraren gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, Foru Lege honen honen 55. artikulua 1. zenbakian ezarritakoari utzi gabe.

Hala ere, gastu kengarrizat joko dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalak sinatutako aseguru kontratuengatik ordaindutako kopuruak, aseguru pribatuen antolamendu eta ikuskapenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legeko bosgarren xedapen iragankorreko 3. idazatian eta hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharra betetzeko, aipatu Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotako lanak egiten dituztenean, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen egoeretatik arduratzea helburu duen zatian, urteko 500.000 pezeta mugaz.

2gn. Sujetu pasiboaren ezkontidea edo adingabeko seme-alabak berarekin bizi direla, berak garatutako enpresa- edo lanbide-jardueretan etekin gabe lan egin ohi dutela behar bezala egiaztatzen dagoenean, beharrezko lan kontratuaz eta Gizarte Segurantzako dagokion araubiderako afiliazioaz, etekina zehazteko bakoitzarekin hitzartu-

tako ordainsarietako kenkaria egingen da, betiere haien gaikuntza eta beraiek burututako lanari dagozkionak merkatukoak baino handiagoak ez direnean.

Kopuru horiek ezkontideak edo adingabeko seme-alabek lortuzat joko dira, lan etekin gisa.

3gn. Sujetu pasiboarekin bizi diren ezkontide edo adingabeko seme-alabek haien jardueran erabilitako ondasun edo eskubide lagapenak egiten dituztenean, jardueraren titularraren etekina zehazteko hitzartutako kontraprestazioko kenkaria egingen da, betiere merkatu balioa gainditzen ez duenean eta, haren faltan, azken honen kenkaria egin ahal izanen da. Kontraprestazioa edo merkatu balioa ezkontide edo adingabeko seme-alaben kapitalaren etekintzat joko da.

Arau honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko izanen bi ezkontideek amankomunean dituzten ondasun eta eskubideei.

4gn. Zuzeneko zenbatespen erraztua. Modalitate hau, subjektu pasiboak garatutako jardueretarako, aurreko urtean, negozio kopuruaren zenbateko garbia, subjektu pasiboak egindako guztietarako, erregelamendu bidez ezarriko den zenbatekotik gorakoa ez duten jarduerari aplikatuko zaie, aplikatzeari uko egin ezean. Halaber, zenbait gastu kenkagarri zenbatzeko erregela bereziak ezarri ahal izanen dira.

36. artikulua. Etekin garbia zenbatespen objektiboaren bitartez zehazteko arauak.

1. Etekin garbiaren kalkulua, zenbatespen objektiboaren bidezkoa, artikulua honetan eta hau garatuko duten xedapenetan ezarritakoak arautuko dute.

Erregelamenduzko xedapenak honako erregela hauei lotuko zaizkie:

1go. Araubide hau erregulatzen duten arautan aurreikusten diren baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek horri jarraituz zehaztuko dituzten haien etekinak, aplikatzerai uko egin ezean, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

2gn. Zenbatespen objektiboaren araubidea Balio Erantsiaren gaineko Zergan ezarritako araubide berezietan batera aplikatuko da, erregelamendu bidez horrela ezartzen denean.

3gn. Zenbatespen objektiboaren araubidearen aplikazio esparrua honako hauek, besteak beste, finkatuko dute: jarduera eta laborantzaren izaerak eta modulu objektiboek, hala nola, eragiketen bolumena, langileen kopurua, erosketen zenbatekoa, ustiatzearen azalera edo erabilitako aktibo finkoak,

zergadunak egiten dituen jarduera guztien multzorako erregelamendu bidez ezarriko diren mugekin.

4gn. Zenbatespen objetiboaren araubidea aplikatu ahal izanen zaie errentak egozteko araubidean dauden entitateei.

5gn. Lanbide edo enpresa-jardueren etekin garbia zenbatespen objektiboaren bidez kalkulatzeko Ekonomi eta Ogasun Departamentuak orokorrean edo jarduera sektore zehatzetarako ezarriko dituen zeinu, indize edo moduluak erabiliko dira.

6gn. Zenbatespen objektiboko sistemak halako jarduera edo sektore batzuei aplikatzea erregelamendu bidez arautu ahal izanen da, eta sistema horien bitartez finkatuko dira, subjektu pasiboek beraiek aurrez onarturik betiere, hainbat zergalditako etekin garbien kopuru indibidualizatuak.

7gn. Zenbatespen objektiboaren araubidea aplikatu arren, jardueraren benetako etekinen eta araubide hauek modu egokian aplikatzen heldu direnen arteko aldeak direla- eta ondarean gerta daitezkeen gehikuntzak edo murrizketak ez dira inolaz ere zergapetuko.

2. Sujetu pasiboak zenbatespen objetiboaren araubidea aplikatzerai uko egin eta zehakako zenbatespenarena aplikatu behar zaionean, enpresa- edo lanbide-jardueraren etekina zehazteko, kon-tuan hartuko dira, lehentasunez, zenbatespen objetiborako ezarritako zeinu, indize eta moduluak.

37. artikulua. Enpresa edo lanbide jarduerari atxikitako ondare elementuak.

1. Enpresa edo lanbide jarduera bati atxikitako ondare elementutzat joko dira:

a) Sujetu pasiboak jarduera garatzeko erabiltzen dituen ondasun higiezinak.

b) Jarduera burutzen duten langileen zerbitzu ekonomiko eta soziokulturaletara emandako ondasunak. Dena den, aisialdi eta jolaserako edo, oro har, enpresa- edo lanbide-jardueraren titularraren erabilera pribaturako ondasunak ez dira jarduerari atxikitakotzat jotzen.

c) Etekinak lortzeko beharrezko diren bestelako ondare elementuak. Erakunde baten berezko fondoan partaidetzaren eta norbere kapitalak hiru-garren batzuei lagatzearen erakusgarri diren aktiboak ez dira inola ere jarduerari atxikitakotzat hartuko.

2. Enpresa edo lanbide jardueran partzialki baino erabili ez daitezkeen ondare elementuak direnean, atxikipena jardueran benetan erabiltzen

den zatira mugatutzat joko da. Zenbait ondare elementu atxikitatzat jo ahal izateko irizpideak ezarri ahal izanen dira.

2. Ondare elementua atxikitakotzat jotzeak ez du zerikusirik horien titulartasuna, senar-emazte-en kasuan, bi ezkontideek amankomunean izatea-rekin.

38. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueren etekinen indibidualizazioa.

Enpresa edo lanbide jardueren etekinak jarduerari atxikitako ekoizpen bitartekoen eta giza baliabideen antolamendua beraien kargura, modu pertsonal eta zuzenean egiten ohi dutenek lortzen dutela ulertuko da. Enpresa edo lanbide jardueren titular gisa ageri direnek baldintza horiek betetzen dituztela pentsatuko da, kontrako frogarik ez badago.

4. sekzioa

Ondare gehikuntzak eta murrizketak

39. artikulua. Kontzeptua.

1. Sujetu pasiboaren ondarearen balioak izandako aldaketak ondare gehikuntzak eta murrizketak dira, ondarean izandako aldaketaren batengatik agerian geratu badira, Foru Lege honek etenkintzat jotzen dituztenean izan ezik.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitakoaren eraginetarako, subjektu pasiboaren ondarearen osaketan gertatutako aldaketak dira, besteak beste, hauek:

a) Ondarearen edozein elementuren eskualdaketa, kostubidezkoa zein dohainezkoa.

b) Ondare elementuak subjektu pasiboaren ondareari gehitzea.

c) Sujetu pasiboaren ondarekoa den elementu bat ordezkatzeko hura zehaztu edo baliatzearen ondorioz ondareari gehitutako beste ondasun edo eskubide batzuekin.

d) Eduki ekonomikoa duten betebeharrak bertan behera uztea.

3. Ondarearen osaketan aldaketarik ez dela izan joko da hurrengo kasuetan:

a) Gauza komuna bereizten denean.

b) Eskuratuzko edo irabazizko sozietatea desegiten denean edo ezkontzako partaidetzazko araubide ekonomikoa iraungitzean.

c) Ondasun erkidegoak desegitean edo erkideak bereizten direnean.

Zenbaki honetan aipatzen diren kasuek ez dute, inola, jasotako ondasunen edo eskubideen balioa eguneratzea eragiterik izango.

4. Ondare gehikuntza edo murrizketarik ez dela joko da hurrengo kasuetan:

a) Kapital murrizketetan. Kapital murrizketak, xedea duena duelarik, balore edo partaidetzak amortizatzea eragiten duenean, amortizatutaz joko dira eskuratutako lehenak, eta hauen erosketak balioa proportzionalki banatuko da zergadunaren ondarekoak izaten segitzen duten gainontzeko balore homogeneoen artean. Kapital murrizketak ez dienean zergadunaren zirkulazioko balore edo partaidetza guztiei maila berean eragiten, eskuratutako lehenei buruzkotzat joko da.

Kapital murrizketaren xedea ekarpenak itzultzea denean, honen zenbatekoak edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatuko ohiko balioak gutxitu egingen du ukitutako baloreen erosketak balioa, aurreko idazatik erregelekin bat, baliogabetu arte. Izan daitekeen soberakinak ondare gehikuntza gisa ordainduko du Zerga.

b) Sujetu pasiboa hil delako dohainezko eskualdaketat.

c) Enpresa edo lanbide ondare osoaren inter vivos moduko dohainezko eskualdaketak gertatzean, baldintza hauek betetzen badira:

a') Eskualdaketa lerro zuzeneko ondorengo baten edo batzuen aldekoa izatea.

b') Eskualdaketa egiten duena enpresa- edo lanbide-jardueran aritu izana aurreko bost urteetan gutxienez, eta eskuratzailerak edo eskuratzailerak beren aurrekoak egindako jarduera berean jarraitzea beste bost urtez, gutxienez.

c') Aurrekoak egindako eskualdaketa berri ematea Administrazioari hura egin zen ekitaldiari dagokion zerga-aitorpenean.

5. Zergatik salbuetsita daude ondare gehikuntza batzuk, hala nola:

a) Foru Lege honetako 62. artikulua 6. zenbakian aipatutako erakundeei eginiko dohaintzen ondorioz agertuak.

b) 65 urtetik gorako pertsonak beren ohiko etxebizitza eskualdatzean sortuak, biziarteko errenta baten truke.

c) Zerga-zorren ordainketaz ematen direnak, Foru Lege honetako 85. artikuluko 3. zenbakian ezarritako kasuetan.

d) Kostu bidezko eskualdaketen odorioz agertzen direnak, betiere baldintza hauek betetzen badira:

1go. Aipatutako eskualdaketen zenbateko orokorra 500.000 pezetatik gorakoa ez izatea urte naturalaren barrenean.

2gn. Ondare gehikuntzan zergapetu beharreko zenbatekoa eskualdaketa zenbateko osoaren ehuneko berrogeita hamarretik gorakoa ez izatea. Ondare gehikuntzan zergapetu beharreko zenbatekoa aipatutako portzentaia baino handiagoa den kasuetan soberakin hori baizik ez da zergapetuko.

6. Ondare galeretatik kanpo geratuko dira ondoko hauek:

a) Justifikaziorik ez dutenak.

b) Kontsumoaren ondoriozkoak.

c) Inter vivos moduko dohainezko eskualdaketak, edo eskuzabaltasunez eginikoak.

d) Jokoan izandako galerek eragindakoak.

e) Ondare elementuak eskualdatzearen ondoriozkoak, eskualdatzaileak atzera eskuratzen baditu eskualdaketa datatik urtebeteko epean. Murrizketa hau integratu egingen da ondare elementua geroago eskualdatzen denean.

f) Merkatu arautuetako baten, negoziazio gai diren balio edo partaidetzak eskualdatzetik ondorioztatutakoak, eskualdaketa horien aurretiko edo ondorengo bi hilabeteetan zehar subjektu pasiboak balore homogeneoak eskuratu dituztenak.

g) Merkatu arautuetan negoziazio gai ez diren balio edo partaidetzak eskualdatzetik ondorioztatutakoak, eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo urtean zehar subjektu pasiboak balore homogeneoak eskuratu dituztenak.

Aipatutako f) eta g) letretan ezarritako kasuetan, ondare murrizketak integratu egingen dira subjektu pasiboaren ondarean mantentzen diren baloreak eskualdatu ahala.

f) eta g) letretan aurreikusirikoa ez zaie aplikatuko Foru Lege honen 28. artikuluko azkenarreko lerroaldeak aipatzen dituen eskualdaketei.

40. artikulua. Ondare gehikuntza edo murrizketen zenbatekoa. Irizpide orokorra.

1. Ondare gehikuntza edo murrizketen zenbatekoa honakoa izanen da:

a) Kostu bidezko edo dohainezko eskualdaketa burutuz gero, ondare elementuen eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldea.

b) Gainerako kasuetan, ondare elementuen edo, halakorik balitz, zati proportzionalen merkatu balioa.

2. Eskualdatutako ondare elementuetan inbertsioak edo hobekuntzak egin badira, inorenganatzeko balioak beronen kide bakoitzari dagokion zatia bereiziko da.

41. artikulua. Eskuraketa eta eskualdaketa balioak.

1. Eskuraketa balioa honakoen baturak osatzen du:

a) Eskualdaketa gauzatu dadin eragin duen benetako zenbatekoa edo, egokia denean, hurrengo artikulua aipatzen duen balioa.

b) Eskuratzailerak eskuratutako ondasunetan egindako inbertsio eta hobekuntzen kostua eta eskuraketari atxikitako gastu eta zergak, korrituak kanpo utzita.

Hala lortutako balioa erregelamendu bidez ezarriko diren amortizazioen zenbatekoan gutxituko da, bidezkoa denean.

2. Eskualdaketa balioa inorenganatzeko gauza dadin eragin duen benetako zenbatekoa da edo, egokia bada, hurrengo artikulua aipatzen duena. Balio honi aurreko zenbakiko b) letrak aipatzen dituen gastu eta zergak kenduko zaizkie, behin eskualdatzaileak beroriek ordaindu ondoren.

3. Inorenganatzeko balioaren benetako zenbatekotzat ordaindutakoa hartuko da, betiere merkaturuan ohikoa denaren azpitik ez badago, kasu honetan azken hori gailenduko delarik.

42. artikulua. Dohainezko eskuraketak edo eskualdaketak.

Eskuraketa edo eskualdaketa dohainezkoa denean, dagozkion balioak hartuko dira Oinorde-tza eta Dohaintzen gaineko Zergaren arauak aplikatuz ateratakoak, eta ez dute merkatu balioa gailenduz izango.

Balio horiei aplikatuko zaie, beharrezkoa denean, aurreko artikuluko b) letrako 1. eta 2. zenbakietan xedatutakoa.

Foru Lege honen 39. artikuluko 4. zenbakiko c) letran aipatutako dohainezko eskuraketetan, dohaintza hartzailea, delako ondasunen balio eta eskuraketa egunei dagokienez, dohaintza emailearen lekuan subrogatuko da.

43. artikulua. Berariazko arauak

1. Ondarearen kostu bidezko aldaketak, ondoko hauetatik heldu direnak, gertatzean:

a) Sozietate nahiz erakundearen fondoetan parte hartzearen erakusgarri diren eta baloreen merkatu araututako baten, negoziatzeko onartutako baloreena denean, gehikuntza edo murrizketa eskuraketa eta eskualdaketa balioen arteko aldea kontuan hartuz zenbatuko da, eskualdaketa burutzen den egunean araututako merkatu arautuan honek duen kotizazioak edo, kotizazioa baino handiagoa denean, hitzartutako prezioak finkatua.

Zati baten liberatutako akzioak direnean, haien eskuraketa balioa subjektu pasiboak benetan ordaindutako zenbatekoa izanen da.

Erabat liberatutako akzioak direnean, horien nahiz egoki direnen eskuraketa balioa kostu osoa dagokion titulu kopuruaren artean, zaharrak nahiz liberatuak, banatuz aterako da.

b) Aurreko letran aipatzen diren merkatuetan negoziatzeko onartu ez diren eta sozietate nahiz erakundearen fondoetan parte hartzearen erakusgarri diren baloreen kasuan, gehikuntza edo murrizketa eskuraketa eta eskualdaketa balioen arteko aldea kontuan hartuz zenbatuko da.

Ordaindutako zenbatekoa alderdi independenteez merkatu baldintza arruntetan hitzartuko luke tenari dagokiola frogatu ezean, eskualdaketa balioak hartuko da bi hauetatik handiena:

a) Zergaren sortzapen egunaren aurretik itxiatu azken ekitaldiari dagokion balantzearen ondoriozko teorikoa.

b) Zergaren sortzapen egunaren aurretik itxiatu hiru gizarte ekitaldien emaitzen batezbestekoa 100eko 20 tasaz kapitalizatuz ateratzen dena. Azken honen eraginetarako, mozkin gisa zenbatuko dira banatutako dibidenduak eta errebetararako esleipenak, balantzeak erregularizatu edo eguneratzeak alde batera utzita.

Honela kalkulaturako eskualdaketa balioa eskuratzailerari dagozkion balore edo partaidetzen balioa zehazteko kontuan izanen da.

Zati baten liberatutako akzioak edo gizarte partaidetzak direnean, haien eskuraketa balioa subjektu pasiboak benetan ordaindutako zenbatekoa izanen da. Erabat liberatutako akzioak edo gizarte partaidetzak direnean, horien nahiz egoki direnen eskuraketa balioa kostu osoa titulu kopuruaren artean, zaharrak nahiz liberatuak, banatuz aterako da.

c) Sozietate gardenen kapitalean balore edo partaidetzen eskualdaketa dagokienez, gehikuntza edo murrizketa eskuraketa eta titulartasun balioaren eta horien eskualdaketa balioaren arteko aldea kontuan izanik neurtuko da.

Horretarako, eskuraketa eta titulartasun balioa honako hauek osatzen dutela ulertuko da:

Lehena. Haien eskuraketa prezioa edo ordaindutako kopurua.

Bigarrena. Sujetu pasiboari haien akzio edo partaidetzen etekin gisa, benetako banaketarik gabe, egotzitako gizarte mozkinen zenbatekoa, direlako akzio eta partaidetzak eskuratzetik berauek inorenganatzera doan denboran zehar.

Hirugarrena. Baloreak zerga-oinarri positiboa egotzi ondoren eskuratzen dituzten bazkideen kasuan, dibidendu edo partaidetzen zenbatekoan eskuraketa balioa gutxituko da, sozietatea gardentasun araubidean dagoen zergaldietan lortutako mozkinetan.

Ondasunak edukitzeko sozietateen kasuan, zenbatu beharreko eskuraketa balioa Zergaren sortzapean egunaren aurretik onetsitako azken balantzearen ondoriozko teorikoa izanen da gutxienez, behin higiezin kontabilitate balio garbia Ondarearen gaineko Zergaren eraginetarako izanen lukeen balioaz ordezkatu ondoren.

Letra honetan xedatutakoa, aurreko bietan harpidetza eskubideei buruz ezarritakoa aplikatze-ari utzi gabe ulertuko da, hala dagokionean.

d) Sozietateei edo bestelako entitateei eginiko diruzko ez diren ekarpenei dagokionez, gehikuntza edo murrizketa ondasunen edo emandako eskubideen eskuraketa balioaren eta honako kopuru hauetako handienaren arteko aldea kontuan izanik zehaztuko da:

Lehena. Ekarpengatik jasotako gizarte akzio edo partaidetzen balio nominala edo, bestela, beronen dagokion zatia. Balio honi jaulkipen primen zenbatekoa erantsiko zaio.

Bigarrena. Jasotako tituluen kotizazio balioa, ekarpena gauzatzen den egunean edo aurrekoan.

Hirugarrena. Emandako ondasun edo eskubidearen merkatu balioa.

Honela kalkulaturako eskualdaketa balioa diruzkoa ez den ekarpenaren ondorioz jasotako tituluen eskuraketa balioa zehazteko kontuan hartuko da.

e) Bazkideak banandu edo sozietateak desegiten direnean, ondare gehikuntza edo murrizketatzat hartuko da, sozietateari dagozkion utzi gabe, gizarte likidazioko kuotaren balioa edo jasotako ondasunen merkatu balioaren eta titulu edo kapital partaidetzaren eskuraketa balioaren arteko aldea.

Sozietateen banaketa, bategite edo xurgapen kasuetan, subjektu pasiboaren ondare gehikuntza edo murrizketa bazkidearen partaidetzaren erakusgarri diren titulu, eskubide edo baloreen eskuraketa balioaren eta jasotako titulu, kopuru edo eskubideen merkatu balioaren edo emandakoen merkatu balioaren arteko aldea kontuan izanik neurtuko da, bi hauetako handiena:

a') Jasotako titulu, numerario edo eskubideen merkatu balioa.

b') Emandakoen merkatu balioa.

f) Intsuldaketa baten, ondare gehikuntza edo murrizketa lagatzaileari zenbatuko zaio, intsuldatan dagokion zenbatekoaz, jabeari edo usufuktudunari dagokion partaidetza kenduta.

Intsuldaketa eskubidea prezio bidez eskuratu denean, berori eskuraketa baliotzat joko da.

g) Aseguratutako ondare elementuetan galera edo ezbeharrengatik kalte-ordain edo kapitalei dagokionez, ondare gehikuntza edo murrizketa gisa jasotako kopuruaren eta kalteari dagokion eskuraketa balioaren zati proportzionalaren arteko aldea zenbatuko da. Kalte-ordaina dirutan izanen ez balitz, jasotako ondasun, eskubide edo zerbitzuen merkatu balioaren eta kalteari dagokion eskuraketa balioaren zati proportzionalaren arteko aldea zenbatuko da. Ondare gehikuntza beronetik zergadunaren ondare balioaren hazkunde ondo-rioztatzen denean baino ez da zenbatuko.

Ezbeharra jasandako elementua subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza den kasurako Foru Lege honen 45. artikuluan xedatutakoari lotuko zaio.

h) Ondasun edo eskubideen trukaketari dagokionez, ondare gehikuntza edo murrizketa lagatzen den ondasun edo eskubidearen eskuraketa balioaren eta honako bi hauetako handienaren arteko aldeak zehaztuko du:

a') Emandako ondasun edo eskubidearen merkatu balioa.

b') Trukean jasotzen den ondasun edo eskubidearen merkatu balioa.

i) Biziarteko edo aldi baterako errenten iraungipenari dagokionez, ondare gehikuntza edo murrizketa, errenta horiek ordaintzera derrigortua dagoenarentzat, jasotako kapitalaren eskuraketa balioaren eta ordaindutako errenten baturaren arteko aldea kontuan izanik zehaztuko da.

j) Aldi baterako edo biziarteko errenta baten trukeko ondare elementuen eskualdaketatik, ondare gehikuntza edo murrizketa errentaren egungo finantza balio aktuarialaren eta eskualda-

tutako ondare elementuen eskuraketa balioaren arteko aldea kontuan izanik zehaztuko da.

k) Merkatu arautuetako batean negoziatzeko onartu ez diren balioetatik datozen suskripzio eskubideen eskualdaketari dagokionez, lortutako zenbatekoa ondare gehikuntzat hartuko da eskualdaketa gertatzen den zergaldian.

Merkatu arautuetan negoziatzeko onartutako balioetatik datozen suskripzio eskubideak direnean, haien zenbatekoak eskuraketa balioa jeitsiko du. Eskubideak zein balioetatik datozen, hoi- en eskuraketa balioa gainditzen badu zenbateko horrek, aldea ondare gehikuntzat hartuko da eskualdaketa egiten den zergaldian.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatuko da sozietate baten akzioen hedatze maila merkatu arautuetan negoziatzeko onartu aurretik areagotzeko xedearekin egiten diren kapital handitzei dagozkien suskripzio eskubideen eskualdaketan kasuan. Onartzeko eskabidea kapital handitzea egiten denetik bi hilabeteko epean ez aurkezteak, onartzeko eskabide hori kentzeak edo hasten denetik bi urte iragan aurretik negoziatuzkotik baztertzeko letra honen lehenbiziko lerroaldean aurreikusiriko tratamenduaren aplikazioa ekarriko du.

l) Ondasun higiezinaren gaineko atsegina edo gozamen eskubide erreal bateko titularrak bere eskualdaketa gauzatzen duenean, edo hura iraungita, ondare gehikuntza edo murrizketa kalkulatzeko, eskualdaketa balioa titularrak higikorren kapitalaren etekinak jaso ez dituen denborarekiko proportzionala den moduan gutxituko da.

m) Eskualdaketa batetik ez datozen ondasun edo eskubideen txertaketetan, ondare gehikuntza gisa ondasun edo eskubide horien merkatu balioa hartuko da kontuan.

n) Abenduaren 20ko 1814/1991 Errege Dekretuak araututako futuro eta aukera merkatuetan burututako eragiketetan, ondare gehikuntza edo murrizketatzat hartuko da eragiketak subjektu pasiboak gauzatutako enpresa-jarduere- n garapenean hitzartutako eragiketa nagusi baten estaldura suposatzen ez duenean lortutako etekina, kasu horretan kapitulu honetako 3. sekzioan aurreikusitakoaren arabera Zerga ordainduko dutelarik.

2. Balore homogeneousi dagozkien ondare aldaketan kasuan, subjektu pasiboak eskualdatutakoak lehenik eskuratu zituenak direla ulertuko da. Halaber, harpidetza eskubide guztiak eskualdatzen ez direnean, eskualdatutakoak lehenik eskuratutako baloreei dagozkiela ulertuko da.

Erabat liberatutako akzioak direnean, haien antzintasuna jatorri dituzten akzioei dagokiena dela ulertuko da.

Ondorio hauetarako balore homogeneousat hartuko dira enitate berak luzatutako izaera berdinekoak, nominal eta eskubide berdinak dituztenak.

3. Artikulu honen 1. zenbakiko d) eta e) letretan xedatutakoa fusio, eszizio, aktiboen ekarpen eta balore trukaketen araubide berezian, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen X titulua- ren IX. kapituluaren araututakoan, finkatutako- ari utzi gabe ulertuko da.

44. artikulua. Frogatu gabeko ondare gehikuntzak

Frogatu gabeko ondare gehikuntzat hartuko dira beraien edukitze, aitopen eta eskuraketa zergadunak aitortutako errenta edo ondarearekin bat ez datozen ondasun edo eskubideak, eta baita Zerga honen edo Ondarearen gaineko Zergaren edozein aitopenetan ez diren zorrak sartzea, edo horiek liburu zein erregistro ofizialetan jartzea.

Frogatu gabeko ondare gehikuntzak azaldu direneko zergaldiaren oinarri likidagarri orokorrean sartuko dira, subjektu pasiboak preskribitutako zergaldi bateko data jakin batez geroztik ondasun edo eskubideen jabe dela behar bezala frogatu ezean.

45. artikulua. Berrinbertsioagatik salbuespena

1. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortutako ondare gehikuntzak zergapetu gabe utzi ahal izanen dira, betiere eskualdaketaren bidez lortutako zenbateko osoa ohiko beste etxebizitza bat erosteko edo zaharbertitzeko berrinbertituz gero, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketan jasotakoaren guztizkoa baino gutxiago bada, berrinbertitutako kopuruari dagokion lortutako ondare gehikuntzaren zati proportzionala baino ez da zergapetu gabe utziko.

Ohiko etxebizitza izanen da Lege honen 62. artikuluko 4. zenbakian zehaztutakoa.

2. Enpresa edo lanbide jardueri atxikiriko ibilgetu material eta ez-materialaren elementuen eskualdaketan agertutako ondare gehikuntzak zergapetu gabe utzi ahal izanen dira, betiere berrinbertitzearen zenbateko osoa arestian aipatutako elementuetako edozeinetan berrinbertitzen bada Sozietateen gaineko Zergaren eraginetarako ezarritako baldintza berberetan.

Egindako berrinbertsioaren zenbatekoa beste-
rentzearen zenbateko osoa baino txikiagoa izanez
gero, zergapetu gabe utziko da inbertitutako zen-
batekoari dagokion ondare gehikuntzaren zati pro-
portzionala.

46. artikulua. Ondare gehikuntza eta urripen-
en indibidualizazioa.

Ondare gehikuntza eta urripenak, Ondarearen
gaineko Zerga arautzen duen azaroaren 19ko
13/1992 Foru Legearen 7. artikuluan ezarritakoa-
ren arabera, gehikuntza eta urripenak horiek sor-
tzen dituzten ondasun, eskubide eta gainerako
ondare elementuen titular diren subjektu pasiboei
egotziko zaizkie.

Justifikatu gabeko ondare gehikuntzak, zein
ondasun edo eskubidetan agertu, haien titularrei
egotziko zaizkie.

Aldez aurretik egindako eskualdaketa batetik
ez datozen ondasun eta eskubideak eskuratzea -
jokoen irabaziak, kasu-, ondare edo eskubide
horiek lortzeko eskubidea zuenaren edo zuzene-
an irabazi dituenaren ondare gehikuntzatat joko
dira.

5. sekzioa Egozketak

1go. azpisekzioa Zerga gardentasuna

47. artikulua. Sozietate gardenak

1. Sozietate gardenak.

1. Sozietate gardentzat hartuko dira:

a) Aktiboaren erdia baino gehiago balioez osa-
turik daukaten sozietateak eta ondasun edukitza
hutseko sozietateak, ekitaldi sozialeko laurogeita
hamar baino gehiago egunetan, hauetariko edo-
zein gorabehera gertatzen denean:

a') Kapital sozialaren ehuneko 50 baino gehia-
go famili talde batena izatea. Famili taldea da
zuzeneko edo zeharkako lerroko, odolezko edo
ahaidetasun loturen bidez, laugarren gradua arte,
hori barne, baturiko pertsonen osatzen dutena.

b') Kapital sozialaren ehuneko 50 baino gehia-
go hamar edo hamar baino bazkide gutxiagorena
izatea.

Zenbaki horretarako, ondasun edukitza hutse-
ko sozietateak izanen dira aktiboaren erdia baino
gehiago enpresa- edo lanbide-jardueren menpe
ez daukaten sozietateak, Foru Lege honetako 33.
artikuluan zehaztu bezala.

Ondare elementu bat enpresa- edo lanbide-jar-
dueren menpe dagoenentz erabakitzeke, Foru
Lege honetako 37. artikuluan xedatutakoa hartuko
da kontuan.

Bai aktiboaren balioa, bai enpresa- edo lanbi-
de-jardueren menpe ez dauden ondare elemen-
tuena, kontabilitatearen ondoriozkoa izanen da,
baldin eta horrek sozietatearen ondare egoera
zintzoki adierazten badu. Bestela, merkatu balioa
hartuko da.

Letra horretan, a)n alegia, ezarritako aurreikusi-
riko ondorioetarako, aktiboaren erdia baino gehia-
go balorez osaturik daukaten sozietateei dagokie-
nez, ez dira balore gisa kontatuko:

1go. Legezko eta erregelamenduzko betebe-
harrak betetzeko edukitzen direnak.

2gn. Enpresa- edo lanbide-jarduerak garatze-
an ezarritako kontratu harremanen ondoriozko kre-
ditu eskubideak biltzen dituztenak.

3gn. Beren helburuzko jardueran aritzearen
ondorioz Balore Sozietateek daukatenak.

4gn. Gutierrez ere bozkatzeko eskubideen
ehuneko 5 ematen dituztenak, partaidetza zuzen-
du eta kudeatzeko edukitzen badira, horretarako,
gauzazko eta giza baliabideen kasuan kasuko
antolamendua edukiz gero eta parte harturiko
entitate letra honetan eta hurrengo bietan agertu
ezik.

Letra honetan, a)n alegia, aurreikusiriko ondo-
rioetarako, ez dira balore gisa kontatuko, ez eta
enpresa- edo lanbide-jardueren menpe ez dauden
ondare elementu gisa ere, haien erosketa prezioa
entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbate-
koa baino gutxiago bada, baldin eta mozkin horiek
enpresa- edo lanbide-jardueren ondoriozkoak
badira, muga bai urte berean bai azken hamar
urteetan lorturiko mozkin haien zenbatekoa izan-
nen delarik.

b) Ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 75 baino
gehiago lanbide-jardueren ondorioz dauzkaten
sozietateak, baldin eta profesionalek, zuzenean
edo zeharka jarduera haien garapenari loturik
dauden pertsona fisikoek, berez edo laugarren
gradua, hori barne, arteko beren senideekin bate-
ra gutxienez ere haien mozkinen %50etan parte
hartzeko eskubidea daukatenean.

c) Ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 50 baino
gehiago pertsona fisikoen arte edo kirol jardueren
ondorioz dauzkaten sozietateak, edo artistekin
edo kirolariek loturiko beste edozein jardueraren
ondorioz ere, baldin eta haien eta laugarren gra-
dua, hori barne, arteko haien senideen artean

gutxienez ere mozkinen %25etan parte partzeko eskubidea daukatenean.

2. Inolaz ere ez da aplikagarria izanen zerga gardentasuneko araubidea gorabehera hauetako baten bat gertatzen deneko zergaldietan:

a) Sozietatearen kapitaleko partaidetzaren balore adierazgarriak erregulaturiko merkaturen batean negoziatzeko onarturik daudenean.

b) Zuzenbide Publikoko pertsona juridiko bat artikulua honetako 1. zenbakiko a) letran aipatzen diren sozietateren bateko kapitalaren ehuneko 50 baino gehiagoko titularra denean.

c) Bazkide guztiak zerga gardentasuneko araubidearen menpe ez dauden pertsona juridikoak direnean.

48. artikulua. Gardentasun araubidea. Bazkideei egozte.

1. Zerga gardentasuneko araubidean sozietate gardenek eskuraturiko likidazio oinarri positiboak haien bazkideei egotziko zaizkie, Zerga honen subjektu pasiboak baitira, Espainian egoitza badute.

2. Bazkideei egotzi beharreko oinarria Sozietateen gaineko Zergaren arauen ondoriozkoa izanen da.

Bai Administrazioaren ekintzen ondorioz, bai edozein errekurtsio motatako ebazpenaren ondorioz likidazio oinarriaren zenbatekoan dagoen edozein aldaketak berarekin ekarriko du, orobat, aldea bazkideei egozte.

Likidazio oinarri negatiboak ez dira egotziko, sozietateak jarraiko eta ondorengo zazpi urteetan bukatzen diren zergaldietan eskuraturiko zerga-oinarri positiboak gutxitu ditzaketelarik.

3. Espainiako lurraldean egoitza duten bazkideei egotziko zaizkie:

a) Sozietate gardenak Sozietateen gaineko Zergako likidazioan erabili dituen kuotako kenkari eta hobariak, egotzitako likidazio oinarri dagoen proportzio berean. Kenkariak eta hobariak bazkideen likidazioan sartuko dira, Zerga honetako berariazko arauen arabera kuota gutxituko dutelarik.

Aurreko lerroaldean esandakoa gorabehera, Foru Lege honetako 28. eta 62.8 artikuluek xedatua ezarriko zaio Espainiako lurraldean egoitza duen edozein entitateren berezko fondoetan partehartzetik ateratako etekinei dagokien ezarpen bikoitzarengatik kenkariari.

b) Sozietate gardenari dagozkion ordainketa zatituak, konturako atxikipen eta dirusarrerak.

c) Sozietate gardenak ordainduriko kuota, baita sozietate horri egotzi dion kuota ere.

Foru Lege honetako 66. artikulua c) letrak aipatzen duen muga erabiliko da b) eta c) letrata egotzetan.

4. Likidazio oinarri positiboaren egozte jasan behar dituzten bazkideei dagozkien dibidendu eta mozkinetako partaidetzek, sozietate gardentasun araubidean zegoeneko zergaldien ondoriozkoak badira, ez dute Zerga honengatik tributatu. Ondarezko balizko gehikuntza eta urripenak finkatzeko ondorioetarako, dibidendu edo mozkinetako partaidetzen zenbatekoa ez da sartuko egozten zaizkien bazkideen akzio edo partaidetzen erosketa balioan. Likidazio oinarri positiboaren egozte jasan behar duten bazkideek egotzi eta gero baloreak eskuratzen dituztenean, zenbateko horretantxe gutxituko da haien erosketa balioa.

5. Parte harturiko sozietatearen ekitaldia bukatu eta biharamunean eginen da egozketa, ixten den egunean modu etengabearen egozte erabakitzen denean ezik.

Erabakiak ondorioak sortu behar ditueneko lehen zerga-aitorpenean adieraziko da eta gutxienez ere hiru urtez eutsi beharko zaio.

49. artikulua. Parte hartzaileen identifikazioa.

Sozietate gardenek kapitaleko partaidetzen balore adierazgarriak nominatibo gisa mantendu edo nominatibo bihurtuko egin beharko dute.

Betebehar hau betetzen ez bada, Zergaren arau-hauste arintzat joko da eta 25.000tik 1.000.000 pezeta bitarteko isunarekin zehatzen ahalko da, betetzen ez deneko zergaldi bakoitzean. Sozietateko administratzaileak izanen dira erantzule solidarioak, salbu eta espreski aurreko lerroaldean aurreikusirikoa betetzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu dituztenak, gainerakoek onartu ez badituzte ere.

Artikulu honetako lehenengo lerroaldean ezarritako betebeharra ez betetzearen ondorioz, bazkide guztiak edo batzuk nor diren jakiterik ez balez, egozterik ez dagoen likidazio oinarriaren parteak, Sozietateen gaineko Zergan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako eskalako gehieneko marginalaren adinako tasarekin.

50. artikulua. Egozte eta banakatzea.

1. Egozteak sozietate gardenaren zergaldia bukatzen den egunean bazkide izaerari dagozkion eskubide ekonomikoak dauzkatenei eginen zaie,

sozietatearen estatutuen ondoriozko proportzioan eta, halakorik ezean, kapital sozialean daukaten partaidetzaren arabera.

2. azpisekzio honetako kontzeptuen banakatzeari aurreko 1. zenbakiak aipatzen dituen pertsonen eginen zaie.

2gn. azpisekzioa **Nazioarteko zerga gardentasuna**

51. artikulua. Errenten egozketa nazioarteko zerga gardentasuneko araubidean

1. Egoitza espainiar lurraldean ez duen erakunde batek lortutako errenta positiboa subjektu pasiboari egotziko zaie, errenta artikulua honetako 2. idazatian ezarritako motetako baten sartzen denean eta honakoak betetzen direnean:

a) Bakarrik edo erakunde lotuekin batera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, edo ahaidetasun loturaz, ezkontidea barne, zuzeneko edo zeharkakoa, odolkidetasunez edo ezkontzabidez bigarren mailaraino, berau barne, elkartutako beste subjektu pasiboekin batera, egoitza espainiar lurraldean ez duen entitatearen kapital, berezko fondo, emaitza edo botu eskubidean 100eko 50 edo goragoko partaidetza izatea, delako entitatearen gizarte ekitaldia ixteko egunean.

Erakunde lotu ez egoiliarren partaidetza zenbatzeko, egoitza Espainian duten pertsona edo erakunde lotuentzat zehazten den zeharkako partaidetzaren zenbatekoari begiratuko zaio.

Erantsi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa emaitzetan parte hartzearen edo, halakorik ezean, erakundearen kapital, berezko fondo, edo boto eskubidean parte hartzearen proportzioan zehaztuko da.

b) Sozietateen gaineko Zergaren izaera berbera edo antzekoa duen kargagatik, segidan doan 2. zenbakian ezarritako errenta motetakoren bati egozgarria den eta egoitza espainiar lurraldean ez duen erakundeak ordaindutako zenbatekoa, aipatu zergaren arauari jarraituz egokituko zitzaiokeenaren 100eko 75 baino txikiagoa izatea.

2. Honako iturri hauetako bakoitzetik datorren errenta positiboa baino ez da egotziko:

a) Landalurreko edo hirilurreko ondasun higiezin edo horiei dagozkien ondasun eskubideen titulartasuna, Foru Lege honetako 37. artikuluan xedatutakoaren arabera enpresa-jarduerari bati atxikita edo, Merkataritza Kodeko 42. artikuluari jarraituz, titularraren sozietate talde berekoak

diren erakunde ez egoiliarrei erabilerarako lagata egon ezean.

b) Edozein motako erakunderen berezko fondoetan partaidetza eta hirugarren batzuei berezko kapitalen lagapena, Foru Lege honetako 28 eta 29. artikuluetan aipatu eran.

Letra honetan ez da honako finantza-aktibo hauetatik datorren errenta positiborik sartuko:

a) Enpresa jarduerak burutzean sortutako lege eta erreglamenduzko betebeharrak konplizteko edukitakoak.

b) Enpresa jardueren garapenaren ondorioz finkatutako kontratuzko harremanetatik sortutako kreditu eskubideak dituztenak.

c) Balioen merkatu ofizialetan bitartekaritza jarduerak gauzatzearen ondorioz edukitakoak.

d) Kreditu erakundeek eta aseguru etxeek haien enpresa-jardueren ondorioz edukitakoak, segidako c) letran finkatutakoari utzi gabe.

Norbere kapitalak hirugarren batzuei lagatzetik ondorioztatutako errenta positiboa segidako c) letran aipatutako kreditu eta finantza jarduerak gauzatetik datorrela ulertuko da, lagatzailea eta lagapen-hartzailea, Merkataritza Kodeko 42. artikuluen arabera, sozietate talde bateko kide direnean eta lagapen-hartzailea dirusarrerak, 100eko 85 gutxienez, enpresa-jarduerak gauzatetik datozenean.

c) Kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzuak emateko jarduerak, zuzenean edo zeharka, egoitza espainiar lurraldean duten eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 28. artikuluen adieran elkar lotutako pertsona edo erakundeekin burututako esportazio jarduerekin zuzenean lotutakoak izan ezik, aipatu egoiliarren gastuak, zergetan ken daitezkeenak, zehazten dituzten heinean.

Errenta positiboa ez da kontuan hartuko dirusarreraren 100eko 50 baino gehiago kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzuak emateko jardueretatik datorrenean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 28. artikuluen adieran elkar lotu gabeko pertsona edo erakundeekin gauzatutako eragiketetatik datozen eta egoitza espainiar lurraldean ez duen erakundeak burututako esportazio jarduerekin zuzenean lotutakoak izan ezik.

d) Ondare gehikuntza eta urripenak eragiten dituzten aurreko a) eta b) letretan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketak.

Aurreko a), b) eta d) idazatietan ezarritako eta erakunde ez egoiliarrek lortutako errentak ez dira kontuan izanen honek, zuzenean edo zeharka, 100eko 5 baino gehiagoko partaidetza duen erakundeetatik etorri edo ondorioztatzen badira, honako bi betekizun hauek konplitzen direnean:

a') Erakunde ez egoiliarrek partaidetzak zuzendu eta kudeatzea, bitarteko material eta pertsonalen antolaketaren bitartez.

b') Errentak lortzen direneko erakundearen diru-sarrerak, 100eko 85 gutxienez, enpresa-jarduerak gauzatzearen ondoriozkoak izatea.

Horretarako, jatorria aurreko b') letraren betekizuna konplitzen duten erakundeetan izan eta, zuzenean nahiz zeharka, 100eko 5 baino gehiagoko erakunde ez egoiliarren partaidetza duten a), b) eta d) letretan ezarritako errentak enpresa-jarduerak gauzatzearen ondoriozkoak direla ulertuko da.

3. Aurreko idazatik a), b) eta d) letretan ezarritako errentak ez dira egotziko, zenbatekoen batura errenta osoaren 100eko 15 edo erakunde ez egoiliarren dirusarrera osoen 100eko 4 baino txikiagoa denean.

Aurreko lerroaldean finkatutako mugek egoitza espainiar lurraldean ez duten eta Merkataritza Kodeko 42. artikulua adieran sozietate talde bateko kide diren erakundeek lortutako errenta edo dirusarrerak kontuan hartu ahal izanen dituzte.

Inola ere ez da erakunde ez egoiliarren errenta osoa baino handiagoa den kopurua egotziko.

Pertsona fisikoa egoiliarren zerga-oinarrian ez da sozietate ez egoiliarrek ordaindutako Sozietateen gaineko Zergaren berdina edo antzekoa den zergarik egotziko txertatu beharreko errentaren zatian.

Bigarren zenbakian aipatu iturri bakoitzetik datozen errenta positiboak zerga-oinarriaren zati orokorrari egotziko zaizkio, Foru Lege honetako 53. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4. Espainiako lurraldean egoitza izan eta 1. zenbakiko a) letran sartzen diren pertsona fisikoak egotzeta egin beharko dute, betiere egoiliarra ez den erakundearen zuzenean parte hartzen badute edo egoiliarrek ez diren beste erakunde baten edo batzuetan zeharka parte hartzen badute. Azken kasu horretan, errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzari dagokiona izanen da.

5. Espainian egoitza ez duen entitateak bere ekitaldi soziala bukatua daukaneko eguna duen

zergaldian eginen da egotzeta. Ondorio horietarako, ez du hamabi hilabete baino gehiagoko iraupena izaten ahalko, salbu eta subjektu pasiboak sartzeari ekitaldi hartako kontuak onesten direneko eguna daukan zergaldian egitea erabakitzen duenean, baldin eta bukatu zenetik sei hilabete baino gehiago pasa ez badira.

Ondorioak izan beharko ditueneko lehen zerga-aitorpenean adierazi beharko da erabakia eta hiru urtez eutsi beharko zaio.

6. Zerga-oinarrian egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa Sozietateen gaineko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legean eta Zerga honi buruzko gainerako xedapenetan zerga-oinarria zehazteko ezarritako hatsapen eta irizpideen arabera kalkulatu da. Guztirako errentatzat joko da irizpide eta hatsapen horiek berak aplikatzearen ondoriozko zerga-oinarriaren zenbatekoa.

Ondorio horietarako, Espainian egoitza ez duen entitatearen ekitaldi soziala ixtean indarra duen truke tasa erabiliko da.

7. Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak ez dira egotziko, zerga-oinarrian sartu den errenta positiboari dagokionean. Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Erreserba banaketaren kasuan, sozietatearen erabakiko izendapena hartuko da kontuan, ulertuko delarik erreserba horiei ordainduriko azkeneko diru kopuruak aplikaturik daudela.

Errenta positibo bera bakarrik behin egotzen ahalko da, edozein delarik haren forma eta agertzen deneko entitatea.

8. Zergaren kuota osotik kendu ahal izanen da dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak banatzeagatik atzerrian benetan ordainduriko zerga edo zama, bai zergak bi aldiz ordaintzea saihesteko hitzarmenaren arabera, bai kasuan kasuko estatu edo herrialdeko barneko legediarekin bat, zerga-oinarrian aurretik sarturiko errenta positiboari dagokionean.

Zergak sarrera gauzatu zeneko zergaldi berekoak ez izanagatik ere, kenkaria burutu eginen da

Erregelamendu bidez zerga-paradisutzat jotzen diren estatu edo herrialdeetan ordainduriko zergei ez zaie behin ere kenkaririk eginen.

Kenkaria ez da zerga-oinarrian sarturiko errenta positiboagatik ordaindu behar den kuota osoa baino gehiago izaten ahalko.

9. Partaidetzaren eskualdaketaren ondoriozko errenta kalkulatzeko, partaidetza zuzeneko edo

zeharkakoa dela ere, Foru Lege honen 43. artikuluko 1. idazatiaren c) letran jasotako erregelak erabiliko dira, zerga-oinarriaren egotzitako errenta positiboari buruzkoan. Delako xedapenean aipatzen diren gizarte onurak egotzitako errenta positiboari dagozkionak izanen dira.

10. Espainian egoitza ez duen entitateari buruzko datu hauek aurkeztu beharko dituzte artikuluko honetan aurreikusia aplikatu dakiekeen subjektu pasiboek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitopenearekin batera:

a) Izena edo arrazoi soziala eta helbide sozialerako tokia.

b) Administratzaileen zerrenda.

c) Gal-irabazien balantze eta kontua.

d) Egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.

e) Egotzi beharreko errenta positiboari buruz ordainduriko zergen justifikazioa.

11. Parte harturiko entitateak zerga-paradisutzat jotzen den estatu edo herrialde batean egoitza duenean, ulertuko da:

a) 1. zenbakiko b) letran aurreikusiriko gorabehera betetzen dela.

b) Parte harturiko entitateak lorturiko errenta 2. zenbakian aipatzen diren errenta iturrietatik datorela.

c) Parte harturiko entitateak lorturiko errenta partaidetzaren erosketa balioaren ehuneko 15koa dela.

Aurreko letretan aipatzen diren irizpideek kontrako frogak onartuko dituzte.

Aurreko letretan aipatzen diren irizpideak ez dira aplikatuko parte harturiko entitateak, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aurreikusirikoarekin bat, bere kontuak bateratzen dituen sartzeara egitera beharturiko entitatearen batekin edo batzuekin.

3gn. azpisekzioa

Talde inbertsioko erakundeak

52. artikulua. Talde inbertsioko erakundeetako bazkideen edo partaideen zerga-ordainketa.

1. Talde inbertsioko erakundeak arautzen dituen abenduaren 26ko 46/1984 Legeak eraerandutako talde inbertsiorako erakundeetako bazkide edo partaide diren zergadunek, hurrengo errentak egotziko dizkiete zerga-oinarriaren zati orokor edo bereziari, Foru Lege honetako arauetan xedaturekin bat:

a) Akzio edo partaidetzen eskualdatzetik edo partaidetzen errenboltsotik ateratako ondare gehikuntzak eta urripenak. Balore homogeenok direnean, zergadunak eskualdatu edo errenboltsatzat joko dira lehenago erosi zituenak.

b) Talde inbertsioko erakundeek banatutako emaitzak. Horiek inoiz ez dute eskubiderik ematen Foru Lege honetako 62. artikulua aipatzen duen ezarpen bikoitzagatik kenkaria izateko.

Hala ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50. artikulua erabaki duen karga-tasa orokorra ezar dakiekeen higikoretako eta higiezinetakoinbertsioko sozietateetarik heldu diren dibidenduei ere aplikatu ahal zaie aipatu kenkaria.

2. Erregelamenduz zerga-paradisua gisa sailkatuturiko herrialde edo lurraldeetan eraturakoinbertsio kolektiboko entitateetan parte hartzen duten subjektu pasiboek, beren partaidetza horrek zergaldia amaitzen egunean duen balio likidatzailearen eta erosketa balioaren arteko diferentzia positiboa egotziko diete zerga-oinarriaren zati orokorrari, Foru Lege honetako 53. artikulua aurreikusitakoaren arabera.

Egotzitako kopurua erosketa balio handiagoa dela iritziko da.

Talde inbertsioko entitate horiek banatzen dituzten mozkinak ez dira egotziko, partaidetzaren erosketa balioa gutxituko dute eta ez dute ezarpen bikoitzagatik kenkarirako eskubiderik sortuko.

Zenbaki honetako lehen lerroaldean jasotzen den diferentzia, kontrako frogarik ezean, akzioaren edo partaidetzaren erosketa balioaren 100eko 15 dela iritziko da.

III. KAPITULUA

Errenten integrazioa eta konpentsazioa.

53. artikulua. Zati orokorra.

Zerga-oinarriaren zati orokorra subjektu pasiboaren errenta osoak osatzen du, hurrengo artikuluan jasotzen diren ondare gehikuntzak eta urripenak kontuan hartu gabe. Zerga-oinarriaren zati orokorra osatzen dute:

a) Etekin eta errenta egozketak, zergaldi bakoitzean beraien artean eta inolako mugarik gabe, elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldoak.

b) Zergaldi bakoitzean, hurrengoak beraien artean bakarrik eta elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboak: ondasun edo eskubideen ondare aldaketan ondo-

rioz azaleratutako ondare gehikuntzak eta urripenak, baldin eta ondasun edo eskubide horiek aldaketa gertatu baino gehienez urte bete lehena-go eskuratu badira; orobat, harpidetze-eskubideen ondare aldaketen ondorioz azaleratutakoak, baldin eta antelazio berarekin eskuratutako baloreetatik badatoz. Integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa izanen balu, zenbatekoa konpentsatu ahal izanen da letra honetan jaso eta hurrengo lau urteetan gerta daitezkeen ondare gehikuntzen saldo positiboarekin.

Kompentsazioa hurrengo ekitaldietako bakoitzean egin ahal izanen den kopuru gehienekoan eginen da eta, bidez batez, aurreko lerroaldean aipatzen den lau urteko epearen barruan egin beharko da, ondorengo urteetako ondare urripenak bailiran jasoz.

54. artikulua. Zati berezia.

Zerga-oinarriaren zati orokorra saldo positibo batek osatuko du; hain zuzen ere, zergaldi bakoitzean, hurrengoak beraien artean bakarrik eta elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboak: ondasun edo eskubideen ondare aldaketen ondorioz azaleratutako ondare gehikuntzak eta urripenak, baldin eta ondasun edo eskubide horiek aldaketa baino urte bete beranduago eskuratu badira; orobat, harpidetze-eskubideen ondare aldaketen ondorioz azaleratutakoak, baldin eta antelazio berarekin eskuratutako baloreetatik badatoz.

Integrazio eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa izanen balu, zenbatekoa, artikuluhonek aipatu eta hurrengo lau urteetan zehar azaleratzen diren ondare gehikuntzen bidez konpentsatu ahal izanen da bakar bakarrik.

Kompentsazioa hurrengo ekitaldietako bakoitzean egin ahal izanen den kopuru gehienekoan eginen da eta, bidez batez, aurreko idazatian aipatzen den lau urteko epearen barruan egin beharko da, ondorengo urteetako ondare urripenei gehituz.

IV. KAPITULUA **Oinarri likidagarria.**

55. artikulua. Oinarri likidagarri orokorra.

Zerga-oinarri orokorrari hurrengo murrizpenak bakarrik aplikatu ondoren ateratzen den kopurua izanen da oinarri likidagarri orokorra:

1. Mutualitateei, pentsio planei eta sistema alternatiboei egindako aportazioengatik:

1go. Pentsio planetako partaideek egindako ekarpenak, sustatzaileek plan horietara edo maizatzen 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikulua

dakartzan gizarte-aurreikuspen sistema alternatiboetara egindako ekarpenak barne, laneko etekin kontzeptupean egotzi bazaizkie.

2gn. Gizarte Segurantzako araubideren batean integraturik ez dauden profesionalen gizarte aurreikuspenetarako mutualitateekin egindako aseguru-kontratuaren ordaindutako kopuruak badira, betiere Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legeko 8.6. artikuluan ezarritako gertakizunen ondorioak estaltzeko direnean, eta, 35. artikuluko 1. erregelari jasotzen den eran, enpresa- edo lanbide-jardueren etekin garbia zehazteko gastu kenkari gisa erabili ez direnean.

3gn. Gizarte Segurantzako edozein araubide-tan integraturik dauden profesionalen edo enpresario indibidualen gizarte aurreikuspenetarako mutualitateekin egindako aseguru-kontratuaren ordaindutako kopuruak badira, betiere Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legeko 8.6. artikuluan ezarritako gertakizunen ondorioak estaltzeko direnean.

4gn. Besteren konturako langileek edo bazkide langileek gizarte aurreikuspenetarako mutualitateekin egindako aseguru-kontratuaren ordaindutako kopuruak, sustatzaileek haien alde laneko etekin kontzeptupean ordaindu eta egotzitakoak barne, betiere maizatzen 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan xedaturikoaren arabera egin badira, aipatu bazkide langileentzako langabezia sartuz.

5gn. Aurreko 2gn. eta 4gn. idaztien bitartekotatik jasotzen diren gizarte aurreikuspenetarako mutualitateekin egindako aseguru-kontratuak, aurretik jasotako betebeharrak betetzeaz gainera, honako hauek bete beharko dituzte:

a) Aipatutako kontratu horietan urtero jarritako kopuru gehienekoak, sustatzaileek eta bazkide babesleek haiei egotzitakoak kontuan izanda, ez dute gaindituko pentsio planak eta fondoak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legeko 5.3 artikuluan aurreikusitako kopurua.

b) Mutualisten eskubide kontsolidatuak, pentsio planei dagozkionean, pentsio planak eta fondoak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legeko 8.8. artikuluan ezarritako kasuetan baino ezin izanen dira bihurtu. Aipatu eskubide kontsolidatuak bestelakoetan erabiliz gero, zergadunak bere aitortzearen sartu beharko ditu lan-etekin gisa jasotako kopuruak

c) Jasotako prestazioek bere osotasunean Zerga ordainduko dute, eta ezin izanen dira inoiz kendu artikuluhonetan azaltzen diren zerga-oinarriaren murrizpen mugetatik gorako kontribuzioei

legozkiekeen kopuruak. Alabaina, maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 73. artikulua c) letran ezarritako erregelak aplikatu ahal izanen da.

6gn. Aurreko idazatietan jasotzen diren murrizpenen kopuru gehieneko eta muga, ondoren finkatzen diren kopuruetako txikiena izanen da:

a) Norberak ekitaldian zehar jasotako laneko etekin garbien, eta enpresa- edo lanbide-jarduere-takoen batuketaren 100eko 20a.

Ondorio hauetarako, enpresa- edo lanbide-jardueren etekin izanen dira, 47. artikuluko, 1. zenbakiko b) eta c) letretan arautzen diren sozietate gardenek beren bazkideei egotzitako errentak, beren jardura sozietate horietan profesional gisa, artista edo kirolari gisa burutzen dituzten bazkideei egotzitakoak direnak.

b) 1.100.000 pezeta urtean.

2. Pentsio konpentsagarriengatik.

Kontzeptu horrengatik ezkontideari emandako zenbatekoak eta urteko mantenuagatikakoak, biak ere epailearen aginduz ezarritakoak, zergadunaren seme-alaben alde jarritakoak salbu.

3. Gutxiengo pertsonalarengatik.

Subjektu pasibo bakoitzeko 550.000 pezeta.

4. Artikulu honetan aipatzen diren murrizketak hurrengo erregelen arabera egingen dira:

1go. Lehen eta bigarren zenbakietan ezarritakoak aplikatuko dira lehenbizi.

2gn. Emaitza positiboa bada, 3. zenbakian ezarritakoa aplikatuko da, mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Emaitza negatiboa bada, 3. zenbakian ezarritako murrizketa aplikatu litzazioke zerga-oinarriaren zati bereziari, negatibo bihurtu gabe ere.

56. artikulua. Oinarri likidagarri negatiboaren zati orokorraren konpentsazioa

1. Hura kalkulatzeko arauak erabili ondoren oinarri likidagarri orokorra negatiboa aterako balitz, zenbatekoa hurrengo lau urteetan izan daitezkeen oinarri likidagarri positiboaren zati orokorra-ekin konpentsatu ahal izanen da.

2. Konpentsazioa ondorengo urteetako bakoitzak ahalbidetzen duen kopuru gehienekoan egin behar da eta ezin izanen da aurreko zenbakian aipatzen den epetik at egin, ondorengo urteetako oinarri likidagarri negatiboaren zati orokorrari meta-tuz.

57. artikulua. Oinarri likidagarri berezia

Oinarri likidagarri berezia ateratzeko, zerga-oinarriaren zati bereziari aplikatuko zaio 55. artikulua- ren 4. zenbakiko 2. erregelari aipatzen den murrizketa, hala egokitzen bada.

IV. TITULUA Tributu kuota.

I. KAPITULUA Kuota osoa

58. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren kuota osoa Foru Lege honen 59. eta 60. artikuluetan finkatzen diren karga tasak aplikatu ondoren ateratzen diren zenbatekoen batura izanen da.

59. artikulua. Oinarri likidagarri orokorraren karga tasa.

1. Oinarri likidagarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:

Oinarri likidagarri orokorra, pezetaraino	Batez besteko tasa (portzentaia)	Kuota osoa (pesetatan)	Oinarri likidagarriaren gainerakoa	Tasa aplikagarria (portzentaia)
			200.000	15
200.000		30.000	250.000	18
450.000	7,50	75.000	1.000.000	23
1.450.000	15,25	305.000	1.000.000	25
2.450.000	18,50	555.000	2.000.000	28
4.450.000	22,30	1.115.000	2.000.000	37
6.450.000	26,50	1.855.000	3.000.000	41
9.450.000	30,85	3.085.000	resto	47

2. Aurreko idazatian xedatutakoa aplikatu ondoren egokitzen den kuota oinarri likidagarri orokorrarekin zatitu ondoren ateratzen den zatidura ehunekin biderkatuz ateratzen den kopurua izanen da, batez besteko karga tasa orokorra. Batez besteko karga tasa bi hamarrenekin emanen da.

3. Legezko banantzearen edo dibortzioaren ondorioz, epaileen erabakiz urteko mantenurako ordainketak egiten dituzten subjektu pasiboek, haien zenbatekoa oinarri likidagarri orokorra baino gutxiago denean, 1. zenbakian aurreikusitako eskala aplikatuko diete

alde batetik mantenuarengatik urteko ordainketen zenbateko osoari

eta bestetik oinarri likidagarri orokorraren gainerakoari.

60. artikulua. Oinarri likidagarri orokorraren karga tasa.

Oinarri likidagarri orokorraren karga tasa honek kargatuko da:

Ondoko batez besteko tasetatik handiena hartuko da:

a) Oinarri horren 100eko 50ari karga tasaren eskala aplikatzearen emaitza den babez besteko tasa.

b) Foru Lege honetako 59. artikuluko 2. zenbakian zehaztutako batez besteko karga tasa.

Aipatu batez besteko tasa, 25 baino gehiago ezin izan dena izan, tasa hori zati 25 egin eta ateratzen den zatidurarekin biderkatuko da.

Era horretara lorturiko zenbatekoa oinarri likidagarri orokorrari aplikagarri zaion karga tasa izanen da.

Aurreko lerroaldeak aipatzen duen karga tasa 100eko 20 baino gehiago bada, portzentaia hori aplikatu ahal izanen da, baldin eta ondare-gehiakuntzak ekartzen dituzten ondare elementuen kostubidezko besterentzearen ondorioz lortu den zenbatekoa ondoko baldintzak betez berrinbertitzen bada:

1go. Berrinbertsioa Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 10, 11, 13, 15 eta 16. artikuluek aipatzen dituzten ondare-elementuetan egin beharko da, besterentzea egin eta hiru hilabeteko epean, edo epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketen kasuan kobrantzaren egunetik hiru hilabeteko epean.

2gn. Berrinbertsioa gauzatzen den ondare elementuek subjektu pasiboaren ondarean iraun

beharko dute gutxienez bi urtez. Ez da ulertuko baldintza hori betegabe dagoela aipatu elementuen kostubidezko eskualdaketak aipatu epea bukatu aurretik egin eta lortutako zenbatekoa aurreko idazatian ezarritako moduan berrinbertitzen bada, aipatu bi urteko epea osatu arte.

3gn. Berrinbertsioa dokumentuen bidez justifikatu beharko da Zergaren aitortpena aurkezten den unean.

Zatikako berrinbertsioa egiten bada, 100eko 20ko tasarekin kargatuko den oinarri likidagarria lortzeko inbertitutako guttizkoak besterentzearen guttizkoaren gainean zein proportzio duen, horixe aplikatuko zaio.

Zenbaki honetan ezarritako beharkizunak betetzen ez baditu, subjektu pasiboak murrizketaren xede izan den kuota osoaren dirusarrera egin beharko du, bai eta berandutze-korrituak ere, ez betetze hori gertatu zen zergaldiari dagokion zergaren aitortpena aurkezteko unean.

II. KAPITULUA. Kuota likidoa.

61. artikulua. Kuota likidoa.

1. Kuota likidoa ondoko artikuluan ezarritako kenkarien zenbatekoa kuota osoari aplikatu ondoren ateratzen den kopurua izanen da.

62. artikulua. Kuota-kenkariak

1. Kenkari familiarrak

a) Subjektu pasiboarekin bizi den ahaide ezkongabe bakoitzagatik honako kenkari hau aplikatuko da:

37.000 pezeta lehenengoagatik

47.000 pezeta bigarrenagoagatik

57.000 pezeta hirugarrenagoagatik

67.000 pezeta laugarrenagoagatik

77.000 pezeta bosgarrenagoagatik eta ondorengo bakoitzagatik

Ez da kenkarik izan den ondorengo egoeraren batean dagoen ahaide bakoitzarengatik:

– Zergaren sortzapena baino lehen hogeita hamar urte baino gehiago dituenengatik, zenbaki honetako d) letran jasotzen den salbuespena salbu.

– Dagokion zergaldian, eta urte horretan, lanbidearteko oinarrizko soldatetik gorako errentarik dutenengatik.

Ondorengo ahaideren bat maila bereko aurreko ahaide batzuekin bizi denean, kenkaria zati berdinean hainbanatuko da aurreko bakoitzaren aitorpenean.

Ahaidetasun maila desberdina duten aurreko ahaideekin bizi diren ondorengoko ahaideen kasuan, gertueneko mailako ahaideek soilik izanen dute kenkaria izateko eskubidea. Hurbileneko ahaideen artean inork ez badu dagokion zergaldiaren garaian eta urteko lanbidearteko oinarritzko soldatetik gorako errentarik, kenkaria urruneko mailako ahaideek aplikatzeko aukera izanen dute.

Letra honetan ezarritakoa aplikagarria izanen zaie ere, beharkizun eta baldintza berdinetan, aplikagarri den legedian ezarritako terminoetan egindako tutoretza kasuei, bai adopzio eta harrera kasuei ere.

b) Subjektu pasiboarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzeko, haren urteko errentak, salbuetziak barne, kasuan kasuko zergaldian lanbide arteko gutxieneko lansaria gainditzen badu: 16.000 pezeta.

Aurreko horien famili unitatearen urteko errentak, salbuetziak barne, gutxieneko lansari horren halako bi baino gehiagokoak ez badira, kenkaria 16.000 pezetakoa izanen da aurretiko bakoitzeko.

Aurreko ahaideak subjektu pasibo bat baino gehiagorekin bizi baldin badira, kenkaria hainbana burutuko da bakoitzaren aitorpenean. Seme-alabek ez dute kenkaria burutzen ahalko beren gurasoek horretarako eskubidea baldin badute.

c) Hirurogeita bost urte edo gehiagoko subjektu pasibo bakoitzeko: 16.000 pezeta.

d) Erregelamendu bidez ezartzen den graduaren ezinduak direnean, subjektu pasibo bakoitzeko eta, kasuan kasu, haren eskuko ondorengo bakoitzeko, edozein adinetakoa izanik eta betiere azken horren urteko errentak, kasuan kasuko zergaldian, hemezortzi urtez goitikoendako bermatzen den profesio arteko lansari minimoa baino gutxiagokoak badira, arestiko letretan xedatutakolari jarraituz bidezko diren kenkarietz gain: 75.000 pezeta.

Halaber, kenkari hau aplikatzea bidezkoa izanen da ezintasunak jota dagoen lagunak subjektu pasiboarekin zenbaki honen a) letrak jorratzen dituen seme-alabatzat edo etxean hartzeko harremanak dituenen, baldin eta d) letra honetako arestiko lerroaldean errenta mailari eta ezintasun graduari buruz aipatzen direnak gertatzen badira.

Kenkari honetarako eskubidea ematen duten pertsonak subjektu pasibo bat baino gehiagoren

esku baldin badaude, kenkaria haien artean hainbanatuko da.

e) Subjektu pasiboak 75.000 pezetako kenketa egin ahal izanen du hirurogeita bost urte edo gehiagoko senide bakoitzeko, baldin eta pertsona lagundutzat jota badago Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak horretarako ezarri dituen irizpide eta baremoen arabera, eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada.

Lagundutako pertsonaren ezkontideak eginen du kenketa eta, ezkontzarik ezean, graduaren arabera hurbilen duen senideak.

Gradu bereko senide bat baino gehiago izatekotan, kenketa hainbanatu eginen da.

Kenketa egiteko eskubidea duen subjektu pasiboaren urteko errentek hamazortzi urtetik gorakoei bermatzen zaien lanbidearteko gutxieneko soldata gainditzen ez dutenean, graduaren hurrengo direnei pasatuko zaie kenketa, hala bada.

Letra honetan aurreikusi den kenketa ezin izanen da erabili lagundutako pertsonak aurreko leturan esandako kenketarako eskubidea baldin badu. Pertsona lagundutzat jotzea eta subjektu pasiboarekin bizitzea egiaztatu egin beharko dira Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak urtero emandako ziurtagiriarekin.

2. Ohiko etxebizitzaren alokairuagatik kenkaria.

100eko 15a eta gehienez ere 100.000 pezeta urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

– Subjektu pasiboak ez izatea zergaldian hiru milioi eta bostehun mila pezeta baino gehiagoko errenta, salbuetziak barne.

– Alokairuagatik ordaindutako diru kopuruak subjektu pasiboaren zergaldiko errentaren 100eko 10a baino gehiagokoak izatea, salbuetziak barne.

Etxebizitza berean baterako zerga-ordainketa-rik egiten ez duten pertsona desberdinak bizi diren kasuan, aurreko lerroaldean finkatutako kenkariaren muga gehienekoa, 100.000 pezetakoa, pertsona horien guztien artean hainbanatuko da.

3. Seme-alaben zaintzaren gastuengatik kenkaria.

100eko 15a eta gehienez ere 25.000 pezeta urteko, zergaldian hiru urtez beheitik seme-alaben zaintzagatik ordaindutako diru kopuruena, gurasoak familiaren etxebizitzatik kanpo lan egi-

ten dutenean eta, betiere, subjektu pasiboaren urteko errentak bi milioi baino gehiagokoak ez badira.

4. Ohiko etxebizitzarengatik kenkaria

a) 100eko 15a, subjektu pasiboaren ohiko egoitza den edo izanen den etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik ekitaldian ordaindutako diru kopuruena. Kenkari horren oinarri gehienezkoa urteko 1.500.000 pezetakoa izanen da.

Kenkaria aplikatzeko ondokoa eskatuko da:

1go. Ohiko egoitza, segidako hiru urteren barnean subjektu pasiboa bizi deneko etxebizitza izanen da. Hala ere, etxebizitzak izakera hori izan zuela ulertuko da nahiz epe hori ez iragan etxebizitza aldatzera nahitaez behartzen duten ingurua-barrak gertatzen badira.

2gn. Subjektu pasiboa etxebizitza benetan bizitzea eta etengabea hamabi hilabetez, etxebizitza erosi eta obrak bukatzen ziren egunetik kontatzen hasita. Hala ere, subjektu pasiboak ohiko etxebizitza badu daukan kargu edo enpleguarengatik, epe hori kargu uztearen egunetik hasiko da kontatzen.

Kreditu entitateetan, erregelamendu bidez ezartzen diren formalizazio eta dispozizio baldintzak betetzen dituzten kontuetan, uzten diren kopuruak izanen dira ohiko egoitza den edo izanen den etxebizitza erosi edo zaharberritzen erabilitzat jotzen direnak, baldin eta ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeko erabiltzen badira.

Kenkari honen oinarria etxebizitza erosi edo zaharberritzeko ordaindutako diru kopuruek osatuko dute, eroslearen kargu sortu diren gastuak barne. Erosketa edo zaharberritzea kanpoko kapituluekin finantziatu badira, kenkariaren oinarria printzipala, korrituak eta finantziazioaren gaineko gastuak amortizatzeke eman diren zenbatekoa izanen dira, kenkari honen eraginetarako zenbatu daitezkeen kapitalei dagokien zatian.

Ondorio horietarako, zaharberritzea ondokoa betetzen duena da:

a') Bizileku eta hiri ondarearen zaharberritzearen babespenari dagokionez legez eska daitezkeen baldintzak bete beharko ditu, baldin eta organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez bermatzen bada hori.

b') Etxebizitza egitura, aurreko aldea, estaldu-
ra edo antzekoak sendotuz eta tratatuz berreraikitzeke xedea duen obra, baldin eta lanen kostu osoak ehuneko hogeita bostean gainditzen badu erosketaren prezioa, betiere erosketa hori lanak hasi aurreko bi urteetan burutu bada, edo, beste-

la, lanen kostu osoak etxebizitzak zaharberritu baino lehen zeukan egiazko balioa gainditzen badu.

b) Ohiko etxebizitza bat erosten denean lehenago beste ohiko etxebizitza batengatik kenkaria eskuratu bada, ezin izanen da kenkaria aplikatu berria erosi edo zaharberritzeagatik, baldin eta berri horretan inbertitzen diren zenbatekoek ez badute gainditzen aurrekoetan inbertitutakoak, kenkariaren xede izan ziren neurrian.

Ohiko etxebizitza baten salmentak berrinbertitzeagatik salbuetsitako ondare gehikuntzarik sortuko balu, berria erosi edo zaharberritzeagatik kenkariaren oinarriari kargatu ez den gehikuntzaren zenbatekoa kenduko zaio. Kasu honetan, ezin izanen da kenkaria egin ohiko etxebizitza berria erosteagatik, horretan inbertituriko zenbatekoek ez badute gainditzen alde batetik aurrekoaren prezioa, kenkariaren xede izan den neurrian, eta bestetik berrinbertisioagatik salbuetsia dagoen ondarearen gehikuntza.

Aurreko bi lerroaldeetan adierazitako ingurua-barrak ematen badira, ezarritako mugak ondoz ondo aplikatuko dira.

Aurreko lerroaldeetan ezarritakoa a) letran ezarritakoaren arabera kreditu entitateetan uzten diren zenbatekoei aplikatu ahal izanen zaie.

c) Ohiko etxebizitza edo etxebizitzak erosi edo zaharberritzeagatik egindako kenkariari dagozkien oinarrien zenbateko osoak ezin izanen du 15.000.000 pezetako zenbatekoa gainditu subjektu pasiboaren zergaldiak batera hartuz gero.

d) Zenbaki honetan xedatutakoaren eraginetarako, zergak aitorten bateratua eginez ordaindu diren zergaldietan ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik egindako kenkariari dagozkien oinarriak, kenkarirako eskubidea sortu zuten subjektu pasiboek egindakotzat hartuko dira.

5. Kenkariak enpresa- edo lanbide-jardueretan.

Zerga honen subjektu pasiboei, enpresa- edo lanbide-jardueretan aritzen badira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauetan enpresari inbertsiorako ezarriarik edo ezartzeko dauden bultzagarri eta pizgarriak aplikatzen ahalko zaizkie, kenkariaren portzentaia eta mugak berdinak direlarik.

Hala ere, pizgarri horiek, erregelamendu bidez hala ezartzen denean baizik ez zaizkie aplikatzen ahalko zerga-oinarrien zenbatespen objektiboaren araubidearen menpeko subjektu pasiboei, araubide horren ezaugarri eta beharkizun formalak kontuan harturik.

6. Dohaintzengatiko kenkariak.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitakoak.

7. Lanarengatiko kenkariak.

Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek 95.000 pezeta kendu ahal izanen dituzte.

Zenbaki honetan aurreikusitako kenkariaren zenbatekoak ezin izanen du gairitu 59. artikuluko 2. zenbakiak aipatzen duen batez besteko karga tasa zergapeturiko lanaren etekin garbiei aplikatzearen emaitza.

8. Dibidenduengatiko kenkaria.

Foru Lege honetako 28. artikulua 1. zenbakiak aipatzen dituen etekinek, fondo berekietan parte hartzeagatik eskuratutakoek, ondoko zenbatekoa izanen duen kenkari baterako eskubidea sortuko dute: aipatu artikulua 2. zenbakian ezarritakoari jarraituz, zerga-oinarrian integraturiko zenbatekoari lorturiko etekin osoa kendu eta ateratzen den emaitza.

Kenkari honen gehienezko muga dibidenduak zerga-oinarrian integratzearen ondoriozko kuota osoaren zenbatekoa izanen da.

Ezarpen bikoitzarengatiko kenkaria, babestuta eta bereziki babestutako kooperatiben itzulketei dagozkienak eta ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeaz araututakoak, Foru Lege horren 34. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingen da.

Kuota likidoa aski ez delako aplikatu ez den kenkariaren zenbatekoa ondoko lau urteetan kendu ahal izanen da.

9. Interes kultureleko ondasunengatiko kenkaria.

a) 100eko 15a, Interes Kultureleko Ondasunen Erregistro Orokorrean jasota dauden ondasunak erosten egindako inbertsioena, betiere ondasuna titularraren ondarearen barnean baldin badago gutxienez hiru urtez eta eskualdatzea Interes Kultureleko Ondasunen Erregistro Orokor horri jakinarazten baldin bazaio, gai honi buruzko berariazko arauetan xedatutakoari jarraituz.

b) 100eko 15a, aitzineko letran ezarritako baldintzak betetzen dituzten ondasunen kontserbazio, konpontze, zaharberritze, hedapen eta erakuste gastuen zenbatekoarena, fiskalki kentzen ahal diren gastutzat jotzen ahal ez diren aldetik, kasuan kasu bidezko den etekin garbia zehaztekoan.

63. artikulua. Frogagiriak.

Aurreko artikulua aipatzen dituen kenkariak, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan frogatu beharko dira.

64. artikulua. Halako kenkari batzuen muga.

1. 62. artikuluko 6. zenbakian aipatzen diren dohaintzengatiko kenkariaren oinarria, gehienez ere zorpekoaren likidazio-oinarriaren 100eko 10a izanen da.

2. Enpresa edo lanbide jardueren kenkariaren mugak, 62. artikuluko 5. zenbakian aipatzen dituenak, 61. artikulua aipatzen duen kuota likidoari aplikatuko zaizkio.

3. 62. artikuluko 9. zenbakiak aipatzen dituen interes kultureleko ondasunetako kenkariaren oinarria ezin izanen da zorpekoaren oinarri likidagarriaren 100eko 20 baino gehiago izan.

65. artikulua. Ondarearen egoera frogatzea.

62. artikuluko 4 eta 9.a) zenbakiek aipatzen dituzten kenkariaren aplikazioak subjektu pasiboak zergaldiaren bukaeran duen ondarearen balio frogatuak gutxienez hasieran frogatutakoa baino handiagoa izan beharko du, egindako inbertsioen zenbatekoari dagokionez. Ez dira zenbatuko korrituak eta finantziarioaren gainerako gastuak.

Horretarako, ez dira zenbatuko zergaldiaren bukaeran subjektu pasiboaren ondarearen barnean jarraitzen duten ondare elementuengatik zergaldiaren barnean izan diren gehikuntzak edo urripenak.

III. KAPITULUA

Kuota diferentziala.

66. artikulua. Kuota diferentziala.

Kuota diferentziala honako kopuru hauetan kuota likidoa gutxitzearen emaitza izanen da:

a) Hurrengo artikuluan aurreikusten den nazioarteko ezarpen bikoitzagatiko kenkaria.

b) Foru Lege honetan eta erregelamenduzko garapen arauetan ezarritako atxikipean, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak.

c) Zerga gardentasuneko araubidearen eraginpean dauden entitateek Sozietateen gaineko Zergaren bidez ordaindutako kuotak, bai eta entitate horiei egotzi zaizkion kuotak ere. Kuota horiek eta haiei dagozkien egotzitako konturako ordainketek hau izanen dute gehienezko muga: Foru Lege honetako 59. artikuluko 2. zenbakiak aipatzen duen batez besteko karga tasa egotzitako oinarri likidagarriari aplikatzearen emaitza.

d) Foru Lege honetako 51. artikulua 8. zenbakiak aipatzen dituen kenkariak.

67. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitzagatiko kenkaria.

Subjektu pasiboaren errenten artean atzerrian erdietsi eta kargatutako etekin edo gehikuntzak daudenean, kuota likidoari ondoko zenbatekoetako txikiena kenduko zaio:

a) Etekin edo ondare gehikuntza horien gainean izaera pertsonaleko kargaren kariaz atzerrian egiazki ordaindutakoaren zenbatekoa.

b) Likidazio-oinarrian atzerrian kargatutako zatiari 59. artikuluko 2. zenbakiak aipatzen duen batez besteko karga-tasa aplikatzearen emaitza.

V. TITULUA Zerga-zorra.

68. artikulua.

Zerga-zorra

1. Zerga-zorra zerga-kuotak osatuko du eta, kasuan kasu, errekarquek, berandutza korrituek eta diru zehapenek ere bai.

2. Subjektu pasiboak beharturik egonen dira zerga-zorra ordaintzera.

69. artikulua. Subjektu pasiboaren ondare erantzukizuna.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagozkion zerga-zorrak, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Bildumako 84. legeak eta Kode Zibilarren 1.365 artikulua aipatzen dituzten beste horien gisakotzat hartuko dira; hortaz, konkista-ondareek eta irabazpidezkoek, hurrenez hurren, zuzenean erantzun beharko dute Nafarroako Ogasun Publikoaren aitzinean ezkontideetarako batek hartutako zor horiengatik.

VI. TITULUA Baterako zerga-ordainketa

70. artikulua. Baterako zerga-ordainketarako aukera.

Famili unitate bat osatzen duten pertsona fisikoek, edozein zergalditan, Zerga batera ordaintzeko aukera dute, Zergari buruzko arau orokorrei eta titulu honen xedapenei jarraituz.

71. artikulua. Famili unitatearen kontzeptua.

Zerga honen eraginetarako, ondokoak dira famili unitateak:

1go. Legez berezita ez dauden senar-emazteek eta, halakorik badago, adin txikiko seme-alabek _aita-aimen baimenez haiengandik aparte bizi

direnak izan ezik_ eta judizialki ezgaitutako adin nagusiko seme-alabek, luzatu edo birgaitutako guraso-ahalgopean daudenek osatutakoa.

2.gn. Halaber, legezko banantzea ematen denetan edo ezkontza-loturarik ez dagoenean, famili unitatea gurasoetako batek eta seme-alaba guztiek osatzen dutena izanen da, norekin bizi diren alde batera utzita, baldin eta aurreko idaztiko baldintzak betetzen badituzte.

Inor ezin izanen da aldi berean bi famili unitateren partaide izan.

Famili unitateko kideen zehazpena urte bakoitzeko abenduaren 31ko egoera kontuan izanik burutuko da. Hala ere, urtean zehar famili unitateko kiderik zenduz gero, famili unitateko kideek baterako zerga-ordainketa aukeratu ahal izanen dute, delako aitorpenean zenduaren errentak ere jasoz.

Aukera hori ez da bidezkoa izanen ezkontideetako bat hil eta urtea bukatu baino lehen ezkontide aurrerabizitziarra ezkontzen bada.

72. artikulua.

Egindako aukera gauzatzea

1. Baterako zerga-ordainketa aukeratuz gero, famili unitatearen kide guztiak sartu behar dira bertan. Kide batek bakarkako zerga-ordainketa egiten badu, gainerako guztiek ere bakarka egin beharko dute.

2. Zergaldi baterako aukera bat gauzatzen hasiz gero, ondoren ezin izanen da zergaldi berean beste aukeretara jo, baina horrek ez du loturarik ekarriko hurrengo zergaldietarako.

3. Aitorpenik egiten ez bada, subjektu pasiboei bakarka ordainduko dituzte zergak, salbu eta kontrako iritzirik agertzen badute Administrazioak errekerimendua egiten duen egunetik hasi eta hamar eguneko epearen barrenean.

73. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren elementuak

1. Baterako zerga-ordainketan, etekinak, ondare gehikuntza eta urripenak,

eta errentaren atribuzio eta egozketak berezirik konputatu egiten dira; alegia, famili unitatearen subjektu pasibo bakoitzari berea.

Ondorio hauetarako, Zergak subjektu pasiboaren errenta- eta zerga-oinarria, likidazio-oinarria eta tributu-zorra zehaztu eta indibidualizatzeko ezarri zituen erregela orokorrak izanen dira aplikatutako direnak, kontuan hartuta titulu honetan ezartzen diren espezialitateak.

2. Famili unitateko kide bat edo batzuen ondare urripenak eta likidazio-oinarri erregular negatiboak, beste kideen errenta positiboekin konpentsatuko dira, Foru Lege honen III. tituluan ezarritako konpentsazio-erregelak aplikatuz. Konpentsazioa errenta-zati bakoitzaren zenbatekoaren arabera burutuko da, handienetik txikienera.

3. Aurreko zenbakian aipatzen diren konpentsazioak egin ondotik, 59. artikuluan ezarritako Zergaren tarifa eta 60. artikuluan aurrikusitako karga-tasa berezirik aplikatuko zaizkie famili unitateko subjektu pasibo bakoitzaren likidazio-oinarri orokorrari eta bereziari, haietako bakoitzaren kuota indibiduala ateratzeko.

Kuota indibidual horien baturak famili unitatearen kuota osoa emanen digu.

4. Famili unitatearen kuota osoa kalkulatu ondotik, azken horretan aplikatuko dira Foru Lege honen 62 eta 66. artikuluetan ezarrita dauden eta subjektu pasibo bakoitzaren banakako tributazioari dagozkion kenkariak, famili unitatearen kuota likidoa eta kuota diferentziala zehaztu ahal izateko.

5. Famili unitate bateko pertsona fisikoak, titulu honetan erregulatutako zerga-ordainketa mota aukeratzeko badute, Zergari atxiki beharko zaizkio batera eta modu solidarioan subjektu pasibo gisa, tributu-zorra elkarren artean hainbanatzeko eskubidea deusetan galarazi gabe, haietako bakoitzari dagokion errenta atxikiaren zatiaren arabera.

74. artikulua. Kontusail negatiboen konpentsazioa.

1. Baterako zerga-ordainketan, aurreko artikuluan ezarritako arauetara jarraituz, konpentsagarriak izanen dira etekin ez-erregular negatiboak, ondare urripenak eta likidazio-oinarri negatiboak, baldin eta famili unitatea osatzen duten subjektu pasiboei burutu eta ez-kompentsatuak badira, Zerga bakarka ordaindua duten lehenagoko zergaldietan.

2. Baterako zerga-ordainketan subjektu pasibo bakoitzarentzat aparte zehazturiko kontzeptu berberak, geroago zerga-ordainketa indibiduala egiten bada, Foru Lege honetan errenten banan-banakotasunari buruz aipatzen diren erregelak kontuan harturik, bakar bakarrik dagokien haien zati izanen dira konpentsagarriak.

75. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren erregela bereziak.

Baterako zerga-ordainketaren kasuetan, ondoko erregela bereziak aplikatuko dira:

1go. 62. artikuluko 4. zenbakiko a) letran ezarritako gehieneko oinarria urteko 3.000.000 pezetakoa izanen da famili unitate osorako.

2gn. 62. artikuluko 4. zenbakiko c) letran ezarritako guztizko zenbatekoa 30.000.000 pezetakoa izanen da famili unitate osorako.

3gn. 62. artikuluko 2 eta 3. zenbakietan aipatzen diren errenten mugak zazpi eta lau milioi pezetakoak izanen dira hurrenez hurren famili unitate osorako.

4gn. 64. artikuluko 1 eta 3. zenbakietan ezarritako gehieneko zenbatekoa, famili unitateko kide guztien likidazio-oinarrien baturari aplikatuko zaio.

5gn. 64. artikuluko 2. zenbakian ezarritako gehieneko zenbatekoa, famili unitateko kide guztien kuoten baturari aplikatuko zaio.

6gn. 71. artikuluko 1 idazatiak aipatzen dituen famili unitateen kasuan, 55. artikuluko 4. zenbakiko 2. erregela aplikatzearen ondorioz ezkontideetako batek ezin izan duenean aplikatu 3. zenbakian aipatzen den murrizketa, gerakina beste ezkontidearen gutxieneko pertsonalari erantsiko zaio.

VII. TITULUA

Zergaldia eta Zergaren sortzapena

76. artikulua. Zergaldia eta Zergaren sortzapena.

Zergaldia urte naturala izanen da eta Zerga sortuko da urte bakoitzeko abenduaren hogeita hamaikan, hurrengo artikuluan ezarritakoa deusetan galarazi gabe.

77. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.

1. Zergaldia urte naturala baino laburragoa izanen da, subjektu pasiboa abenduaren hogeita hamaika baino lehen hiltzen bada.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den kasua gertatuz gero, subjektu pasiboaren zergaldia amaituko da, famili unitateko kidea ez bada ere; ondorioz, subjektu pasibo horrendako Zerga sortu egingen da, Foru Lege honetako 71. artikuluan aurreikusitako baterako zerga-ordainketa egiteko aukera deusetan galarazi gabe.

3. Zerdutako subjektu pasiboaren egozteko dauden errenta guztiak haren azken zergaldiaren zerga-oinarrian integratu beharko dira.

Kausatzailearen ondorengoek aurreko lerroaldeak aipatzen dituen errentei dagokien zerga-zorzarren zatia zatikatzeko eskatzen ahalko dute, berandutze-korriturik sortu gabe; zerga-zorzarren

zati hori kalkulatzeko 59. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitako tasa aplikatu beharko zaio zerga-oinarri orokorrean integraturiko errentari, eta 60. artikuluan aurreikusitako tasa oinarri berezian integraturiko errentari. Eskaria heriotza gertatu den zergaldiari aitortpena egiteko dagokion erregelamendu bidez ezarri epean egin beharko da, eta eman eginen da errenta horiek egotzi beharko liritekeen zergaldien arabera, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

4. Kausatzailearen ondorengoek Zerga honen-gatik ordaintzeko dauden zerga-betebeharrak bete beharko dituzte, zehapenak salbu, jaraunspena eskuratzeko lege zibiletan ezarritakoa deusetan galarazi gabe.

5. Baterako zerga-ordainketaren kasuan, oinordekoek eta legatu-hartzaileek famili unitateko bizi diren subjektu pasiboekin batera, betebeharrak solidarioa izanen dute Nafarroako Ogasun Publikoekin, eta azken horien artean kausatzaileak zeukan tokia beteko dute Foru Lege honetako 73. artikuluko 5. zenbakian arauturiko hainbanaketaren eraginetarako.

6. Arestiko 74.1 artikuluan aipatzen diren eta subjektu pasiboari dagozkion famili kenkariak gutxitu eginen dira zergaldia osatzen duten egun naturalen arabera, proportzionalki, salbu baterako zerga-ordainketaren kasuan; izan ere, horretan osorik zenbatuko dira.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren arabera ateratzen diren kenkariaren zenbatekoak gutxitu eginen du, kontzeptu berberengatik beste subjektu pasibo batzuek egiten ahal dituzten kenkariaren zenbatekoa.

78. artikulua. Dirusarreraren eta gastuen denbora-egozketa.

1. Oro har, Zergaren oinarrian zehazten diren sarrerak eta gastuak batzuk sortu diren eta besteak gertatu diren aldiaren egotziko dira, kobratu edo ordaindu diren unea beste bat izan arren.

Ondorio horretarako, ulertuko da dirusarrerak sortu direla hartzekodunak exiji ditzakeen unean, eta ulertuko da gastuak gertatu direla haien zenbatekoa horiek jaso behar dituztenei exijitzen ahal zaizkien unean.

2. Enpresa- eta lanbide-jardueren etekinak Sozietateei buruzko Zergari buruzko arauetan ezarritako eran egotziko dira, erregelamendu bidez ezarri daitezkeen berezitasunak deusetan galarazi gabe.

3. Ondare gehikuntzak eta urripenak ondare aldaketa hori izan den zergaldiari egotziko zaizkio.

4. Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketen kasuan, proportzionalki egotzi ahal izanen dira, dagozkion kobrantzak exiji daitezkeen neurrian.

Epekako edo prezio geroratutako eragiketatzat joko dira, prezioa osorik edo zatika, ordainketa desberdinen bidez jasotzen direnak, baina ordainketa edo eskura jartzearen eta azkeneko ordainketaren epemugak urtebetetik gorakoa izan beharko du.

Epekako edo prezio geroratuarekin egindako eragiketa baten ordainketa egiteko neurriak, denerako edo zati batetarako, kanbio-efektuen jaulkipenarekin ezarri zirenak izanen dira; horiek epemugaren aurretik eskualdatu badira, errenta eskualdaketa izan den zergaldiari egotziko zaio.

Ez dute tratamendu hau izanen eskualdatzailearentzat, biziarteko edo denbora jakin batetako kontratuetatik etorritako eragiketek. Ondasunak eta eskubideak biziarteko edo denbora jakin bateko errenta batengatik eskualdatzen direnean, errentadunaren ondare gehikuntza edo urripena errenta hura erabaki zen zergaldiari egotziko zaio.

5. Subjektu pasiboari leporatu ezin zaizkion arrazoi justifikatuengatik lanaren etekinak ezin badira behar diren zergaldietan jaso, kobrantza egiten den zergaldiari egotziko zaizkio, 17. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa aplikatuz _hala behar izanez gero_, salbu eta subjektu pasiboak erabakitzen badu zergaldi haiei egozteak. Horrela eginez gero, aitortpen-likidazio osagarria burutuko da ez zehapen eta ez errekar gurik ezarri gabe, ezta berandutza-korrituen sortzapenik ere.

Aurreko lerroaldean aipatzen den aukera erabili nahi bada, Administrazioari adierazi beharko zaio, kobrantza burutu zen ekitaldiari dagokion aitortpenean.

6. Foru Lege honetako 8. artikuluan aipatzen diren balioetsitako errentak, izan direla irizten den zergaldiari egotziko zaizkio.

7. Dibisa edo atzerriko moneten saldoa erakusten duten kontuetan izandako diferentzia positiboak edo negatiboak, beren kotizazioetan izandako gorabeheraren eraginez, egin den ordainketa edo kobratu den uneko zergaldiari egotziko zaizkio.

8. Subjektu pasiboak bere egoera aldatzen badu egoitza aldatu duelako, egozteko dauzkan errenta guztiak, egoitza aldatu aurreko tokian Zerga honengatik aitortu beharreko azkeneko zergaldiari legokiokeen zerga-oinarrian jasoko dira, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan eta, hala balegokio, aitortpen likidazio osagarri bat

eginez, zigorrik, berandutza korriturik eta inolako errekar gurik gabe.

79. artikulua. Familiaren egoera zehaztea

Zerga honen eraginetarako kontuan hartu behar diren gorabehera pertsonal eta familiarrak zehazteko, Zerga sortzen den egunean izaten den egoera hartuko da kontuan.

VIII. TITULUA
Zergaren kudeaketa

I. KAPITULUA

Zerga ordainarazteko eskumena

80. artikulua. Eskumena

Zerga kudeatu, ikuskatu, likidatu eta dirua bilzteko eskumena, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren gain geldituko da.

II. KAPITULUA

Atxikipenak eta beste konturako ordainketak

81. artikulua. Nork du konturako ordainketak egiteko betebeharra.

1. Zerga honetan, zerga zortzat hartuko diren konturako ordainketak, honakoak izan daitezke:

- a) Atxikipenak.
- b) Konturako ordainketak.
- c) Zatikako ordainketak.

2. Zerga honi atxikitako eta salbuespenik gabeko errentak kitatu edo ordaintzen dituzten pertsona juridikoek eta entitateek, egotzitako errentak dituzten entitateak barne, erregelamendu bidez ezarritako atxikipenak eta konturako ordainketak egin beharko dituzte; halaber, atxikipenak eta konturako ordainketak egin beharko dituzte bakarkako enpresario eta profesionalek beren enpresa- eta lanbide-jardueretan kitatu edo ordaintzen dituzten errenten gainean; eta baita ere, egoitza Espainiako Estatuko lurraldetik kanpo duten pertsona fisiko, juridiko eta gainerako entitateek, baldin eta Espainiako Estatuan jarduten badute iraunkorki.

Entitate batek, egoiliarra izan ala ez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28. artikuluan ezarritakoari jarraituz, entitate horri lotutako erakunde egoiliar bati edo espainiar lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati haien zerbitzuak eskaintzen dizkien subjektu pasiboei lan errentak kitatu edo ordaintzen dizkionean, atxikipena edo konturako ordainketa subjektu pasiboei zerbitzuak eskain-

tzen ditueneko entitateak edo establezimendu iraunkorrak burutu beharko du.

Atxikipenak eta konturako ordainketak Nafarroako Ogasun Publikoan egin beharko dira, erregelamenduetan ezarritako diren modu eta epeetan.

Aurreko idaztatietan ezarritakoa gorabehera, ez dira atxikipenera lotuko Altxor Letrek eratorritako errentak, ez eta zor publikoaren baloreak eskuz aldatzeagatik, trukitzeagatik edo amortizatzegatik eratorritakoak ere, betiere Foru Lege hau indarrean sartu baino lehen ez bazeuden atxikipenera lotuta.

3. Zerga honen kontura atxiki beharreko errenten jasotzaileak horiek sortutako kontraprestazio osoa izanen du kontuan.

Atxikipena egin ez bada, edo behar baino zenbateko txikiagoz gauzatu bada, jasotzaileak atxikia behar zen kopurua kuotatik kenduko du.

Sortutako kontraprestazio osoa frogatzerik ez dagoenean, Zerga Administrazioak zenbateko osotzat, behin hortik dagokion atxikipena kenduta, benetan jasotakoak agertzen duen kopurua kontuan ahal izanen du. Kasu horretan, konturako atxikipen gisa, benetan jasotakoa eta zenbateko osoaren arteko aldea kenduko da kuotatik.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko ondotik ematen diren kasuetan; horietan, jasotzaileak benetan atxikiriko kopuruak baizik ez baititu kendu ahal izanen:

- a) Legez ezarritako lansariak, sektore publikoak ordaindutakoak.
- b) Lanbide edo arte jardueren etekinak.
- c) Nekazaritza edo abeltzaintza jardueren etekinak.
- d) Hiri-ondasun higiezin errentamenduen etekinak.
- e) Erregelamendu bidez zehaztuko diren beste kasu batzuk.

4. Nolanahi ere, atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten subjektuek ordainketa Ogasun Publikoan burutzeko betebeharra bere gain hartuko dute, eta betebehari ez konplizteak ez du suposatzen betebehari ez dutenik.

5. Kontura ordaintzeko betebeharra dagoenean, sarrera gauzatu dela uste izanen da. Subjektu pasiboak zerga-oinarrian sartuko ditu gauzen bidezko ordainketaren balorazioa -Foru Lege honetan ezarritako arauari jarraituz- eta konturako sarrera -jasanarazi zaionean izan ezik-

6. Enpresa- eta lanbide-jarduerak burutzen dituzten subjektu pasiboak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura zatikako ordainketak egin eta sartzera behartuta egonen dira, eta horren zenbatekoa erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan autolikidatu eta ordainduko dute.

Erregelamendu bidez, subjektu pasiboaren dirusarrerak atxikipena edo konturako sarrera jasan dutenean, betebeharrak horretatik salbuetsi ahal izanen dira, horretarako finkatuko den portzentaia.

Enpresa- edo lanbide-jarduerak burutzen dituzten entitateei dagozkien zatikako ordainketa, entitate horiek errenten egozketa araubidekoak direnean, izaera horretako errentak egotz dakizkiokeen bazkide, oinordeko, erkide edo partaide bakoitzak eginen du, entitearen irabazian duen partaidetzaren proportzioan.

7. Aurreko zenbakietan aipatzen diren atxikipen eta konturako ordainketek tributu-zorraren balio bera izanen dute zehapen eta errekarrien aplikaziorako eta berandutza korrituen likidaziorako, aitorten edo ordainketarik ez egin edo betebeharrak hauetako edozein betetzerakoan atzerapenik gertatzen bada.

82. artikulua. Foru Komunitateari dagozkion sorburuko atxikipen eta konturako dirusarrerak Foru Komunitateari dagozkio honako atxikipen eta konturako dirusarrerak hauek:

1. Lan etekinen gainekoak.

Nafarroako Ogasun Publikoak eskatuko ditu, etekin horiek Nafarroan lan egiten duten edo zerbitzuak ematen dituzten langile eta enplegatuenak direnean, eta gainera:

a) Aurreko lerroaldean aipatzen diren langile eta enplegatuei dagozkien etekinenak, Nafarroatik kanpo egindako aldi baterako lanengatik.

b) Foru Komunitateko eta toki entitateetako eta beren erakunde autonomoetako funtzionarioei eta lan edo administrazioko kontratazio-araubidean dauden enplegatuen lansarietak.

c) Lana errepedean egiten duten garraio-enpresetako langileek, ordaintzen duen enpresaren helbide fiskala Nafarroan denean.

d) Foru Komunitateak eta Nafarroako toki entitateek ordaindutako pentsio eta hartzeko pasiboak, eta beren lurraldean Gizarte Segurantzak, Bahituretxeak, Mutualitateak, Enpresek, Pentsio Planek eta gainerako entitateek ordaintzen dituztenak.

Nafarroan ordaindutat hartuko dira, bere lurraldean eskudiruz edo bertan irekitako kontu irekietan ordaintzen direnak.

e) Edozein motatako enpresetan djarduten administrazio-kontseiluetako eta juntetako buru eta kide izateagatik jasotzen diren lansarietak, ordaintzen duen entitateak Sozietateen gaineko Zerga Foru Komunitateari bakarrik ordaintzen badio.

Ordaintzen duen entitatea, Estatuak eta Foru Komunitateak eskatzen ahal duten Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa denean, atxikipena bi Administrazioek eginen dute, lurralde bakoitzean egindako eragiketaren bolumenaren heinean, Hitzarmen Ekonomikoaren 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Lanbide eta arte-jardueren etekinen gainekoak.

Foru Komunitatearen esku geldituko dira, lanbide edo arte-jardueretatik ateratzen diren etekinei dagozkien sorburuko atxikipenak, baldin eta atxikipena egitera beharturik dagoen pertsona edo entitatearen helbide fiskala Nafarroan bada.

Nolanahi ere, Foru Komunitateak atxikipen hauek eskatuko ditu, berak ordainduriko etekinei dagozkienean.

3. Higikoren kapitalaren etekinen gainekoak.

a) Higikoren kapitalaren etekinei dagozkien konturako atxikipen eta sarrerak, zenbaki honetako b) letran aipatzen diren kasuetan ezik, Nafarroako Ogasun Publikoak eskatuko ditu, baldin eta Foru Komunitateari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzen dioten subjektu pasiboen, edo Sozietateen gaineko Zerga bakarrik ordaintzen dioten entitateek ordainduak badira.

Foru Komunitateak eta Estatuak eskatzen ahal duen Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak direnean, atxikipena bi Administrazioek eginen dute, lurralde bakoitzean egindako eragiketaren bolumenaren heinean, Hitzarmen Ekonomikoaren 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

b) Era berean, Foru Komunitateko Ogasun Publikoaren esku geldituko dira ondok aipatzen diren etekinen konturako atxikipen eta sarrerak:

1.go. Foru Komunitateak ordaintzen dituenak eta, baita ere, toki entitateek eta Nafarroako bestelako Lurralde eta Erakunde Administrazioak ordaintzen dituenak.

2.gn. Korrituei eta klase guztietako beste kontraprestazioei -diru nahiz ondasunen bidez eginak izan eta kapitalak edo kontuen titularitatea Nafa-

roan irekitako establezimenduetan kokatzetik ondorioztatzen direnei- dagozkienak. Betiere, kapital edo kontu horiek banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba eta gainerako finantza enitate edo erakundeena bada, edozein delarik ere beraien helbidea.

3.gn. Finantza aktiboen etekin inplizituei dagozkiena, baldin eta aurreko idazatietan entitateek parte hartzen badute etekin horien eskualdaketa edo amortizazioan, eta eragiketa horiek Nafarroan kokaturiko establezimenduen bidez burutzen badira.

4.gn. Aurreko idazatian aipaturiko etekinei dagozkienak, atxikipena gauzatzen duen fedemaile publikoak bere kargua Nafarroan betetzten duenean.

4. Higiezinaren kapitalaren gainekoak.

Foru Komunitatearen esku geldituko dira atxikipenak eta konturako ordainketak, horiek egitera behaturik dagoenak Nafarroako lurraldean duenean zerga-helbidea.

III. KAPITULUA Prozeduraren hasiera

83. artikulua. Hasiera.

Zergaren kudeaketa honela hasiko da:

a) Subjektu pasiboaren aitortpenaz, 93. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren arabera.

b) Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arioz, dauzkan aurrekinengatik ondorioztatuz gero badirela aitortpena egitera behartzen duten edo aurkeztu diren aitortpenetan sartu ez diren errentak.

c) Ikuskapen jardueraren ondorioz, 97. artikuluan xedaturikoari jarraituz.

84. artikulua. Aitortpena egiteko betebeharra.

1. Zerga honengatik aitortpena aurkeztu eta izenpetzeko betebeharra izanzen dute, Zerga honi atxikiriko errentak eskuratzen dituzten subjektu pasiboek, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Aitortpenik aurkezteko betebeharririk ez duten subjektu pasiboek, baldin eta kuota likidoaren gaindiko atxikipenak eta konturako ordainketak jasan eta zatikako ordainketak egin badituzte, dagokien zenbatekoa itzul dakien eskatzen ahal dute, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintza eta prozeduraren arabera.

2. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak onespena ematen ahal du, aitortpena egiteko modalitate erraztu edo bereziak erabil daitezten.

Aitortpena egiteko, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarriko diren bide, epe eta inprimakiak erabiliko dira.

Subjektu pasiboek aitortpenak egiten dituztenean, bertan eskatzen zaizkien datu guztiak jarri, ezartzen diren agiri eta justifikazio-orriak haiei erantsi eta aurkeztu beharko dituzte, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarritako leketan.

3. Baterako zerga-ordainketa, adinez nagusi diren famili unitateko kideek sinatu eta aurkeztuko dute. Halaber, kide horiek famili unitateko adin txikiokoen ordezkari izanzen dira, halakorik bada.

4. Bakarkako zerga-ordainketaren bidea hautatzen duten famili unitateetan, kideetako bakoi-tzak bere aitortpena sinatu beharko du, ordezkari baten bitartez jarduteko aukera deusetan galerazi gabe.

5. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aitortpenak eta aitortpenen handipenak eskatzen ahal ditu, bai eta egindako akatsen zuzenketa egin dadin ere, hori guztia beharrezkoa bada Zerga ikusi eta likidatzeko.

6. Aitortpenak egiazkotzat joko dira, eta subjektu pasiboak bakar-bakarrik zuzentzen ahal ditu frogatzen badu haiek egin zirenean egitatezko okerra burutu zela.

85. artikulua. Autolikidazioa.

1. Subjektu pasiboek Zerga honen aitortpena aurkeztzen duten une berean zehaztu beharko dute dagokien tributu-zorra, eta erregelamendu bidez ezarriko diren leku, modu eta epetan sartu diru hori.

2. Autolikidaziotik ateratzen den diru-zenbatekoaren sarrera zatitzen ahal da, korritu eta erre-kargurik gabe, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

3. Tributu-zorra ordaintzeko, Ondasun Higikoren Inbentario Orokorrean edo Interes Kulturala duten Ondasunen Erregistro Orokorrean sarturik dauden eta Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak ematen ahal dira, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Tributu-zorraren ordainketa hori, beste ondasun batzuk emanez ere burutzen ahal da, baldin eta, ondorio horietarako, ondasun horiek interes kulturala dutela deklaritzen badu Nafarroako Gobernuak.

IV. KAPITULUA Egiaztapena eta ikerketa

86. artikulua. Egiaztapena eta ikerketa.

1. Zergagaia osatu edo baldintzatzan duten egitateak, egintzak, egoerak, jarduerak, ustiapenak eta gainontzeko inguruabarrak egiaztatu eta ikertu ahal izanen ditu Ekonomia eta Ogasun Departamentuak.

2. Aitorpenean sartzen diren egintza, elementu eta balorazio guztiak hartu ahal izanen ditu egiaztapen horrek.

3. Subjektu pasiboak osorik edo partzialki aitortu ez duen zergagaia izanen da ikerketaren xedea.

Era berean, ikerketak subjektu pasiboak berak egin behar duen likidazioaren zergagaiak ere hartuko ditu, eta Nafarroako Ogasunaren Ikuskaritzak eginen du ikerketa; betiere, hura arau erregulaztaileekin bat.

V. KAPITULUA Likidazioa

87. artikulua. Likidazio motak

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eginen dituen likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izanen dira.

Zergagaiaren egiaztapen administratiboa egin ondoren gauzatuko diren likidazioak behin betikoak direla ulertuko da.

Behin betiko likidaziotzat joko dira egiaztapen administratiboa egin ondoren gauzatzen diren behin-betiko likidazioak.

Gainontzeko kasuetan, behin-behinekotzat joko dira, nahiz likidazio horiek kontura egindako likidazioak, osagarriak, kauziozkoak, hein batekoak edo osoak izan.

88. artikulua. Behin-behineko likidazioa.

1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, zerga-kudeaketaren organoen bidez, ariozko behin-behineko likidazioa emanen du; betiere, aitorpenean aurkezturiko edo aipatu organoek galdaturiko datuekin eta horien ziurtagiriekkin bat.

Era berean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arioz likidazioa eman ahal izanen da, bere eskura dituen froga-elementuek agerian uzten dutenean zerga egitatea egin dela, horren elementuak ez direla aitortu edo badirela aitortu direnak ez diren zerga-zorraren zenbatekoa ezartzen duten elementuak.

Halaber, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arioz behin-behineko likidazioak emanen dira zerga itzulketak gertatzen direnean eta horietan, Administrazioak eginiko itzulketaren zenbatekoa ez datorrenean subjektu pasiboak eskatu duenarekin bat, baldin eta idazati honen lehen lerroaldean ezarri diren inguruabarrak gertatzen ez badira edo aurreko bigarren lerroaldean aipatu diren elementuak baditu.

2. Likidazio horiek egiteko, kudeaketa organoek zerga-aitorpenean ezarri diren egintza, elementu eta balorazio oro egiaztatzen ahal dituzte.

3. Aurreko zenbakian xedatutakoak ez du deusetan galaraziko Zergen Ikuskaritzak egin dezakeen egiaztapen eta ikerketa.

4. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egindako jarduketan ondorioz, subjektu pasiboak sartutako kantitatea baino handiagoa ateratzen bada, bien artean dagoen aldeak beranduzakorrituak sortuko ditu, kasuan kasuko aitorpena aurkezteko epea betetzen denetik, eta hala balitz, bidezkoak izan daitezkeen errekarju eta zehape-nak deusetan galarazi gabe.

89. artikulua. Likidazioen baldintzak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eginen dituen likidazioak jakinarazi beharko zaizkio zergadunari, eta, bereziki, jakinarazpen horietan honakoak agertu beharko dira:

a) Likidazioaren funtsezko elementuak eta horren zioak.

b) Likidazio horri aurka egiteko erabil daitezkeen bideak; eta horiekin batera, epeak eta zein organorengana jo behar den.

c) Zerga-zorra ordaindu behar deneko tokia, epea eta modua.

Hala ere, aurreko baldintzak betetzen ez dituzten jakinerazpenek ondorioak sortuko dituzte zergadunak jakinerazpena hartzen duenetik, bidezko errekurtsioa jartzen duenetik edo zerga-zorra ordaintzen duenetik.

Egintzaren testu osoa izan baina baldintzaren bat ahaztu duten subjektu pasiboek igorritako jakinerazpenek sei hilabeteko epean sortuko dituzte ondorioak, salbu eta epe horretan akatsa zuzentzeko eskari zehatza egin bazaio Ekonomia eta Ogasun Departamentuari.

90. artikulua. Akats zuzenketa.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, edozein unetan, bere kabuz edo interesatuaren eskariz, idazketazko, egitatezko ala zenbakizko aka-

tsak zuzenduko ditu; betiere, Zerga honek ezarritako preskripzio epea iragan ez bada.

91. artikulua. Administrazioaren ariozko itzulketak.

1. 81. artikuluan ezartzen diren konturako ordainketen zenbatekoa handiagoa bada, ezarritako epean aurkeztutako autolikidazioaren emaitza den kuota baino, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, hala behar balitz, behin-behineko likidazioa eginen du aitortzen aurkezteko ezarritako epea amaitu eta sei hilabeteren barruan.

2. Txikiagoa bada autolikidazioaren emaitzako kuota edo, halakorik balitz, behin-behineko likidazioarena, benetan atxikitako kopuru eta konturako ordainketak baino, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arioz itzuliko da aipatutako kuotaren gaineko soberakina, deusetan galarazi gabe egoki diren ondorengo behin-behineko nahiz behin betiko likidazioak.

3. Behin-behineko likidazioa artikulua honetako lehenengo zenbakian ezarritako epean ez balitz gauzatu, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arioz itzuliko da autolikidatutako kuotaren gaineko soberakina, deusetan galarazi gabe egoki suerta litezkeen ondorengo behin-behineko nahiz behin betiko likidazioak.

4. Artikulua honetako lehenengo zenbakian ezarritako itzulketa egiteko epea pasatu, eta ez balitz itzulketa egiteko agindurik eman Ekonomia eta Ogasun Departamentuari egotz dakiokkeen arrazoiengatik, itzuli beharreko kopuruari berandutza korritua aplikatuko zaio -abenduaren 26ko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeak zerga-zorretarako ezarritakoa-, itzulketa egiteko epea amaitzen den egunetik ordainketa agintzen den egunera arte, subjektu pasiboak hala eskatu beharrik izan gabe.

5. Foru Lege honetako 47. artikulua aipatzen dituen zerga gardentasuneko araubidearen eraginpeko sozietateei ez zaie itzuliko, inola ere, ordaindu duten kuota.

6. Artikulua honek aipatzen duen Administrazioaren ariozko itzulketa egiteko prozedura eta modua erregelamendu bidez ezarriko dira.

VI. KAPITULUA Dirubilketa

92. artikulua. Dirubilketa.

1. Zerga-zorra ondoko epeetan ordaindu beharko da.

a) Zorra, Zerga honen autolikidazioaren emaitza denean, aitortzen aurkezteko erregelamendu bidez ezarriko den epean.

b) Zorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eginiko likidazioaren ondorio direnean, jakinarazi eta hurrengo hilabetearen barruan.

2. Exekuzio-epea aurreko zenbakian ezarritako zorrak -likidatutakoak nahiz autolikidatutakoak- ordaintzeko epemuga amaitu eta biharamunean hasiko da. Hala ere, autolikidazioaren bidez ordaindu beharreko zorra epez kanpo aurkeztu eta ordainketarik egiten ez denean, exekuzio-epea autolikidazioa aurkeztu eta biharamunean hasiko da.

2. Artikulua honen 1. zenbakian ezarritako epeez kanpo eginiko dirusarrerei buruz maiatzaren 2ko 3/1989 Foru Legearen 67. artikulua ezarritakoa deusetan galarazi gabe, zorren dirubilketa, exekuzio-epean, premiamendu prozedura bidez egiten denean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko, abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 17.2 artikulua ezarritakoaren arabera egingen da.

VII. KAPITULUA Betebehar formalak

93. artikulua. Subjektu pasiboaren betebehar formalak.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, Zergaren preskripzio epea bete arte, ondoko ziurtagiriak gordetzeko beharra dute: beren aitortzen jaso behar dituen mota guztietako eragiketa, errenta, gastu, sarrera, murriztapen eta kenkariei buruzkoak.

2. Foru Lege honen eraginetarako, enpresarioen jarduerak burutzen dituzten subjektu pasiboek, baldin eta zuzeneko zenbatespeneko araubidean zehazten badira, Merkataritzako Kodeak xedatutakoaren arabera kontabilitatea izateko beharra dute.

Hala ere, erregelamendu bidez, behar hori betetzeaz salbuetsi ahal izanzen zaiei ondokoei: Merkataritza Kodearen arabera, merkataritza izatera ez duten enpresarioen jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek; eta etekin garbiak zuzeneko zenbatespeneko araubideko modalitate erraztuaren bitartez zehazten duten subjektu pasiboek.

3. Halaber, Zergaren subjektu pasiboek erregelamendu bidez ezarriko diren liburu edo erregistroak edukitzeko beharra dute; hain zuzen ere, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarriko duen eran.

4. Erregelamendu bidez ondoko betebeharrak ezarri ahalko dira: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko aitortenak aurkeztu, eta aldiberean egin beharreko ondare-informazioari dagozkion berariazko betebeharrak. Betebehar horien helburua izanen da errentak kontrolatzea edo subjektu pasiboan zenbait ondare eta eskubideren erabilpena kontrolatzea.

94. artikulua. Atxikitzailearen betebehar formalak.

1. Atxikipenak edo konturako ordainketak burutzeko beharra duen subjektuak, erregelamendu bidez ezarriko diren epe, modu eta lekuetan aurkeztu beharko du atxikitako edo kontura eginitako dirusarreraren zenbatekoen aitortpena, edo aitortpen negatiboa; azken hori, atxikipen edo konturako ordainketak egiteko beharrik izan ez denean. Era berean, aipatutako subjektu pasiboak urtean zehar izandako atxikipenen edo konturako ordaintzen laburpena aurkeztuko du; betiere, erregelamendu bidez ezarriko denaren arabera.

Atxikipenak edo konturako ordainketak burutzeko beharra duen subjektuak, kasuan kasuko agiriak gorde beharko ditu eta, halaber, erregelamendu bidez ezarriko den moduan, egin duen atxikipena edo kontura egindako dirusarrerak gauzatu direla ziurtatzen duen agiria eman beharko du.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak onetsiko ditu kasuan kasuko aitorten-ereduak.

2. Erregelamendu bidez, informazioa emateko betebeharrak ezarri ahal izanen zaie ondoko eragiketarako egiten dituzten edo ondoko egoeretan dauden pertsona eta entitateei:

a) Maileguak ematen dituzten entitateei, etxebizitzak erosteko emandako maileguei dagokienez.

b) Atxikipenik gabeko lan edo kapital errentak ordaintzen dituzten entitateei.

c) Sariak ordaintzen dituzten entitate eta pertsona juridikoei, Zergaren eraginetarako Zerga salbuetsizat hartua izanda ere.

d) Zerga honetan kenkaria izateko eskubidea ematen duten dohaintzak jasotzen dituzten entitateei, dohaintza emailearen identitateari eta jasotako zenbatekoei dagokienez, Zerga honen aitortpenaren eraginetarako dohaintzaren ziurtagiria eskatu dutenean.

95. artikulua. Errentak egozteko araubidean dauden entitateen eta entitate gardenen betebeharrak.

1. Foru Lege honen 11. artikulua aipatezen dituen entitateek, Zerga aitortzeko epea hasi baino lehen, erregelamendu bidez ezarriko diren datuen ziurtagiriak eman beharko dizkie bazkide edo partaide bakoitzari.

Zergaren subjektu pasiboak, Zergaren aitortpenarekin batera, zenbaki honetan aipatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

2. 47. artikulua aipatzen dituen zerga gardenetasuneko araubideko sozietateek, sozietateen gaineko zerga-aitortpenarekin batera, bazkideen zerrenda aurkeztu beharko dute; eta zerrenda horretan, erregelamendu bidez ezarriko diren datuak.

IX. TITULUA Preskripzioa

96. artikulua. Preskripzioa

Lau urteren buruan preskribituko dira ondoren aipatzen diren eskubide eta akzioak:

a) Administrazioak, behar den likidazioaren bidez, zerga-zorra zehazteko duen eskubidea.

b) Likidaturiko zerga-zorren ordainketa galdatzeko akzioa.

c) Zerga-zehapenak ezartzeko akzioa.

d) Oker egindako dirusarrerak berreskuratzeko eskubidea.

97. artikulua. Zenbatzea.

Aurreko artikulua aipatzen dituen kasuetan, preskripzio epea honela hasiko da kontatzen:

a) letrako kasuan, erregelamenduak kasuan kasuko aitortpena aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunetik aurrera; b) letrako kasuan, borondatezko ordainketa egiteko epea bukatzen den egunetik aurrera; c) letrako kasuan, arauhauste bakoitza egiten den unetik aurrera; eta d) letrakoan, oker egindako dirusarrerak burutu zen egunetik aurrera.

98. artikulua. Etena.

1. 96. artikulua a) b) eta c) letrek aipatzen dituzten preskripzio epeen etena honako hauek eragiten dute:

a) Subjektu pasiboak modu formalean jakinda egiten den edozein ekintza administratibok, ekintza hori zergagai bakoitzak sortutako Zerga aitortu, erregularizatu, ikuskatu, bermatu, egiaztatu, likidatu eta biltzeko denean.

b) Edozein motatako erreklamazio edo errekurtsio jartzeak.

c) Subjektu pasiboak zorra ordaindu edo likidatzeko egiten duen edozein jarduketak.

2. 96. artikulua d) letrak aipatzen duen preskripzio epea etenen du oker egindako dirusarrerara berreskuratu nahi duen subjektu pasiboaren edozein egintza sinesgarri edo okerreko dirusarrerara hori badela adierazteko Administrazioak egiten duen edozein egintzak.

99. artikulua. Nola ezarri.

Administrazioak bere kabuz erabakiko du zeini ezarri indarra galtzea, subjektu pasiboak eskatu edo salbuespena alegatu gabe.

Preskripzioa Administrazioaren arioz aplikatuko da, eta subjektu pasiboak ez du hori aipatu behar edo salbuespen gisa ekarri beharko.

X. TITULUA **Errekurtsoak**

100. Artikulua. Errekurtsoak

1. Likidazio-aitorpenak edo autolikidazioak zuzentzeari dagokionean xedaturikoa eragotzi gabe, Ekonomi eta Ogasun Departamentuko organoek egindako likidazioen eta bestelako egintzen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izanen da Nafarroako Gobernuaren aurrean, horiek formalki jakinarazten direnetik hilabeteko epean.

2. Administrazioa ez da ezein kasutan salbuesita geratzen espreski ebazteko betebeharretik.

Errekurtsoak sei hilabeteko epean ebatziko dira, jartzen direnetik kontatzen hasita.

Aurreko lerroaldean adierazitako epea ebazpena jakinarazi gabe igarotzen baldin bada, interesatuak ezetsi egin dela jo ahal izanen du, eta kasuan kasuko errekurtoa jarri ahal izanen du. Horretarako epea kontatzen hasiko da ezetsizat jo behar den egunaren hurrengotik aurrera.

Ebazpena espresua denean, kasuan kasuko errekurtoak jartzeko epeak kontatzen hasiko dira izandako ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

3. Inpugnaturiko administrazio-egintzaren exekuzioa interesatuaren ekimenez etenen da, baldin eta errekurtoa jartzeko unean zerga-zorraren zenbatekoa erregelamenduz zehaztuko den moduan bermatzen bada.

Zor hori ordaintzen bada jarritako errekurtoa ezetsia izateagatik, etenaldiaren iraupen osoari dagozkion berandutza-interesak ordaindu beharko dira, gehi zerga-zorraren ehuneko 5eko zehapen bat, organo ebazleak zuhurtzigabetasuna edo fede txarra nabaritzen baldin badu.

Ordainduriko kopurua itzuli behar izanen balitz jarritako errekurtoa onartua izatearen ondorioz, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 19. artikulua zerga-zorretarako aipatzen duen berandutza-interesa aplikatuko zaio kopuru horri, berori sartzen denetik ordain dadila agintzen den data arte, subjektu pasiboak horretarako eskaerarik egin behar izan gabe.

4. Administrazioarekiko jurisdikzioa izanen da, foru administrazio bidea agortu ondoren, Foru Lege honek aipatzen duen edozein auziri dagozkionez Administrazioaren eta Zerga honetako subjektu pasiboaren artean sortzen diren egitatezko eta zuzenbidezko eztabaida guztiak ebazteko eskumena duen bakarria.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Gauza bidezko ordainketa

Ez dira gauza bidezko ordainketatzat joko 1992ko maiatzaren 25a baino lehenago itunduak izanik korritu tasa diruaren legezko tasa baino txikiagoa duten eta Lan Hitzarmen Kolektiboaren babespean eman diren maileguak, horien printzipala mailegariaren esku jarri zeneko data aipatu data baino lehenagokoa bada.

Bigarrena. Konpentsatzeko dauden partidak

1. Foru Lege hau indarrean sartzen den egunean konpentsatzeko dauden 1998, 1997, 1996, 1995 eta 1994. urteetako zergaldietatik datozen etekin irregular negatiboak Foru Lege honetako 53. artikuluan aipatzen diren errenta-etekin eta -egozketen saldo positiboak bakarrik konpentsatuko dira.

2. Foru Lege hau indarrean sartzen den egunean konpentsatzeko dauden 1998, 1997, 1996, 1995 eta 1994. urteetako zergaldietatik datozen ondare-murrizketa garbiak, Foru Lege honetako 54. artikuluan aipatzen diren ondare-gehikuntzen saldoarekin bakarrik konpentsatuko dira.

3. Foru Lege hau indarrean sartzen den egunean konpentsatzeko dauden 1998, 1997, 1996, 1995 eta 1994. urteetako zergaldietako oinarri likidagarri irregular negatiboak, Foru Lege honetako 55. artikuluan ezartzen diren oinarri likidagarri orokorraren saldo positiboak konpentsatuko dira bakarrik.

4. Aurreko zenbakietan aipaturiko konpentsazioa egin ahal izanen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legean horretarako ezarritako epean.

Hirugarrena. Zerga-informazioa ematea.

Abenduaren 28ko 230/1963 zk.ko Zergei buruzko Lege Orokorreko 113.1 artikulua aurreikusitako kasuetan zerga-informazioa ematea arautu ahal izanen du, Foru Agindu bidez, Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontseilariak; baita Administrazio Publikoek haien eginkizunak burutu ahal izateko behar duten informazioa ere, interesatuek horretarako baimena eman ondoren.

Laugarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeak eginiko arau-aipamenak.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeak eta Nafarroako 1988rako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legeko VII. tituluko Seigarren kapituluak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeari buruz jasotako aipamen oro Foru Lege honetako arauari buruzkoa dela ulertuko da.

Bosgarrena. Informazio-betebeharrak.

1. Inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzeko sozietateei akzio edo partehartzeekin egiten dituzten eragiketei buruzko informazioa emateko betebeharra ezarri ahal izanen zaie erregelamenduz, baita akzio edo partehartze horiek erosi zein saltzeko eragiketen emaitzei buruzkoa emateko betebeharra ere.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek informazioa eman beharko dute, erregelamenduz ezarriko den eran, erregelamenduz zerga-paradisuko kalifikaturiko herrialde edo lurraldeekin zuzeneko nahiz zeharkako zerikusia duten balore edo ondasunak edukitzearen ondoriozko eragiketa, egoera, kobrantza eta ordainketei dagokienean.

Seigarrena. Besteren konturako langileen mutualitateak

Besteren konturako langileentzat pentsio-sistema osagarri gisa Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateek adosturiko aseguru-kontratuen ondorioz ordainduriko kopuruek zerga-oinarriaren zati orokorra murriztu ahal izanen dute, Foru Lege honetako 55. artikulua ezarritako moduan, baldin eta alde zuzeneko, gutxienez ere urtebetez, erregelamenduz finkatuko den moduan, mutualista horiek beraiek ekarpenak egin badituzte mutualitate horietarako, Aseguru Pribatuak Antolatu eta Ikuskatzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legeko bosgarren xedapen iragankorrean eta hamabosgarren xedapen gehigarrian aurreikusita-koari jarraituz, eta, betiere, prestazioak Pentsio Plan eta Fondoak arautzeko ekainaren 8ko

8/1987 Legeko 8.8 artikuluan aurreikusitako kontingentzia berberak gertatzen direnean soilik kobratzen uzteko erabakia hartu baldin badute Mutualitateko kasuan kasuko organoek.

Zazpigarrena. 1999 Jakobear Urte Sainduari eta Santiago Europako Kultur Hiriburua 2000ri aplikatzekoak diren zerga-onurak.

Estatuko arautegiak 1999 Jakobear Urte Saindurako eta Santiago Europako Kultur Hiriburua 2000rako ezarritako zerga-onurak Nafarroan aplikatu ahal izanen dira.

Zortzigarrena. Arau-haustea eta zehapenak.

Foru Lege honetan agertzen diren arau bereziak galarazi gabe, eta Nafarroan zergen arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko arautegi orokorra onetsi arte, gai hauei aplikatuko zaizkien manuak hauek izanen dira: urriaren 3ko 212/1986 Foru Dekretu Legegileak onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren xedapenen Testu Bateratuan, maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legean eta beste xedapen batzuetan daudenak.

Bederatzigarrena. Nafarroako 1988ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen aldaketa.

1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legeko artikulok honela idatzita geratuko dira:

Bat. 73. artikuluko c) letrari lerroalde bat gehitzea.

“Hala ere, partaideek eskatu ahal izanen dute, erregelamenduz ezarriko diren epeetan eta baldintzekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarritik kendu ahal izan ez den aipaturiko gairik hori kendu ahal izatea hurrengo bost zergaldietan, Zerga honi buruzko arautegian ezarritako mugen barnean.”

Bi. 77. artikuluko 2. zenbakiko lehen lerroaldea.

“Hala kontribuzioek, betiere zerga-bilketaren ikuspegitik horiekin lotura duten pertsonen egozterako baldin badira, nola pentsio-planen ordezkari giza-arekuzeneko sistema horien onuradunek jasotako prestazioek, bestetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak pentsio-planentzat ezarritako tratamendu berbera izanen dute zerga-bilketari dagokienean.”

Hamargarrena. Zerga-paradisuko gisa sailkatutako lurraldeak.

Zerga honen eraginetarako zerga-paradisutzat joko dira Estatuko arautegiak erregelamenduz bidez halakotzat sailkatutakoak.

Hamaikagarrena. Ceutan edo Melillan eskuratuturiko errentak.

Errentak Ceutan edo Melillan eskuratzen dituzten subjektu pasiboek Estatuko arautegian ezarritako kenkariak aplikatuko dituzte.

Hamabigarrena. Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 10eko Erabakiz onetsitako Oinordetzari eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zerga Orokorretako Arauen aldaketa.

Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 10eko Erabakiz onetsitako Oinordetzari eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zerga Orokorretako Arauen 28. artikuluko 1. zenbakiko b) letra honela idatzia geratuko da, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

“b) Biziaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek kopuruak jasotzea, kontratu-egilea onuradunaz besteko pertsona fisikoa denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 14.2.a) artikuluan espreski araututako kasuetan izan ezik.”

Hamahirugarrena. Abenduaren 26ko 46/1984 Legean araututako Talde Inbertsiorako Erakundeak.

Higikoren inbertsiorako fondoak eta higikoren inbertsiorako kapital aldakorreko sozietateak eratu, horien kapitala gehitu eta horiek fusionatzeko eragiketak eta Baloreen Burtsan negoziatzeko onaturiko baloreez ordezkaturiko kapitala daukaten higikoren inbertsiorako kapital finkoko sozietateek eginiko eragiketak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zergako “sozietate-eragiketa” kontzeptutik kanpo geratuko dira.

2. Talde inbertsio ez finantzariarako erakunde izaera duten higiezin-inbertsiorako fondoek, baldin eta izaera urbanoko edozein motatako higiezin batean inbertitzea -berori errentatzeko asmoz-sozietate-xede bakartzat badaukate, higiezin-inbertsiorako sozietateek eta, horiez gain, erregelamenduz ezarriko den moduan elkarrekin gutxienez aktiboaren ehuneko 50 biltzen duten etxebizitzek, ikasle-egoitzek eta zaharren egoitzek honako zerga-araubide hau izanen dute: aurreko 1. zenbakian higikoren inbertsiorako sozietate eta fondoentzat aurreikusiriko berbera, Baloreen Burtsan kotizatu nahiz ez kotizatu.

Halaber, sozietate eta fondo horiek etxebizitzak erosten badituzte, errentatzeko asmoz, ehuneko 95eko hobaria izanen dute Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen

gaineko Zergari dagokionean, erregelamendu bidez ezar daitezkeen baldintzak eragotzi gabe.

Zenbaki honetan ezarritako zerga-araubidea aplikatzeko beharrezkoa izanen da sozietateen eta fondoan aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak ez besterentzea erosi zirenetik hiru urte igaro arte, non eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aparteko baimena ematen ez duen.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Zerga-paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan eraturako inbertsio kolektiboko erakundeen zerga-balioa.

1. Foru Lege honetako 52. artikuluan aipatzen den balio likidagarriaren soberakina kalkulatzeko, erosketa baliotzat hartuko da Foru Lege hau aplikatzeko ekitaldiko lehen zergapetze-epealdiaren lehen eguneko balio likidagarria, subjektu pasiboak aipatu epealdi horretan dituen partaidetza eta akzioei dagokienez. Aipatu balio horren eta erosketaren balio eragingarriaren arteko diferentzia ez da erosketa baliotzat hartuko, akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketaz ondorioztatutako errentak zehazteari dagokienez.

2. Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako mozkinetako dibidenduak eta partaidetzak, hau da, Foru Lege hau indarrean sartu baino lehengotik lortutako mozkinetatik datozenak, horien bazkide edo partaideen zerga-oinarrian sartuko dira. Esandakoaren eraginetarako, banatutako lehen erreserbak irabazitako lehen mozkinetatik hornitutakotzat joko dira.

Bigarrena. Gizarte aurreikuspeneko mutualitatei ezarriko zaien araubide iragankorra.

1. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin itundutako aseguru kontratuetatik eratorritako erretiro eta ezgaitasunerako laguntzak, horien ekarpenak Foru Lege hau indarrean jarri baino lehen egindakoak, murriztapen xedekoak izan badira zerga-oinarrian behinik behin, Zergaren zerga-oinarrian sartu beharko dira lanaren etekin kontzeptupean.

2. Sartze hori, jasotako zenbatekoak Zergaren zerga-oinarrian murrizketa edo gutxipen xedekoa ezin izan diren mutualitateari egindako ekarpenak gaituzten dituen heinean eginen da, unean unean indarrean dagoen legediarekin bat eta, horren ondorioz, aldeztatik zergapetu badira.

3. Zerga-oinarrian murrizketa edo gutxipen xedekoak ezin izan diren ekarpenen zenbatekoa ezin bada egiaztatu, erretiroagatik edo ezgaitasunagatik jasotako laguntzen 100eko 75 sartuko da.

Hirugarrena. Kapital murrizketaren ostean negoziatziora onartu ez diren balore eta partaidetzak eskualdatzea.

1. Merkatu arauturen baten negoziatziora onartu ez diren balore eta partaidetzak eskualdatu baino lehen, subjektu pasiboak zirkulazioan jarri dituen balore edo partaidetza guztiei era berean eragiten ez dien balio nominalaren murrizketaren bidezko den kapital murrizketa egiten bada, III. tituluko II. kapituluko 4. sekzioan ezarritako erregelak aplikatuko dira, ondoko bereizitasunak kontuan izanik:

1go. Eskualdatze baloretzat joko da Foru Lege honetako 39. artikuluko 4. zenbakiaren a) letran ezarritakoa aplikatuz ateratzen den balio nominalaren arabera legokiokeena.

2gn. Subjektu pasiboak ez baditu bere balore eta partaidetza guztiak eskualdatu, efektiboki eskualdatu dituen balore edo partaidetzen balio nominalari dagokion eskualdatze-balioaren eta aurreko pasartean aipatzen den eskualdatze-balioaren arteko diferentzia positiboa gainontzeko balore edo partaidetza homogeneousen erosketabaliotik murriztuko da, harik eta ezabatu arte. Eragiketa horretatik atera daitekeen soberakinari ondare-gehikuntzari dagokion zerga ezarriko zaio.

2. Aurreko zenbakian ezarri diren arauak, sozietate gardenen kapitaleko balore edo partaidetzen eskualdatze kasuan aplikatuko dira.

Laugarrena. Foru Lege hau indarrean jarri aurretik ondare gehikuntzak edo murrizketak eragiten dituzten bizi aseguruaren kontratuen araubide iragankorra.

Kapital diferitu bat jasotzen denean, 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primei dagokien laguntzen zatiari aplikagarriak izanen zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko hamalagarren xedapen iragankorrean ezarritako murrizketa portzentaiak, etekinak Foru Lege honetako 30 eta 32. artikuluetan –Foru Lege honetako 32. artikuluko 2. zenbakiko b) letraren azken lerroaldean aurreikusirikoa izan ezik– ezarritakoaren arabera kalkulatu ondoren.

Bosgarrena. Aseguru kontratu berri batzuei dagokien zerga-araubidea.

Foru Lege honetako 32. artikuluko 2. zenbakiko b) eta c) letretako azken lerroaldean aurreikusitako 100eko 70eko murrizketa 1994ko abenduaren 31tik aurrera itunduriko aseguru-kontratuei bakarrik aplikatuko zaie.

Seigarrena. Herri zorraren zenbait baloreri dagokion zerga-ordainketa.

1997ko abenduaren 31 baino lehen erositako eta aurretik ondare-gehikuntza sortzen zuten herri-zorraren baloreak 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera eskualdatu, amortizatu edo berreskuratzearen ondoriozko etekinak zerga-oinarriaren zati berezian sartuko dira, eta Foru Lege honetako 32. artikuluan aurreikusitako murrizketak ez dira aplikatuko.

Zazpigarrena. 1994ko abenduaren 31 baino lehenago eskuratutako elementuen ondoriozko ondare-gehikuntzak.

1994ko abenduaren 31 baino lehenago eskuratutako ondare-elementuen eskualdatzearen ondoriozko ondare-gehikuntzak, enpresa- edo lanbide-jardueretara atxikiak diren nahiz ez diren eskubide eta ondasun inmaterialen ondoriozkoak izan ezik, honelaxe kalkulatu dira:

1go. Zehaztapena elementu bakoitzerako egingen da, Foru Lege honetako III. tituluko II. kapituluko 4. sekzioan ezarritakoari jarraituz.

2gn. Zenbatekoa honela murriztuko da:

a) Subjektu pasiboaren ondarearen barnean honako epe hau iraun duela joko da: elementua eskuratu zen egunetik 1996ko abenduaren 31 arteko urte-kopurua, gorantz borobildua.

Harpidetza-eskubideen kasuan, iraupen-epeztat joko da horien jatorri diren baloreei dagokienera.

Eskualdaturiko ondare-elementuetan inbertsioak edo hobekuntzak egin badira, horiek subjektu pasiboaren ondarearen barnean honako epe hau iraun dutela joko da: egin ziren egunetik 1996ko abenduaren 31 arte igarotako urte-kopurua, gorantz borobildua.

b) Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeak aurreikusitako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetakoren batean negoziatziorako onarturiko akzioei dagokienez, Higikor eta Higiezinen Inbertsiorako Sozietateen sozietate-kapitala ordezkatzeko akzioak izan ezik, ondare-gehikuntza edo urripena 100eko 25eko kopuruan murriztuko da iraupen-urte bakoitzeko, hirugarren iraupen-urteetik aurrera kontatzen hasiz.

c) Aurreko b) letran xedaturikoa eragotzi gabe, ondasun higieziinei, horien gaineko eskubideei edo otsailaren 26ko 1/1990 Foru Legeko 59. artikuluan sarturiko entitateetako baloreei (Higiezinen Inbertsiorako Sozietate edo Fondoetako sozietate kapitala nahiz ondarea ordezkatzeko akzio edo partaidetzak izan ezik) dagokienez, ondare-gehi-

kuntza edo -urripena 100eko 11,11ko kopuruan murriztuko da iraupen-urte bakoitzeko, hirugarren iraupen-urteik aurrera kontatzen hasiz.

d) Gainerako gehikuntzak 100eko 14,28 murriztuko dira urte bakoitzeko, egondako denbora bi urteik gorakoa denean.

e) 1996ko abenduaren 31n, arestiko b), c) eta d) letretan adierazitakoaren arabera, ondarean bost, hamar eta zortzi urteik gora, hurrenez hurren, egon diren ondare osagaietatik heldu diren ondare gehikuntzak ez dira Zergaren menpean egonen.

3gn. Eskualdatu diren ondare elementuetan inbertsio edo hobekuntzak egin izan badira, aurreko zenbakian xedatutakoa aplikatzeko asmoz, eskualdaketaren osagai bakoitzari dagokion bes-terentze-balioaren zatia bereizi eginen da.

Zortzigarrena. Biziarteko eta aldi baterako errentei aplikatuko zaien araubide iragankorra

1. Higikorren kapitalaren etekintzat jotzen den biziarteko eta aldi baterako errenten –berehalakoa edo diferituak– zatia zehazteko, aplikagarri izanen zaizkie, Foru Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera errenta moduan jasotzen diren prestazioei, Foru Lege honetako 30. artikuluko 1. zenbakiko b) eta c) letretan ezarritako portzentaiak soilik, indarrean jarri baino lehen errenten eraketa gauzatu baldin badago.

Biziarteko errenten kasuan, portzentaia horiek aplikagarri izanen dira urteko errenta jasotzerakoa hartzaileak duen adinaren arabera, eta, aldi bateko errentak direnean, errentaren iraupenaldi osoaren arabera.

2. Foru Lege hau indarrean jarri baino lehen eratu diren biziarteko edo aldi bateko errentak berreskuratzera joko balitz, berreskuraketaren ondorioz sortutako higikor-kapitalaren etekina kalkulatzeko, errentaren eraketa egunera arte lortutako errentagarritasuna kenduko da.

Bederatzigarrena. Kenkaria ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik.

Foru Lege honetako 62. artikuluko 4. zenbakiko c) letrak aipaturiko muga aplikatzeko, Foru Lege hau indarrean jarri aurretik erositako edo zaharberitutako ohiko etxebizitzari dagozkion eta une hori baino lehenago aplikatutako kenkarien zerga-oinarriak ez dira zenbatuko.

Aurreko lerroaldean aurreikusitakoaren eraginetarako, honela jokatu da:

a) Foru Lege hau indarrean jarri aurretik erositako etxebizitza dela joko da baldin eta eskubidea

eman badu ohiko etxebizitza erostearen ondoriozko zerga-pizgarrien araubidea indar-hartze horren aurreko urteetan aplikatzeko. Salbuespena etxebizitza-kontuetan sartutako kopuruak izanen dira, aipaturiko datan haien helbururako aplikatu ez badira.

b) Foru Lege hau indarrean jarri aurretik zaharberitutako etxebizitza dela joko da babestutako zaharberitzearen behin-behineko kalifikazioa edo kasuan kasuko Entitate eskudunak luzatutako ziurtagiria aipaturiko data baino lehenago eman denean.

Hamargarrena. Langilea iraitzearen ondoriozko kalteordaina.

Foru Lege honek indarra hartu aurretik langilea iraitzearen edo berorrek lana uztearen ondoriozko kalteordainei, indar-hartze horren ondoren jasotzen baldin badira, Zergako salbuespena aplikatu ahal izanen zaie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 10. artikulua aurreikusitako modu berebean.

Hamaikagarrena. Zerga-oinarriaren murrizketak.

Foru Lege honetako 55. artikulua 6. idazatian murrizketen gehieneko muga gisa jasotako kopuruak 1998an aplikatu ahal izanen dira.

Xedapen indargabetzailea

1go. Foru Lege honek indarra hartzean, berorrek xedatzen duenaren aurkakoak diren xedapen guztiak indargabetuak geratuko dira; bereziki, honako arau hauek:

1. Nafarroako 1988rako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legeko Zazpigarren kapitulua.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legea.

3. Inbertsioa eta jarduera ekonomikoa laguntzeko eta beste zerga-neurri batzuei buruzko azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legeko 26. artikulua.

4. Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legeko 7. eta 9. artikulua.

2gn. Aurreko idazatian aurreikusitakoa gorabehera, honako hauek indarrean iraunen dute:

1. Kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea.

2. Fundazioen eta babes-jardueren tributuaraubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak, bere 35. artikulua izan ezik.

3. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarriak.

4. Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru Legeak.

5. Zenbait zerga aldatzen dituen abenduaren 29ko 14/1995 Foru Legeko 4. artikulua.

3gn. Erregelamendu bidezko garapena egiteko Foru Lege honek aurreikusten dituen gaikuntzak erabiltzen ez diren bitartean, indarrean iraunen dute Foru Lege honek xedaturikoaren aurka ez dauden erregelamenduzko arauak.

4gn. 1. idazatiak aipatzen dituen xedapenak indargabetzeak ez ditu kaltetuko Nafarroako Ogasun Publikoak horien indarraldian zehar sorturiko betebeharrak direla-eta izan ditzakeen eskubideak.

Azken xedapena Indar-hartzea

1. Foru Lege honek 1999ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, honako salbuespen hauekin:

a) 96. artikulua, 1999ko uztailaren 1etik aurrerako eraginez hartuko baitu indarra.

Halaber, artikulua horretan ezarritako preskripzio-epe berria aipaturiko dataren aurretik jazotako zergagaiei, likidaturiko zerga-zorrei, eginiko arauhausteei eta oker eginiko dirusarrerei aplikatu ahal izanen zaie. Preskripzioa eteten baldin bada, lau urteko epea eten horren egunetik aurrera kontatzen hasiko da.

b) Foru Lege honetako 91. artikulua 1998ko eta hurrengo urteetako zergaldiei dagozkien autolikidazioei aplikatuko zaie.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, Foru Lege hau aplikatuko zaie data horretatik aurrera eskuratutako errentei eta data horretatik aurrera egozpena egitea dagokienei, maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko denbora-egozpenerako irizpideei jarraituz.

Foru Lege proiektua, tributurik arloko aldaketari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko azaroaren 6an hartutako Erabakiaren bidez, tributurik arloko aldaketari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Gaur hasiko den epe bat irekiko da, **1998ko azaroaren 23ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan Parlamentari Taldeek

eta Foru Parlamentariak osoko emendakinak aurkeztu ahalko dituzte. Eta beste epe bat irekiko da, **1998ko azaroaren 27ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak aurtikuluei emendakinak aurkeztu ahalko dituzte.”

Iruñean, 1998ko azaroaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, tributurik arloko aldaketari buruzkoa

Foru Lege honek eduki askotako aldaketak biltzen ditu, Sozietateen, Ondarearen, Oinordekutzaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko zergei eta Fundazioen Tributurik Araubidea erregulatzen duen 10/1996 Foru Legeari buruz.

1. artikulua Sozietateen gaineko Zergari buruzko aldaketak biltzen ditu. Hauexek dira adierazgarrienak: errentamendu finantzarioko kontratuek inbertsioari loturiko zenbait zerga onura iza-

teko aukera, talde-inbertsioko erakunde ez-finantzario batzuei aplika dakiekeen zerga tasa, "kupoiaren garbiketa" izeneko tresnaren muga, atzerriko jatorriko dibidendu eta plusbalien nazio-arteko ezarpen bikoitzeko kenkaria egiteko aldaketa tekniko batzuk, zergako kuotak itzultzeko kasuetan zordunari beherala korrituak itzultzea, bat egin, bereiztu eta trukatzeko eragiketetan harturiko tituluen antzinatasunaren kontaketa eta enpresak sustatzeko sozietateei aplika dakiekeen araubide berezi berriaren erregulazioa.

2. artikulua, Ondarearen gaineko Zergari dagokionak, talde-inbertsioko erakundeen fondo berekietako partaidetzak adierazten dituzten akzio eta partaidetzen eta bigarren mailako merkatuetan negoziatu gabeko akzio eta partaidetzen balorazioan aldaketak sartzen ditu.

Halaber, gutxienezko salbuetsiaren murrizketa 25.000.000 pezetatan gehitzen du. Zifra horretatik goiti izanen da nahitaezkoa zergaren aitortpena aurkeztea.

Azkenik, jarduera ekonomikoei atxikiriko ondare-elementuei dagokien kuotako kenkaria aplikatzeko baldintzak ezartzen ditu.

3. artikulua, Oinordekotzaren gaineko Zergari dagokionak, "inter vivos" eta "mortis causa" irabazizko eskualdaketei dagozkien tarifak murrizten ditu eta "mortis causa" motako eskuratze batzuetarako ezarritako murrizketa gehitzen du.

4. artikulua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako tarifak eta instrukzioa onesten dituen 7/1996 Foru Legea aldatzen du, Foru Komunitateko eta Estatuko arlo horretako arautegia elkarrekin bat etorrarazteko asmoz.

5. artikulua, Fundazioen tributu araubidea erregulatzen duen 10/1996 Foru Legea aldatzen du, Balio Erantsiaren gaineko Zergako kirol jarduera salbuetsiak Foru Lege horrek ezarritako betebeharrak bateko salbuespenen artean sartzeko. Izan ere, Foru Lege horren arabera, sortzaileak eta haien ezkontide edo senideak ezin daitezke izan fundazioak egiten dituen jardueren onuradun nagusiak.

Xedapen gehigarriak lau urteko epea ezartzen du Nafarroako Ogasun Publikoko tributuen preskripzioarako, bai likidatu, ordainketa eskatu eta zehapenak ezartzeko, bai behar ez diren dirusarreraren itzulera lortzeko. Horrela, orokorrean, gaur egun indarra duen bost urteko epea gutxitzen da.

1. artikulua. Sozietateen gaineko Zerga.

1999ko urtarrilaren 1az geroztik hasiko diren zergaldietarako, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legetik ondoren aipatzen diren artikulua eduki honekin geldituko dira:

Bat. 17. artikuluko 3. idazatik azken aurreko-lerroaldea beste modu batean idatziko da.

"Errentamendu finantzarioaren xede diren ondasunak 36. artikuluan, IV. tituluko XI. kapitulu-ko 2. sekzioan eta VI. tituluko II. kapitulu-ko 1. sekzioan ezarritako edozein onura izateko eskaturiko betebeharren menpe gelditzen badira edo haiek VI. tituluko IV. kapitulu-ko 1. sekzioan ezarritako kenkariari lotzen zaizkionean, amortizazio kengarriaren zenbatekoa ondasunaren izaeraren arabera bidezkoa dena izanen da, 14. artikulua aurreko-lerroarekin bat etorritik."

Bi. 36 artikuluko 1. idazatia beste modu batean idatziko da.

"1. Ez dira zerga-oinarrian sartuko, ibilgetu material edo ez-materialaren ondare-elementuen kostubidezko eskualdaketa lortzen diren errentak, aipatu elementuak entitatearen ustiapen ekonomikoaren garapenari atxikiak daudenak izanik, errenta horiek moneta-baliogaleraren arabera egokitu ondoren, urte bat lehenagotik gutxienez eduki badira, baldin eta eskualdaketa horien zenbatekoa lehen aipatu den eta berdin atxikia den edozein ondare-elementutan berrinbertitzen bada, ondare-elementua eman edo eskura jarri aurreko urtearen eta ondorengo hiru urteen arteko epean inbertitu ere.

Egindako berrinbertsioaren zenbatekoa eskualdaketa totala baino txikiagoa bada, zerga-oinarrian ez sartze horrek bakarrik hartuko du aipatu eskualdaketa lortutako errentaren zati proportzionala.

Aktibo materialeko ondare-elementuak direnean, berrinbertsioa egindakotzat hartuko da, aipatu elementuak funtzionatzen hasten diren egunean, eta aktibo ezmaterialeko ondare-elementuen kasuan, haiek eskuratzen diren egunean.

Idazati honetan xedatutakoa ezin izanen da aplikatu, berrinbertsioak jotzen dituen ondare-elementuak alde aurretik eskualdatu baditu entitate berrinbertsiogileak, edo lotetsitako entitate edo pertsona batengandik eskuratu badira edo besterendutako ondare-elementua erabiltzen badu gero entitate eskualdatzaileak.

Errentamendu finantzarioko araubidean eginko inbertsioetan arau haiek aplikatuko dira:

a) Ulertuko da berrinbertsioa ondasuna abian jartzen den egunean egin dela.

b) Berrinbertsioaren zenbatekoa ondasunaren eskurako balioa izanen da.

c) Erosketa aukera gauzatzen ez bada, 6. idazatian xedaturikoa aplikatzeko, ez-betetze bat izanen da, kontratua iraungi edo hausteko egunean.”

Hiru. 43. artikuluko 2. idazatia beste modu batean idatziko da.

“2. Arestiko idazatian xedaturikoa galarazi gabe, errentamendu finantzarioko araubidean eskuraturiko ondasunak ere materializatzen egokitzen hartuko dira.

Erosketa aukera gauzatzen ez bada, 46. artikuluan xedaturikoa aplikatzeko, ez-betetze bat izanen da, kontratua iraungi edo hausteko egunean.”

Lau. 50. artikulua. 5. idazatia kenduko da eta 6. idazatia, 5 bihurtuko dena, aldatuko da.

“5. 100eko 1eko tasa ordainduko dutenak hauexek izanen dira:

a) Talde-inbertsioko erakundeei buruzko abenduaren 26ko 46/1984 Legeak araututako Higigarrietako Inbertsiorako Sozietateak, baldin eta beren kapital sozialaren balore adierazgarriak Balore Burtsan negoziatzeko onartzen badira.

b) Higigarrietako Inbertsiorako fondoak eta moneta-merkatuko aktiboetako inbertsio-fondoak, 46/1984 Legeak, abenduaren 26koak, arautzen dituenak.

c) Higiezinetako inbertsiorako sozietateak eta higiezinetako inbertsiorako fondoak, 46/1984 Legeak, abenduaren 26koak arautzen dituenak, baldin eta talde-inbertsioko erakunde ez-finantzarioak izanik xede bakarra hiri izaerako edozein ondasun higiezinetan inbertitzea bada, gero haiek errentan emateko. Gainera, etxebizitzak, ikasle egoitzak eta zahar etxeak ere sartuko dira, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan, batera gutxienez ere aktiboaren ehuneko 50 egiten badute.

Idazati honetan ezartzen diren karga tasak aplikatzeko, beharrezkoa izanen da aurreko lerroaldean aipatzen diren talde-inbertsioko erakundeen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak ez besterenganatzea, eskuratu direnetik hiru urte igaro artean, non eta, salbuespen gisa, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren baimen espresua ez den.

d) Hipoteka-merkatua arautzeko fondo publikoa, 2/1981 Legeak, martxoaren 25ekoak, Hipote-

ka-merkatua arautzeari buruzko hark bere 25. artikuluan ezarritakoa.

Bost. 50. artikuluko 7. idazatia 6 bihurtuko da.

Sei. 59. artikuluko 4. idazatiari beste letra bat, e), gaineratuko zaio:

“e) Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, horiek egin baino bi hilabeteko lehenagoko epearen barrenean eskuraturiko akzio edo partaidetzei badagozkie, eta data horren ondoren, epe beraren barruan, balore homogenoak eskualdatzen badira.”

Zazpi. 60 bis artikuluko 1. idazatia beste modu batean idatziko da eta 5. idazatia kenduko da.

“1. Subjektu pasiboaren zerga-oinarrian atzerrian kokaturiko establezimendu iraunkorren bitartez lortutako errentak sartzen direnean, hurrengo baldintzak betetzen dituzten establezimendu iraunkor guztien errenta positiboari dagokien kuota osoaren 100eko ehun kenduko zaie:

a) Establezimendu iraunkorrek ateratako errenta Zerga honen antzeko zehaztasunak dituen beste karga bati lotua eta ez salbuesirik egotea eta egoitza erregelamendu bidez zerga-paradisutzat jotako herrialde edo lurralderen batean ez edukitzea.

Ulertuko da, bestelako frogarik ez badago, establezimendu iraunkorrek ateratako errenta zerga honen antzeko ezaugarriak dituen karga baten menpe dagoela eta ez salbuesia, establezimendu iraunkor hori Espainiarekin aplikatzen ahal zaion nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen bat izenpeturik daukan estatu batean badago, hitzarmen horrek argibideak trukatzeko klausularik izanez gero.

b) Establezimendu iraunkorren errenta, atzerrian burututako enpresa-jarduerengatik sortua izatea, Foru Lege honen 148. artikulua 1. idazatik c) letran aurreikusitako bezala.

Zortzi. 61. artikuluko 1. idazatia beste modu batean idatziko da.

“1. Zergak ordaintzeko behar pertsonalik egonez gero, lurralde espainiarrean egoitza ez duen erakunde batek ordaindutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak zerga-oinarrian zenbaitzen direnean, dibidenduak ordaintzeko diren mozkinetari buruz azken honek benetan ordaindutako zergari dibidendu horiei dagokien munta gutxituko zaio, baldin eta munta hori subjektu pasiboaren zerga-oinarriaren barruan sartzen bada.

Kenkari hau aplikatzeko derrigorrezkoa izanen da egoiliarra ez den entitatearen kapitaleko zuzer-

neko zein zeharkako partaidetza, gutxienez, 100eko 5ekoa izatea, eta hura, banatuko den mozkina eska daitekeen egunaren aurreko urtean zehar geldiarazi gabe edukia izatea, edo, hori izan ezik, urtebete egiteko behar den denboran irautea.

Erreserbak banatzerakoan erreserba horiei ordaindutako azken kopuruak aplikatuzat joko dira.”

Bederatzi. 62. artikuluko 3. idazatia beste modu batean idatziko da eta 7. idazatia kenduko da.

“3. Aurreko bi idazatietan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko ondoko baldintzak bete beharko dira:

a) Egoitza Espainian ez duen entitateak kapitalean duen partaidetza zuzena edo zeharkakoa 100eko 5ekoa bederen izatea eta partaidetza hura etenik gabe edukitzea aurreko urtean, banatzen den mozkina eskatu aurretik edo eskualdakea egin aurretik.

b) Entitate partaidetua Zerga honen izaera berdina edo antzekoa duen beste karga bati lotua eta ez salbuetsirik egotea, eta egoitza erregelamendu bidez zerga-paradisutzat jotako herrialde edo lurralderen batean ez edukitzea.

Ulertuko da, bestelako frogarik ez badago, zerga honen antzeko ezaugarriak dituen karga baten menpe dagoela eta ez salbuetsia, entitate partaidetu hori Espainiarekin aplikatzekoa zaion nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen bat izenpeturik daukan estatu batean badago, hitzarmen horrek argibideak trukatzeko klausularik izanez gero.

c) Entitate partaidetuaren errentak, zeinetatik baitatoz dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, atzerrian burututako enpresa-jarduerengatik sortuak izatea, Foru Lege honen 148. artikulua 1. idazatik c) letran aurreikusi bezala.

Gehigarri gisa, balore eskualdatzetik ondorioztaturiko errentari dagokionez, pertsona edo entitate eskuratzailerak, lurralde espainiarrean badu egoitza, ez du loturarik izan behar entitate eskualdatzailerarekin.

Bete egin beharko dira b) eta c) letretan adierazitako baldintzak partaidetza edukitzean den ekitaldi guztietan, 2. idazatian aurreikusitakoa aplikatu ahal izateko.”

Hamar. 63. artikulua beste modu batean idatziko da.

“63. artikulua. Kenkariak, aktibo finko material berrietako inbertsioengatik

Erakundearen ustiapen ekonomikoaren garapenari loturiko aktibo finko material berrietan egiten diren inbertsioek, horretakotzat lurak hartzen ez direlarik, inbertsio horien zenbatekoaren 100ko 10eko kuota likidoaren kenkaria gauzatzeko bidea emanen dute.

Aurreko lerroaldean aurreikusten den kenkariaren babesera etorri ahalko dira errentamendu finantzarioaren bidez eskuratutako ondasunak.

Kenkaria egiteko eskubidea sortzen den eguna zehazteko eta haren oinarria zenbatekoa zehazteko, 36. artikuluko 1. idazatik a), b) eta c) letretan ezarritako arauak aplikatuko dira.

Erosketa aukera gauzatzen ez bada, 65. artikuluan xedaturikoa aplikatzeko, ez-betetze bat izan da, kontratua iraungi edo hausteko egunean.

Kuota likidoaren kenkaria aurreko lerroaldean aipatzen diren inbertsioen 100eko 15ekoa izanen da. Beti ere inbertsioak jardueraren hasiera arte eginak badituzte 52. artikuluan ezarritako kuotaren hobariaz baliatzen ez diren entitate sortuberriek.”

Hamaika. 70. artikuluko 2. idazatia beste modu batean idatziko da.

“2. Espainiako film luzeetako eta fikzio, animazio edo dokumentazioko ikus-entzunezko serieen ekoizpenetako inbertsioak, industri ekoizpena egin baino lehen euskarri fisikoa osatzea ahalbidetzen badute, 100eko 20ko kenkaria izateko eskubidea emanen diote ekoizleari. Kenkariaren oinarria ekoizpenaren kostua izan da, baterako ekoizle finantzarioak finantzaturiko zatia kendurik.

Espainiako film luze baten ekoizpenean esku hartzen duen baterako ekoizle finantzarioak finantzatzen duen inbertsioaren ehuneko 5eko kenkaria izateko eskubidea izan da, inbertsio horien ondoriozko epealdiko errentaren ehuneko 5 delarik muga.

Kenkari horren ondorioetarako, baterako ekoizle finantzariotzat joko da arestiko lerroaldean aipatzen diren filmak ekoizten ekoizpenaren kostu osoaren ehuneko 10 baino gutxiago eta ehuneko 25 baino gehiago ez den zenbatekoan baliabide finantzarioak ekarriz partaidetza duen entitatea, baldin eta haien ustiapenaren ondoriozko dirusarreretan partaidetza izateko eskubidearen truk egiten badu. Baterako ekoizpenerako kontratua, aipaturiko inguruabarrak bildu beharko dituena,

Ekonomi eta Ogasun Departamentuan aurkeztuko da.

Idazati honetan aipatzen diren kenkariak obraren ekoizpena bukatzen den zergalditik aurrera eginen dira. Zergaldi horretan kentzen ez diren zenbatekoak ondorengo zergaldietako likidazioetan aplikatzen ahalko dira, Foru Lege honetako 72. artikuluan aurreikusiriko baldintzetan. Kasu horretan, idazati honek aipatzen duen 100eko 5eko muga kenkaria aplikatzen den zergaldian lortzen den baterako ekoizpenaren ondoriozko errentaren gainean kalkulatu da.

Kenkari hau egiteko baldintza eta prozedurak erregelamendu bidez ezarri ahalko dira.”

Hamabi. 86. artikulua beste modu batean idatziko da.

“86. artikulua. Ofizioko itzulketa.

1. 74. artikuluan aipatzen diren konturako diru-sarreren batura ezarritako epean aurkezturiko autolikidazioaren ondoriozko kuota baino gehiago denean, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, hala bada, aitorpena aurkezteko ezarritako epea bukatu eta sei hilabeteko epearen barrenean, behin-behineko likidazioa egiten du.

2. Aurreko idazatian aipatzen den autolikidazioa edo behin-behineko likidazioa egin denean eta haren ondoriozko kuota egiazki atxikiriko zenbatekoen, konturako dirusarrerara eta zatikaturiko ordainketen eta zerga gardentasuneko araubidearen menpeko sozietateek ordainduriko kuota gisa egotziriko zenbatekoen batura baino gutxiago denean, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, kuota horren gainean ordainduriko gehiegizkoa ofizios itzuliko du, bidezko diren ondorengo behin-behineko edo behin betiko likidazioak galarazi gabe.

3. Behin-behineko likidazioa 1. idazatian ezarritako epean egin ez bada, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak ofizios autolikidazioaren ondoriozko kuotaren gaineko soberakina itzuliko du, bidezko diren ondorengo behin-behineko edo behin betiko likidazioak galarazi gabe.

4. Artikulu honetako 1. idazatian ezarritako epea Zerga Administrazioari egotz dakioken zio batengatik itzulketa ordaintzeko agindu gabe bukatu, itzultzeke dagoen zenbatekoari Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1998 Foru Legeko 19. artikulua aipatzen duen berandutze-korritua aplikatu zaio, epe hori bukatu eta bihamunetik ordaintzeko agindua ematen den bitartekoa, subjektu pasiboak horrela eskatu beharrik gabe.

5. Erregelamendu bidez artikulua honetan aipatzen den ofizioko itzulketa egiteko jardunbidea eta ordainketa modua ezarriko dira.”

Hamahiru. 117. artikuluko 5. artikulua beste modu batean idatziko da.

“5. Sozietate nagusiak bere izaera hau galtzen duenean sozietate-multzoa iraungiko da.

Alabaina, sozietate batek partaidetza duenean sozietate-multzo bateko sozietate nagusian titulu honetako IX. kapituluaren arautzen diren operazioetako baten bidez, eta sozietate horrek sozietate nagusizat joa izateko baldintzak betetzen ditueanean, horrela eratu den multzo berriari aplikatu ahalko zaio kapitulu honetan aurreikusten den zerga-ordainketako araubidea, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari gaztigatu eta gero, eta lehengo multzoa desegiten den unetik aurrera.”

Hori talde berriak sozietate multzoen araubidean tributatu den lehenbiziko zergaldia bukatu baino lehen gaztigatu behar da.”

Hamalau. 137. artikuluko 3. idazatia beste modu batean idatziko da.

“3. Bazkideek jasotako baloreak, zergari dago-kionez, emandakoen balioaren arabera baloratuko dira, zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera zehaztua, bidezkoa denaren arabera. Balorazio hau igo edota urritu egiten da emandako zein jasotako diru-konpentsazio osagarriaren zenbatekoan. Jasotako baloreek emandakoen eskuratze-datari eutsiko diote.”

Hamabost. 138. artikuluko 2. idazatia beste modu batean idatziko da.

“2. Heinean edo osorik bat egin, banatu eta irensteko eragiketen bidez jasotako baloreak, zergari dago-kionez, emandakoen balioaren arabera baloratuko dira, zerga honetako edota Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako arauen arabera zehaztua, bidezkoa denaren arabera. Balorazio hori igo edota urritu egiten da emandako zein jasotako diru-konpentsazio osagarriaren zenbatekoan. Jasotako baloreek emandakoen eskuratze-datari eutsiko diote.”

Hamasei. 140. artikuluko 3. idazatia beste modu batean idatziko da.

3. Entitate eskualdatzaileari dagozkion likidazio-oinarri negatiboek murriztu ahal izanen dituzte, Foru Lege honek ezartzen duen eran, entitate eskualdatzailearen likidazio-oinarri positiboak.

Entitate eskualdatzaileak sozietate eskualdatzailearen kapitalean partaidetza baldin badu, edo

biek Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aipatzen den sozietate multzo bat osatzen badute, konpensagarria den zerga-oinarri negatiboa txikitu egiten da partaidetza honi edo multzoko entitateek entitate eskualdatzailearen gainean dituzten partaidetzei dagozkien edozein titulurengatik bazkideek egindako ekarpenen balioaren eta kontabilitate-balioaren arteko diferentzia positiboaren zenbatekoan.”

Ez dute behin ere murrizketarako eskubiderik sortuko entitate eskualdatzaileak izaniko galerei dagozkien likidazio oinarri negatiboek, baldin eta entitate eskuratzaileak entitate eskualdatzailearen kapitalean duen partaidetzaren balio gabetzea ekarri badute, edo beste entitate batek horretan duen partaidetza baliogabetzea, horiek denek Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aipatzen den sozietate multzo bat osatzen badute.”

Hamazazpi. 145 artikuluko 1. idazatik a) letra beste modu batean idatziko da.

“a) Ekarrirako ondasunen errenta egozkarrien pentzutan banatutako mozkinen kenkarirako eskubidea ematen dute, 59.2 artikuluan aipatu den dibidenduen barne-ezarpen bikoitza eragozteko asmoz, bazkidearen partaidetzaren portzentaia edozein izanik ere. Irizpide bera aplikatuko da partaidetzaren eskualdaketa sorturiko errentei buruz 59.5 artikuluan aipatzen diren plusbalien barne ezarpen bikoitza saihesteko kenkariari buruz.”

Hemezortzi. X. tituluko XV. kapitulu berria gaineratzea.

“XV. KAPITULUA Enpresak sustatzeko sozietateak

167. artikulua. Enpresak sustatzeko sozietateak.

1. Enpresak sustatzeko sozietateetat hartuko dira betebeharrak hauek betetzen dituztenak:

A) Haien xede sozial bakarra izatea enpresak sustatu edo bultzatzea, haien kapitalean aldi baterako partaidetza izanez eta B) letran aipatzen diren eragiketak eginez.

B) Eragiketa hauek bakarrik egitea eta xede sozialean horrelaxe agertzea:

a) Foru Lege honetako 3. artikuluan aipatzen diren sozietateen akzio edo partaidetzak hartzea, enpresen jardueretan erabiltzen badira eta haien tituluek Burtsan kotizatzen ez badute. Ez dute behin ere partaidetza izan ahalko higigarrietako inbertsioko sozietateetan, higigarrietako inbertsio-

ko fondoetan, karterako sozietateetan edo ondasun edukitze hutseko sozietateetan.

b) Arestiko letran aipatzen diren akzio edo partaidetzak eskuratzea, haiek erosteagatik.

c) Errenta finkoko tituluak, partaidetza duteneko sozietateek luzatuak, hartzea edo horiei kredituak, partaidetzakoak edo ez, ematea, gutxienez ere bost urtez.

Ondorio horietarako, partaidetzako kreditutzat hartuko dira, interes ituna kontuan hartu gabe, hartzekodunak zordunaren mozkin garbian duen partaidetza hitzartzen dutenak, honelaxe:

a') Mailegua ematen duen entitateak mozkin garbieran partaidetza izanen du, gainera, korritu finkoa ezar daitekeelarik.

b') Mailegu-hartzaileak ezin aurreratuko du kreditu horien amortizazioa, salbu eta amortizazio aurreratu hori fondo berekien adinako diru-ekarpenaz konpensatzen denean, ekarpen hori aktiboen erregulaziotik ez datorrenean. Partaidetzako kredituaren amortizazio aurreratuak behin ere ezin aldatuko du baliabide berekien eta besteren baliabideen arteko harremana.

d) Partaidetza duteneko sozietateei aholkularitza, laguntza teknikoko eta antzeko zerbitzuak, partaideturiko sozietateen administrazioarekin, haien egitura finantzarioarekin edo haien ekoizte edo merkaturatze prozesuekin zerikusirik dutenak, ematea, zuzenean.

C) Kapital bereki desenboltsatua, gutxienez ere, 500 milioi pezetakoa izatea.

2. Artikulu honetako araubideari atxikiriko enpresak sustatzeko sozietateek ez dute zergarik ordainduko titulu honetako II. kapituluan ezarritako zerga araubidearen menpean.

3. Arestiko 1. idazatian aipatzen diren ezaugarriak betetzen dituzten akzio eta partaidetzen eskualdaketa onoriozko errentei Foru Lege honetako 110. artikuluko 1. idazatian xedaturikoa aplikatuko zaie.

4. Subjektu pasiboek enpresak sustatzeko sozietateen fondo berekiei eginiko diru ekarpenen zenbatekoaren ehuneko 20ko kuota likidoaren adinako kenkaria egiten ahalko dute.

Ekarpen horrek ordaindurik egon beharko du eta sozietatearen aktiboan bost urtez egon.

Idazati honetan aurreikusirik kenkaria Foru Lege honetako VI. tituluko IV. kapituluan arauturiko kenkariarekin batera aplikatuko da, 72. artikuluan ezarritako muga berekin.

5. Partaidetzako maileguen kontzesioaren ondoriozko errentak salbuetsirik egonen dira, haiek, mailegua hartu duen entitatearen mozkinen ondorioz, ordainketaren xede diren neurrian, baina korritu finkoaren ondoriozko ordainketa ez da horrelakotzat hartuko.

Hala ere, mailegua hartzen duen entitaterako gastu kengarritzat hartuko da.

6. Arestiko idazatian ezarritakoaren arabera zerga-oinarrian sarturik ez dagoen errentaren zenbatekoa helburu hauetariko baten baterako erabili behar da:

a) Erreserba espezifiko bat osatzeko. Haren xedea, osatzen denetik bost urte pasata, Foru Lege honetako 44. artikuluko 4. idazatian aipatzen dena izanen da. Hornidura hori zerga oinarrian sarturik ez dagoen errenta eskuratu eta hurrengo ekitaldian egin beharko da.

b) Arestiko letran aipatzen den errenta lortu eta hurrengo bi urteetan partaidetzako mailegu berriak emateko.

7. Enpresak sustatzeko sozietateek sustatu edo bultzatzen dituzten sozietateetatik harturiko dibidenduek eta, orokorrean, mozkinetako partaidetzek Foru Lege honetako 59. artikuluko 2. idazatian aurreikusten den kenkaria izanen dute, edozein delarik partaidetzaren ehunekoa eta akzioak edo partaidetzak izaniko denbora.

8. Enpresak sustatzeko sozietateek sustatu edo bultzatzen dituzten sozietateetatik harturiko dibidenduek eta, orokorrean, mozkinetako partaidetzek Foru Lege honetako 59. artikuluko 2. idazatian aurreikusten den kenkaria izanen dute, edozein delarik partaidetzaren ehunekoa eta akzioak edo partaidetzak izaniko denbora.

9. Aipaturiko betebeharrak betetzen ez badira, artikuluko honetan aurreikusiriko araubidea galduko da.

10. Artikulu honetan ezarritako araubidea aplikatzeko nahitaezkoa izanen da Ekonomi eta Ogasun Departamentuak espreski onar dezala, enpresak sustatzeko sozietateek alde aurretik eskatu aitzin."

Hemeretzi. Hirugarren xedapen gehigarriko 2. idazatia beste modu batean idatziko da.

"2. Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga ez da sortuko Foru Lege honetako X. tituluko IX. kapituluak erregulatzen duen araubide berezia ezar dakizkiekeen eragiketen ondoriozko hiri izaerako lursailen eskualdaketak direla eta, 144. artikuluko aurreikusitako lurra salbu, jardueraren adar batean sarturik ez daudenean.

Aipatu lursailen ondorengo eskualdaketetan, ulertuko da balio gehikuntza azaldu den urte kopurua eten ez dela X. tituluko IX. kapituluak aurreikusitako eragiketen ondoriozko eskualdaketak dela eta.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 57.2 artikuluko xedatua ez da aplikatuko.

Hogei. Lehen xedapen iragankorreko 1. idazatiari beste lerroalde bat gaineratzen zaio.

"Idazati honetan aurreikusiriko zerga araubidea enpresek gizarte aurreikuspeneko mutualitatei eginiko kontribuzioei ere aplikatuko zaie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 55. artikuluan aurreikusiriko betebeharrak betetzen dituzten mutualitateen aseguru kontratuen edo prestazio erregelamenduen bidez, kontribuzio horiek aitorturiko iraganeko zerbitzuen ondoriozko eskubideei badagozkie.

Hogeita bat. Hamaseigarren xedapen iragankorreko 2. idazatia beste modu batean idatziko da.

"2. Sozietate gardenek ez dute zatikako ordainketarik egin beharrik izanen, egotzitako zerga oinarriaren zatiari dagokionez."

2. artikulua. Ondarearen gaineko Zerga.

1999ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko artikuluko hauek, eduki honekin geldituko dira:

Bat. 15. artikulua beste modu batean idatziko da.

"15. artikulua. Entitate orotako fondo berekien partaidetzaren balore adierazleak, merkatu antolatuetan negoziatutakoak direnean.

1. Edozein entitate juridikotako kapital sozial edo fondo berekietako akzio eta partaidetzak, merkatu antolatuetan negoziatzen direnean, urte bakoitzeko laugarren lauhilekoaren batezbesteko negoziazio-balioaz konputatuko dira, talde-inbertsioko erakundeei dagozkienak izan ezik.

2. Oraindik kotizazio ofizialerako onartu ez diren akzio berrien harpidetzari dagokionez, merkatu antolatuetan kotizatzen diren entitate juridikoen jaulki eta balore horien baliotzat harpidetza aldian titulu zaharrek azken negoziazioan zutena hartuko da.

3. Oraindik ordaindu gabeko kapitala zabaltzen denean, akzioak baloratzerakoan aurreko arauari jarraituko zaie, osotara ordaindurik bailiren.

Ordaindu gabeko zatia subjektu pasiboaren zortzat hartuko da.”

Bi. 16. artikulua beste modu batean idatziko da.

“16. artikulua. Entitate orotako fondo berekien partaidetzaren beste balore adierazle batzuk.

1. Aurreko artikulua aipatzen dituen akzio eta partaidetzak ez diren beste batzuei dagokienez, onetsitako azken balantzean zuten balio teorikoaren arabera baloratuko dira, beti ere aipatu balantze hori, beharrez edo borondatez, berrikusi eta egiaztatu bada eta auditoretzak adostasun txostena luzatzen badu.

Balantzea ikuskatu ez bada edo auditoretzak adostasun txostenik eman ez badu, kontuan hartuko den balorazioa ondoko hiruretan baliorik haundiena duena izanen da: balio izenduna; zerga sortzen den eguna baino lehenago onetsitako azken balantzeko balio teorikoa edo zerga sortzen den eguna baino lehenago itxitako hiru ekitaldi sozialetako emaitzen batezbestekoa %20ko tasaren arabera kapitalizaturik ateratakoa.

Azken honen ondorioetarako, mozkinzart banatutako dibidenduak eta erreserbatarako esleienak hartuko dira, balantzeak erregularizatu edo gaurkotzekoak izan ezik.

2. Talde-inbertsioko erakundeen kapital sozialeko eta ondare-fondoko akzio eta partaidetzak, Zerga sortzen den egunean duten balio likidagarriaren arabera konputatuko dira; balantzeko aktiboak horri dagokion berariazko legeriari jarraikiz baloratuko dira eta hirugarrenendako obligazioak kengarri izanen.

3. Kooperatibetako kapital sozialean bazkide edo elkartekide direnen partaidetzen balorazioa, Zerga sortzen den eguna baino lehenago onetsitako azken balantzeko nahitaezko edo borondatezko ekarpen sozialen kopuru osoaren arabera zehaztuko da, itzuli gabeko galera sozialen kenteta eginez, beharrik bada.

4. Artikulu honetan aurrikusitako ondorioetarako, entitateek bazkide, elkartekide edo partaideei behar diren balorazioak azalduko dituzten ziurtagiriak eman beharko dizkiete.”

Hiru. 28. artikulua beste modu batean idatziko da.

“28. artikulua. Likidazio-oinarria.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 4. artikulua aipatzen duen subjektu pasiboaren likidazio-oinarria murriztu

eginen da, 25.000.000 pezetatan, gutxieneko kopuru salbuetsiaren kontzeptuaz.

Gutxieneko kopuru salbuetsi hori ez zaie aplikatuko zergak betebeharrak errealagatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboak.”

Lau. 33. artikulua 1. idatziko b) letran ezarritako hirugarren eta laugarren baldintzak beste modu batean idatziko dira.

“Hirugarrena. Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza gutxienez 100eko 15a izatea banako gisa zenbatuta, edo 100eko 20a ezkontidearekin batera.

Laugarrena. Subjektu pasiboak entitatean zuzendaritza eginkizuna izatea egiazki, eta horretatik jasotzen duen ordainsaria etekin enpresarial, profesional eta lan pertsonaleko guztien 100eko 50a baino gehiago izatea.

Entitateko partaidetza ezkontidearekin batera izaten denean, zuzendaritza eginkizunak eta hortik sortzen diren ordainsariak horietako batek behintzat izan beharko ditu, nahiz eta biek izanen duten kenkarirako eskubidea.

Kenkaria partaidetzen baliora iritsiko da, soilik, (Foru Lege honen 15 eta 16. artikuluetan ezarritako arauak jarraikiz zehaztua), enpresa-jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren aktiboaren -jarduera horren ondoriozko zorren zenbatekoan gutxituen eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren arteko proportzioari dagokion zatian.”

Bost. 36. artikuluko 1. idatzia beste modu batean idatziko da.

“1. Aitorpena egitera beharturik daude:

a) Zergaren subjektu pasiboak, haien zerga-oinarria 25.000.000 pezetakoa baino handiagoa bada edo, hori ematen ez denean, dituen ondare eta eskubideen balioa, Zerga erregulatzen duten arauak jarraikiz zehaztua, 100.000.000 pezetakoa baino handiagoa bada.

b) Zergak betebeharrak errealagatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboak, edozein izanik ere duten ondare osoaren balioa.”

3. artikulua. Oinordetzen gaineko zerga.

1. Beste modu batean idatziko da Oinordetzen gaineko Zergari buruzko Arauen 29. artikuluko 2. idatzia, eta horren ondorioak 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako zerga-oinarriek izan dituzte. Arau horiek Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10eko Erabakiaren bidez onetsi zituen. Hona hemen:

“2. 1.300.000 pezetako kopurua, ahaidetasunezko aurreko eta ondorengoen “mortis causa”

eskurapenetan, edo bigarren eta hirugarren graduko zehar-ahaidetasunekoetan. Halaber, biziaren gaineko aseguru polizen onuradunei aplikatuko zaie, ahaidetasuneko erlazio bera dagoenean eta beste edozein titulurengatik beste eskurapen batzuetan jaso ez dutenean.”

2. Aurreko idazatian aurreikusitako ondorio berberekin, “inter vivos” eta “mortis causa” diren irabazizko eskualdaketak ondoko pertsona hauen aldekoak izaten direnean, honako tarifa hauen araberako zerga ordainduko dira:

1. Ahaidetasuneko aurreko eta ondorengoak:

Likidazio oinarria	Karga tasa
1.000.000 arte	% 6,00
1.000.001etik 2.000.000ra	% 7,00
2.000.001etik 5.000.000ra	% 8,00
5.000.001etik 10.000.000ra	% 10,00
10.000.001etik 15.000.000ra	% 11,00
15.000.001etik 20.000.000ra	% 13,00
20.000.001etik 25.000.000ra	% 14,00
25.000.001etik 50.000.000ra	% 16,00
50.000.001etik 100.000.000ra	% 17,00
100.000.001etik 300.000.000ra	% 18,00
300.000.001etik 500.000.000ra	% 19,00
500.000.001etik aurrera	% 20,00

2. Bigarren graduko zehar-ahaidetasunak:

Likidazio oinarria	Karga tasa
1.000.000 arte	% 8,00
1.000.001etik 2.000.000ra	% 9,00
2.000.001etik 5.000.000ra	% 10,00
5.000.001etik 10.000.000ra	% 11,00
10.000.001etik 15.000.000ra	% 13,00
15.000.001etik 20.000.000ra	% 15,00
20.000.001etik 25.000.000ra	% 17,00
25.000.001etik 50.000.000ra	% 20,00
50.000.001etik 100.000.000ra	% 23,00
100.000.001etik 300.000.000ra	% 26,00
300.000.001etik 500.000.000ra	% 30,00
500.000.001etik aurrera	% 35,00

3. Hirugarren graduko zehar-ahaidetasunak:

Likidazio oinarria	Karga tasa
1.000.000 arte	% 9,00
1.000.001etik 2.000.000ra	% 10,00

2.000.001etik 5.000.000ra	% 11,00
5.000.001etik 10.000.000ra	% 13,00
10.000.001etik 15.000.000ra	% 15,00
15.000.001etik 20.000.000ra	% 17,00
20.000.001etik 25.000.000ra	% 20,00
25.000.001etik 50.000.000ra	% 23,00
50.000.001etik 100.000.000ra	% 26,00
100.000.001etik 300.000.000ra	% 30,00
300.000.001etik 500.000.000ra	% 34,00
500.000.001etik aurrera	% 39,00

4. Laugarren graduko zehar-ahaidetasunak:

Likidazio oinarria	Karga tasa
1.000.000 arte	% 11,00
1.000.001etik 2.000.000ra	% 12,00
2.000.001etik 5.000.000ra	% 13,00
5.000.001etik 10.000.000ra	% 15,00
10.000.001etik 15.000.000ra	% 17,00
15.000.001etik 20.000.000ra	% 20,00
20.000.001etik 25.000.000ra	% 23,00
25.000.001etik 50.000.000ra	% 26,00
50.000.001etik 100.000.000ra	% 31,00
100.000.001etik 300.000.000ra	% 35,00
300.000.001etik 500.000.000ra	% 38,00
500.000.001etik aurrera	% 41,00

5. Urrunagokoak eta arrotzagoak diren zehar-ahaidetasunak:

Likidazio oinarria	Karga tasa
1.000.000 arte	% 11,00
1.000.001etik 2.000.000ra	% 12,00
2.000.001etik 5.000.000ra	% 14,00
5.000.001etik 10.000.000ra	% 16,00
10.000.001etik 15.000.000ra	% 18,00
15.000.001etik 20.000.000ra	% 21,00
20.000.001etik 25.000.000ra	% 24,00
25.000.001etik 50.000.000ra	% 29,00
50.000.001etik 100.000.000ra	% 36,00
100.000.001etik 300.000.000ra	% 40,00
300.000.001etik 500.000.000ra	% 45,00
500.000.001etik aurrera	% 48,00

Aurreko tarifa horiek ez dira progresiboak eta likidazio-oinarri osoaren gainean aplikatuko dira.

Likidazio-oinarria lortuko da zerga-oinarriari bidezko salbuespen eta murrizketa aplikatuta.

Tasen aplikaziotik ateratzen bada oinarriaren gehikuntza bati gehikuntza hori baino handiagoa den kuota zati bat dagokiola, kuota ofizioz murriztuko da gehiegizkoaren edo diferentziaren zenbatekoan.

4. artikulua. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

Bat. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifek, maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen I. Eranskinean azaltzen direnek, aldaketa hauek izanen dituzte 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera:

1. Lehen sekzioko 505.6 epigrafea aldatuko da.

“505.6 epigrafea. Edozein era eta motatako pintura, paper, ehun edo plastikozko estaldurak eta eraikin eta lokalei akabera eman eta apaintzea.

Gutxienerako udal kuota:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 31.000 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 12.000 pezeta.

– Gainerako herrietan: 11.000 pezeta.

Lurralde kuota: 222.500 pezeta.

Kuota nazionala: 1.112.500 pezeta.”

2. Lehen sekzioan 505.7 epigrafea sortuko da.

“505.7 epigrafea. Igeltsu eta eskaiola lanak eta eraikin eta lokalak apaintzea.

Gutxienerako udal kuota:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 32.085 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 12.420 pezeta.

– Gainerako herrietan: 11.385 pezeta.

Lurralde kuota: 230.285 pezeta.

Kuota nazionala: 1.151.435 pezeta.”

3. Lehen sekzioko 659.1 epigrafea aldatuko da.

“659.1 epigrafea. Zigiluen, txanponen, konmemorazioko dominen, bildumatzailendako bileten, arte lanen eta antzinako gauzen, mineral solteen edo bildumatutako mineralen, fosilen, intsektuen, maskorren, landareen eta disekatutako animalien txikizkako merkataritza.

Gutxienerako udal kuota:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 25.000 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 15.000 pezeta.

– Gainerako herrietan: 11.000 pezeta.

Oharra: epigrafe horrek ahalmena ematen du bertan sailkatutako gaien handizkako merkataritza egiteko, arte lanen eta antzinako gauzen kasuan izan ezik.

4. Lehen sekzioko 659.3 epigrafean ohar bat sartuko da.

“Oharra: epigrafe honetan sailkatuta dauden eta fotografi materiala saltzen duten subjektu pasiboek ahalmena dute fotografi bobinak jaso eta beraien ez den laborategi batek errebelatutako argazkiak emateko.”

5. Lehen sekzioko 659.4 epigrafea aldatuko da.

“659.4 epigrafea. Liburuen, egunkarien, papergintza eta idazmahaiako gaien eta marrazketa eta arte ederretako gaien txikizkako merkataritza.

Gutxienerako udal kuota:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 24.840 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 14.283 pezeta.

– Gainerako herrietan: 10.350 pezeta.

Oharra:

1. Epigrafe horrek ahalmena ematen du mekanikoak, elektrikoak edo elektronikoak ez diren jostailuak txikizka saltzeko.

2. Epigrafe honetan sailkatuta daude “prentsa-kioskoak” deitzen direnak, alegia, jarduera nagusizat honakoen txikizkako merkataritza duten establezimenduak: prentsa eta aldizkariak, bai eta kioskoetan ohiko salmenta duten gaiak ere, hala nola, gozokiak, litxarrerriak, fruitu idorrek, izozkiak, garraio publikoko txartelak, telefono txartelak eta antzekoak, e.a.

Aurreko lerroaldean aipaturiko subjektu pasiboek, gai osagarri moduan eta kuota gehigarriak ordaindu beharrik izan gabe, txikizka saldu ahal dituzte kiosko horietan “cd-rom”, zinta magnetoskopiko eta magnetofoniko, “compact-disc” eta halako euskarritan dauden argitalpen eta bildumak.

6. Lehen sekzioko 691.9 epigrafeko oharra aldatuko da.

“Oharra: epigrafe horren barnean sartzen da multzo horretako aurreko epigrafeetan zehaztu gabeko kontsumoko gaien konponketa, hala nola, oinetakoak, larrukiak eta antzekoak konpontzea; oinetakoetarako betunak, kremak, xingolak, plantilak, oinetakoak sartzekoak eta antzekoak, gomazko zola eta takoiak kopuru txikitik saltzea; erlojuak konpontzea, arte lanak eta antzinako gauzak berritzea; idazmakinak, josteko eta puntua egiteko makinak, argazki makinak eta aparatu optikoak, musika instrumentuak, jostailuak, labanak, aitzurak, aterkiak, luma estilografikoak, altzariak, e.a. konpondu eta kontserbatzea. Halaber, epigrafe horrek ahalmena ematen du giltzen kopiak egiteko.

Erlojuak bakarrik konpontzen dituzten establezimenduek arestian aipatu kuoten 100eko 50 ordainduko dute.”

7. Lehen sekzioan 721.4 epigrafea sortuko da.

“721.4 epigrafea. Anbulantzia bidezko osasun garraioa.

Kuota:

Kuota nazionala:

Ibilgailu bakoitzeko: 12.420 pezeta.”

8. Lehen sekzioko 751.1 eta 751.2 epigrafeak aldatuko dira.

“751.1 epigrafea. Ibilgailuak estalitako garaje eta lokaletan gorde eta zaintzea.

Kuota:

Jarduera horretarako erabiltzen den azalera 250 metro karratu arte: 29.910 pezeta.

Aurreko muga horretatik goiti dagoen 50 metro karratu edo zatikiko: 6.624 pezeta.

Jarduera horretarako erabiltzen den azalaren neurketa egiteko kendu egingen dira elementu osagarriak, hala nola, aldapak, lorategiak, segurtasun eremuak eta sarbideak.

Oharra: kuota horiek ez dute baimenik ematen ordu batzuetan bakarrik gordetzen diren autoak egunez zaintzeko, nagusiki gauez gordetzen direnekin txandakatuz.

Zaintza mota hori egiten bada, kuotak 100eko 25 igoko dira.

751.2 epigrafea. Ibilgailuak lurpeko aparkaleku edo “parking” deiturikoetan gorde eta zaintzea.

Kuota:

Jarduera horretarako erabiltzen den azalera 250 metro karratu arte: 33.638 pezeta.

Aurreko muga horretatik goiti dagoen 50 metro karratu edo zatikiko: 8.280 pezeta.

Jarduera horretarako erabiltzen den azalaren neurketa egiteko dauden solairu guztiak sartuko dira, eta aurreko epigrafean aurreikusitako murrizketak egingen dira.”

9. Lehen sekzioko 811. multzoa aldatuko da.

“811. multzoa. Banka.

Kuota:

Eragiketa guztiak edo batzuk egiten diren establezimendu edo lokaleko:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 269.584 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 74.334 pezeta.

– Gainerako herrietan: 52.034 pezeta.

10. Lehen sekzioko 812. multzoa aldatuko da.

“812. Aurrezki kutxak.

Kuota:

Eragiketa guztiak edo batzuk egiten diren establezimendu edo lokaleko:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 269.584 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 74.334 pezeta.

– Gainerako herrietan: 52.034 pezeta.

Oharra: multzo horren barnean sartzen dira aurrezki entitateak, hala nola, Aurrezki Kutxen Konfederazio Espainiarra, Aurrezki Kutxak, Kutxa Erruralak, Kreditu Kooperatibak eta antzeko entitateak.”

11. Lehen sekzioko 811 eta 812. multzoendako ohar bat sortuko da.

“811 eta 812. multzoendako oharra: multzo horietan sailkatutako subjektu pasiboek honako jarduera hauek egin ahalko dituzte:

Gordailuak edo beste fondo itzulgarri batzuk biltzea.

Mailegu eta kredituak ematea, horien barnean kontsumorako kreditua, kreditu hipotekarioa eta merkataritzako transakzioen finantzazioa.

“Factoring” jarduerak, errekurtsoa izanda edo izan gabe.

Errentamendu finantzarioa.

Ordainketa eragiketak, horien barnean, besteak beste, ordainketa eta transferentzia zerbitzuak.

Ordainketak egiteko bitartekoak eman eta kudeatzea, hala nola, kreditu txartelak, bidaia txekak edo kreditu gutunak.

Abal eta bermeak ematea eta antzeko konpromisoak izenpetzea.

Bankuarteko merkatuetan bitartekaritza lana egitea.

Bakoitzaren edo bezeroen konturako eragiketak, helburu hauek dituztenak: balore negoziagarriak, moneta edo truke merkatuen tresnak, eperako finantza tresnak, finantza aukerak eta etorkizunak eta finantza trukatzekak.

Baloreen jaulkipenean parte hartzea eta jaulkitzailearen kontu zuzen edo zeharkako bitartekaritza horiek kokatzerakoan, eta jaulkipenen harpidetzaren ziurtatzea.

Enpresei aholkuak eta zerbitzuak ematea honako arlo hauetan: kapitalaren egitura, enpresako estrategia, eskurapenak, bategiteak eta antzeko gaiak.

Ondareak kudeatzea eta horien titularrei aholku ematea.

Titularren kontura, titulu erako baloreen gordailuzain gisa aritzea, edo kontuko idazpenetako baloreen administratzaile gisa.

Merkataritza txostenak egitea.

Kutxa gotorrak alokatzea.

Aseguruen eta pentsio fondoerako finantza zerbitzuen bitartekaritza.

Administrazio publikoen laguntzaile izateko zerbitzuak.

Aurrekoen osagarri edo gehigarri diren finantza arloko zerbitzuak.

Halaber, eta 812. multzoan sailkaturiko aurrezki kutxei eta gainerako entitateei dagokienez, arlo horretako zerga ordainketan sartzen da, kuota gehigarrik ordaindu gabe, kutxa eta entitate horiek beren ongizate eta gizarte arloan egiten duten jarduerak.”

12. Lehen sekzioko 819. multzoa aldatuko da.

“819. multzoa. Beste finantza erakunde batzuk.

819.1 epigrafea. Kreditu erakundeak.

Kuota:

Eragiketa guztiak edo batzuk egiten diren establezimendu edo lokaleko:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 225.216 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 62.100 pezeta.

– Gainerako herrietan: 43.470 pezeta.

Oharra: epigrafe honen barnean sartzen dira Kreditu Ofizialeko Institutua eta nekazaritza eta industriako kooperatiben eta gordailuen kreditu sekzioak.

819.2. Kredituko finantza establezimenduak.

Kuota:

Eragiketa guztiak edo batzuk egiten diren establezimendu edo lokaleko:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 162.081 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 44.891 pezeta.

– Gainerako herrietan: 32.422 pezeta.

Oharra: epigrafe honen barnean sartzen dira honako jarduerak egiten dituzten kreditu entitateak:

Mailegu eta kredituak ematea, horien barnean kontsumorako kreditua, kreditu hipotekarioa eta merkataritzako transakzioen finantzazioa.

“Factoring”, errekurtsoa izanda edo izan gabe, eta horren jarduerak osagarri guztiak, hurrengo 819.4 epigrafean biltzen direnak.

Errentamendu finantzarioa eta horren jarduerak osagarri guztiak, hurrengo 819.5 epigrafean biltzen direnak.

Kreditu txartelak eman eta kudeatzea.

Abal eta bermeak ematea, eta antzeko konpromisoak izenpetzea.

819.3 epigrafea. Mailegu eta kreditu jarduerak dituzten kredituko finantza establezimenduak.

Kuota:

Eragiketa guztiak edo batzuk egiten diren establezimendu edo lokaleko:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 67.275 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 18.630 pezeta.

– Gainerako herrietan: 13.455 pezeta.

Oharra: epigrafe honetan sartzen dira honako jarduerak dituzten kreditu entitateak:

Mailegu eta kredituak ematea, horien barnean kontsumorako kreditua, kreditu hipotekarioa eta merkataritzako transakzioen finantzazioa.

Kreditu txartelak eman eta kudeatzea.

Abal eta bermeak ematea, eta antzeko konpromisoak izenpetzea.

819.4 epigrafea. “Factoring” jarduera, errekurtsioa izanda edo izan gabe, egiten duten kredituko finantza establezimenduak.

Kuota:

Eragiketa guztiak edo batzuk egiten diren establezimendu edo lokaleko:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 67.275 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 18.630 pezeta.

– Gainerako herrietan: 13.455 pezeta.

Oharra: epigrafe honetan sartzen dira honako jarduerak dituzten kreditu entitateak:

“Factoring” egitea, errekurtsioa izanda edo izan gabe, bai eta horren jarduera osagarriak ere, hala nola, bezeroen gaineko ikerketa eta sailkapena, zordunen kontabilizazioa eta, oro har, merkataritzako trafiko nazionalen edo nazioartekoan sortzen diren kredituen -lagatzen zaizkionen- administrazio, ebaluazio, segurtasun eta finantzazioarendako lagungarri den beste edozein jarduera.

Kreditu txartelak eman eta kudeatzea.

Abal eta bermeak ematea, eta antzeko konpromisoak izenpetzea.

819.5 epigrafea. Errentamendu finantzarioko jarduera egiten duten kredituko finantza establezimenduak.

Kuota:

Eragiketa guztiak edo batzuk egiten diren establezimendu edo lokaleko:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 67.275 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 18.630 pezeta.

– Gainerako herrietan: 13.455 pezeta.

Oharra: epigrafe honetan sartzen dira honako jarduerak dituzten kreditu entitateak:

Errentamendu finantzarioa egitea, honako jarduera osagarri hauek barne:

1. Lagatutako ondasunen mantenimendu eta kontserbaziorako jarduerak.

2. Egungo edo aurreragoko errentamendu finantzarioko eragiketa bati loturiko finantzazioaren kontzesioa.

3. Errentamendu finantzarioko eragiketen bitartekaritza eta kudeaketa.

4. Finantzarioak ez diren errentamendu jarduerak, erosketa aukera batekin osatu ahalko direnak ala ez.

5. Merkataritzako aholkularitza eta txostena.

Kreditu txartelak eman eta kudeatzea.

Abal eta bermeak ematea, eta antzeko konpromisoak izenpetzea.

819.6 epigrafea. Moneta trukatzeko entitateak.

Kuota:

Eragiketa guztiak edo batzuk egiten diren establezimendu edo lokaleko:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 48.645 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 13.455 pezeta.

– Gainerako herrietan: 10.350 pezeta.

819.9 epigrafea. Beste finantza entitate batzuk, b.l.s.g.-ak.

Kuota:

Eragiketa guztiak edo batzuk egiten diren establezimendu edo lokaleko:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 48.645 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 13.455 pezeta.

– Gainerako herrietan: 10.350 pezeta.

Oharra: epigrafe horren barnean sartzen dira “Beste finantza erakunde batzuk” (819) multzoko

aurreko epigrafeetan zehaztu gabeko finantza entitateak, hala nola, epekako salmenten finantzazio sozietateak, higigarrien inbertsiorako sozietateak eta fondoak, e.a.”

13. Lehen sekzioan 847. multzoa sortuko da.

“847. multzoa. Posta eta Telekomunikazioetako zerbitzu integralak.

Kuota nazionala: 2.000.000 pezeta.

Oharrak:

1. Multzo honetan sartzen dira posta zerbitzuak, alegia, gutun igorpenak eta posta igorpenak bildu, hartu, sailkatu, tratatu, kurtsoa eman, garraiatu, banatu eta entregatzea; telegrama, telex, posta igorpen eta igorpen telegrafikoko zerbitzuak, bai eta aurrekoen antzekoa den beste edozein ere.

2. Posta zigiluak eta gainerako frankeatze zeinuak luzatu eta banatzeko jarduera egin ahalko da, kuota gehigarririk ordaindu gabe.

3. Posta eta Telegrafoen Entitate Publiko Enpresarialak ordainduko du Multzo honetan aipatu zerbitzu guztiendako ezarritako kuotaren 100eko 50a.

14. Lehen sekzioko 931.2 epigrafea aldatuko da.

“931.2 epigrafea. Oinarrizko hezkuntzako irakaskuntza: Hezkuntza eta/edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, soil-soilik.

“Kuota: 33.638 pezeta.”

15. Lehen sekzioko 931.3 epigrafea aldatuko da.

“931.3 epigrafea. Batxilergoa, Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea, Lanbide Heziketa eta Berariazko Lanbide Heziketako Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloak, soil-soilik.

Kuota: 36.101 pezeta.

Oharra: epigrafe honek ahalmena ematen du Gizarte Garantiako Programak emateko.

16. Lehen sekzioko 932. Multzoarendako oharra sortuko da.

“932. multzoarendako oharra. Prestakuntza jarduerak, lanaren bidezkoak zein etengabekoak, Enpleguko Institutu Nazionalak edo Europako Gizarte Fondoak soilik finantzatzekoak edo bi erakunde horiek, soilik kofinantzatutakoak, ez dira irakaskuntzako jardueratzat hartuko eta ez dute zerga honi dagokionez kuotarik sortuko.”

17. Lehen sekzioko 963.1 epigrafea aldatuko da.

“963.1 epigrafea. Zinema filmeak eta bideoak ematea.

Kuota:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 178.227 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 118.818 pezeta.

– Gainerako herrietan: 57.339 pezeta.

18. Lehen sekzioko 971.1 epigrafean ohar bat sortuko da.

“Oharra: epigrafe honetan sailkatutako subjektu pasiboek, beren jarduera baldin bada tindatu, idorrean garbitu, ikuzi eta lisatzeko arropa eginak eta jantziak eta etxeko gauzak bildu eta ematea, jarduera horiek beste enpresa batzuek egiten dituztelarik, epigrafe honetako kuotaren 100eko 50eko zerga ordainduko dute.

19. Lehen sekzioko 972.2 epigrafea aldatuko da.

“972.2 epigrafea. Edergintzako areto eta institutuak eta estetika kabinetek.

Kuota:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herrietan: 32.100 pezeta.

– 10.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: 16.100 pezeta.

– Gainerako herrietan: 8.000 pezeta.

Oharra: epigrafe honetan matrikulaturiko subjektu pasiboek ileapainketa zerbitzurik ematen ez badute, dagokien kuotaren 100eko 50a ordainduko dute.”

20. Lehen sekzioko 973.1 epigrafea aldatuko da.

“973.1 epigrafea. Zerbitzu fotografikoak.

Kuota: 28.260 pezeta.

Oharrak:

1. Epigrafe honen barnean sartzen dira argazki erretratuen ekoizpena, merkataritza argazkien ekoizpena, argazki teknikoko zerbitzuak, argazkiak errebelatu, inprimatu eta handitzeko zerbitzuak eta bideo eta argazkiaren zerbitzu konbinatuak.

2. Epigrafe honetan sailkaturiko subjektu pasiboek ahalmena izanen dute argazki bobinak jaso eta ondoren beste laborategi batek errebelatutako argazkiak emateko.

3. Epigrafe honetan sailkaturiko subjektu pasiboek, jarduera osagarri moduan, argazkigintzako material txikia saldu ahalko dute, hala nola, bobinak, pilak, argazki-euskarriak, albumak eta makina trinkoak. Salmenta hori egiteko kuota 100eko 25 gehituko da.

21. Bigarren sekzioko 745. multzoan ohar bat sortuko da.

“Oharra: eskuhartzeko xedea duten kontratuak merkataritzako artekari baten aurrean izenpetzeko betebeharrak dela eta, multzo honetan matrikulaturiko subjektu pasiboek, kuota gehigarriak ordaindu gabe, langela osagarriak izan ahalko dituzte beraiei dagozkien zirkunskripzioetako udalerrietan dauden lokaletan.”

22. Hirugarren sekzioko 016. multzoa aldatuko da.

“016. multzoa. Umoristak, karikatoak, xelebreak, eleketariak, errezitatzaileak, ilusionistak, e.a.

Kuota: 18.837 pezeta.”

Bi. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokionez subjektu pasiboek duten egoera ukitzen baldin bada aurreko Bat atalean egindako aldaketan ondorioz, dagokien aitorpena aurkeztu beharko dute, azaroaren 11ko 614/1996 Foru Dekretuaren 5, 6 edo 7. artikuluetan aurreikusitako moduan, kasuen arabera. Dekretu horren bidez Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga edo Lizentzia Fiskala kudeatzeko arauak eman ziren.

Hiru. Aldatu egin dira maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen II. Eranskinean agertzen den Zergaren Instrukzioko 14.1.G) arauaren b) letrako 3. puntua eta e) letrako koefiziente koadroa. Hona hemen:

1. b) letrako 3. puntua:

“Kirol instalazio eta zinema, antzerki eta antzeko ikuskizunetarako lokal mota ororen azalera estali edo eraikiaren 100eko 10a. Salbuespena: kirol, zinema, antzerki eta antzeko ikuskizunetara joaten den jendea kokatzeko harmaila, mailadi eta eserlekuek eta gainerako instalazio finkoek hartzen dutena, horren 100eko 50a zenbatuko baita.”

2. e) letrako koefiziente koadroa:

Jardueraren zenbateko eta izaeraren arabera ezarri beharreko koefiziente zuzentzaileak

Kuota tartekak	1. sekzioa:	1. sekzioa:
	1. dibisiotik 7.era eta 9.a	8. dibisioa
6.210 pta.tik 103.500ra	1,0	0,5
103.501 pta.tik 207.000ra	1,5	0,5
207.001 pta.tik 517.500ra	2,0	,0
517.501 pta.tik 1.035.000ra	2,5	,5
1.035.000 pta.tik goiti	3,0	2,0

5. artikulua. Fundazioen tributu araubidea.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen 2. artikuluko bigarren lerroaldea aldatu da. Honela idatzita geratuko da:

“Ez dira irabazi asmorik gabeko entitatetzat hartuko:

a) Jarduera nagusia merkataritzakoa badute.

b) Fundatzaileak eta horien ezkontideak edo ahaideak, laugarren gradua barne, entitateek egiten dituzten jardueren hartzaile nagusiak badira edo horien zerbitzuen onura hartzeko baldintza bereziak badituzte.

Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikagarri izanen entitate hauei: Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuesitako gizarte laguntzako jarduerak edo kirolekoak egiten dituztenei, eta Espainiako ondare historikoko ondasunak kontserbatzea eta berreskuratzea xede esklusibo edo nagusia dutenei, beti ere Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen galdakizunak betetzen badituzte.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. 1. Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuei dagokienez, eta ondorioak 1999ko uztailaren 1etik aurrerakoak izanik, lau urteren buruan preskribituko dute eskubide eta ekintza hauek:

a) Zerga zorra dagokion likidazioarekin zehazteko Administrazioak duen eskubideak.

b) Likidatutako tributu zorren ordaintzea galdatzeko ekintzak.

c) Tributu zehapenak ezartzeko ekintzak.

d) Zuzenak ez diren dirusarrerak itzultzeko eskubideak.

2. Aurreko idatzian xedaturikoa honakoei ere aplikatuko zaie: egindako zergagaiei, likidaturiko tributu zorrei, egindako arau-hausteei eta zuzenak izan ez diren dirusarreei, 1999ko uztailaren 1aren

aurrekoak beti ere. Preskripzioa eteteko kasuetan, lau urteko epea zenbatuko da etete horren datatik hasita.

Bigarrena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari enplegua sortzeagatiko kenkariak Sozietateen gaineko Zergan aplikatzeko baldintza eta betebeharrak erregelamenduz gara ditzan. Kenkari horiek 1998ko irailaren 18an izenpeturiko Nafarroako Enplegu Planeko "Kontratazio egonkorra sustatzeko ekintzak" izeneko 6.4 idazatian agertzen dira.

Azken xedapena Indarra hartzea

Foru Lege honek 1999ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, bertan aurreikusitako ondorioekin. Hala ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Legearen 86. artikuluan egindako aldaketa aplikatuko zaie aitorpen epearen amaiera Foru Lege honek indarra hartu ondoren duten zergaldiei dagozkien autolikidazioei.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--